

NORMALIZAZIORAKO IRIZPIDEAK

- I. Aurretik kontuan izan beharrekoak
- II. Fonemak eta arau morfofonologikoak
 - A. Fonemak
 - B. Arau morfofonologikoak
 - B.1. Historikoak diren arau morfofonologikoak
 - B.2. Asimilazioa
 - B.3. Disimilazioa
 - B.4. Bokalen bilakaera
 - B.5. Palatalizazioa edo bustidura
 - B.6. Gehitzeak: epentesiak, anatipxia, bokal paragogikoa
 - B.7. Galerak: murrizketak, sinkopak, haplogia
 - B.8. Metatesia
 - B.9. Toponimoetako osagai jakin batzuen bilakaera
 - B.10. Deklinabide markak
 - B.11. Herri etimologiatik eratorritako aldaketak
- III. Aukeraketa irizpideak. Toponimoak tratatzerakoan gertatzen diren fenomenoak
- IV. Toponimoak idazteko irizpideak
 - A. Toponimoak lotuta
 - B. Toponimoen idazkeran eragina duten soinuak eta gertaerak
 - C. Artikulua eta bokal paragogikoa Bermeoko leku-izenen corpusaren azterketatik abiatuta
 - C.0. Sarrera
 - C.1. Bokalez amaitutakoak
 - C.2. Kontsonantez amaitutakoak
 - C.3. Artikulua
 - C.3.1. Artikuludun leku-izenak
 - C.3.2. Artikuludunak vs. artikulu gabeak
 - C.3.2.1. Artikulua zalantzazkoa jotzen da
 - C.3.2.2. Artikulua ala *-aga* leku-atzizkia?
 - C.3.2.3. Leku-izen zahar asko artikulu gabe
 - C.3.2.4. Artikulua osagaika
 - C.3.2.5. Ondorioak
 - C.4. Bokal paragogikoa
 - C.4.1. Bokal paragogikoaren ezaugarriak
 - C.5. Laburbilduta

I. AURRETIK KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Normalizazioa, leku-izen beraren aldaerak edo grafia desberdinarekin adierazitakoak, forma bakarrera ekartzea da, forma bakar “egokienera”, hain zuzen. Ezin bestean, lan honek alderdi subjektiboak ditu. Iritzi desberdinak izan daitezke. Nola normalizatu behar dira leku-izenak? Euskal Herria osoan era homogeneoan edo lekuan lekuko forma bereziak errespetatu behar dira?

Leku-izenek bi osagai izaten dute: izenaren alderdi espezifikoa (lekuaren berariazko izena) eta izenaren alderdi generikoa (bere izaera geografikoa adierazten duena: erreka, mendia, kalea, baserria, etab.). Generikoak hainbat erreferente geografiko berdinen aipamena egiten du, Burgo *mendia*, Gantxu *mendia*, Sollube *mendia*, etab., eta beraz, bere formaren batasuna eskatzen du, bestela nahastea besterik ez litzateke sortuko. Baina izen espezifikoa dagokionez, leku-izen bakoitzak bere testuinguru propioa izanik, berea bakarrak dena, ez da beharrezkoa hauek forma bakarrera ekartzea, ez baitute nahasme-

nik sortzen, are gehiago, argia ematen dute, toponimo bat bere antzeko besteetatik bereiztean⁵.

Normalizatzeko orduan, kontuan hartu beharreko beste aspektu bat, lekuan lekuko erabiltzaileen onespina da: Bermeoko toponimia ahoan erabiliko dutenak, batez ere bermeotarrak direnez, ez litzateke egokia izen normalizatuak herritarrek erabiltzen dituzten formatetik (okerrak ez badira behintzat) gehiegi urruntzea. Lekukoek erabiltzen dituzten formetik koherentzia ere, hortaz, aintzakotzat hartu beharrekoa da.

Baina ezin da ukatu Euskal Herrian, leku-izeni tratamendu bateratua eman beharra dagoenik eta zenbait hizkuntza arau jarraitu behar denik.

Leku-izenak biltzerakoan, aurrerago esan den moduan, iturri idatziak eta ahozkoak erabili dira. Iturri mota bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu; biek ematen dute toponimoen berri, baina sarritan gertatzen da, gauza bategatik edo besteagatik, ematen duten informazioa faltsua izatea, edo dagokion garaiko erabilera ez islatzea. Beharrezkoa da, hortaz, iturrien inguruan nolabaiteko jarrera kritikoa mantentzea. Saiatu beharra dago leku-izen beraren bai ahozko eta bai idatzizko ahalik eta erreferentzia ugarien jasozten, horrela, konparazioz, zuzenak diren erreferentziak okerrak direnetatik bereizteko.

Idatzizko erreferentziak:

Dokumentazio idatziak arazoak sor ditzake eurak interpretatzeko orduan. Kontuan izan behar da, erreferentziak norbaitek idatzi dituela, leku-izenari testuinguru zehatz bat jarrita.

Gehienetan, leku-izenak agiritan jasotzeko arrazoia, kutsu ekonomikoduna izan da: zentsuak, erroldak, fogerak, etab. Gutxi-gutxitan jaso izan dira leku-izenak, toponimo soil gisa edota interes linguistiko batek eraginda. Lan honek motibazio soil hori dauka eta beharrezkoa da, leku-izenak jasotzerakoan kontuan hartzea, idazleek euren filtroak erabili izan dituztela izenak jasotzerakoan. Idazleek batzuetan ezaugarri fonetikoak jaso dituzte (*Aitxatxuko plaijje*, *Beichi*, *Iribiyene*, *Ichurri-andi*); besteetan ez. Batzuetan beren euskararen ezagupen linguistikoak erabili dituzte, baina etimologia berriak sortzeko (*Echebiscar*, *Itxas-bizkar*, *Urkizarre*); besteetan ageri-agerian geratu da eskribau batzuen euskararen ezjakintasuna (*Yechar-gorri*, *Bermiyo-solo-chiquilla*, *Gavimeta*, *Achrek*)⁶.

Nahiz eta desegokitzat eman, leku-izenaren aipuak direnez, erreferentzia hauek mantendu egin dira idatzizko erregistroetan, beste zirkunstantzia bateko lekuko baitira.

5 Enric Moreu-Rey (1986); 39-47

6 Datuen azterketa egin ondoren, ikusi ahal izan da badagoela dokumentazio mota bat nahiko akats duena. Berezi akats linguistiko ugari aurkitu da GJEko liburuetan eta, seguruenik, fondo honekin lotuta dauden 1910. urteko BUA. 1435. Fincas rústicas; 1032. Fincas rústicas; 866. Fincas rústicas; 1944. urteko BUA. 406/3,4 eta 353/3,4,5; eta 1923-24ko BUA. 404. Fincas rústicas izenetako espedienteetan. Hona hemen zenbait adibide: Aborta: *Algorta*; Aingerubaso: *Angara-baso*; Aingeruardatzekoa: *Angueruquarta-atzeka-arestegi*; Almika: *Alboñiga*; Almirak: *Almichu*; Altamira: *Almira*; Aranoiburu: *Granaondo-buru*; Arbaltze: *Allache-parte*; ArrikoTxaoila: *Anicochaola*, *Arriisco-draola*; Atxanarbaso: *Achabarbaso*; Atxerrek: *Ach-rek*; Barrenengo: *Barrengua*; Basogalant: *Basobalante*; Beitegi: *Beistegui*; Beitegiburu: *Beitu-buru*; Berdentza: *Berdebeaga*; Bideazpi: *Bide-aspe*; Bonbillarte: *Gunvillarte*, *Boncollarte*; Berjele: *Berdela*; Burutxueta: *Barechueta*, *Bucheta*, *Burcechueta*; Erleko punta: *Estecopunta*; Erromarazarreta: *Erremoso-sarreta*; Eskillaramalleta: *Esquilla-maleta*; Etxezuri: *Cesuri*; Ezkiaga: *Esquinaga*; Garimeta: *Gavimeta*; Irusurrune: *Ynsurrune*; Itsasgane: *Ynchagane*; Justu: *Churtu*; Karabizar: *Corobisar*; Lantzabide: *Manchabide*; Luberrri: *Luguerri*; Mastiondo: *Marteriando*; Miskatu: *Mirquetu*; Nafarrolope: *Nazonrolepe*; Olaparte: *Olaporto*; Otsolarra: *Ocho-barra*; Perretxiñe: *Peredime*, *Errechin*; Sakona: *Socana*; Solobiribille: *Soloberille*; Solozar: *Sotozar*; Sutorla: *Sunturola*; Utzuene: *Yechuena*, *Zikintza*: *Siguenza*.

Idatzizko oker hauen jatorrian zirkunstantzia desberdinen eragina dago. Idazlearen euskararen edota lekua ezagutza eza, zenbait leku-izen ulertezinak izatea edo aurreko idazkariak idatzitako letra ulertezina izatea. Notarioen kasuan, azpimarratzekoa da, aurrekoek idatzi duten forma gorde beharra izatea. Bestalde, eskribauek nolabaiteko arauak izan ohi dituzte toponimoak idatzeko orduan, kontuan hartu gabe ahozko erabilera. Zentzu honetan, idazkariak, ustez, ahozko erabileratik urruntzen den genitiboa erabili izan dute jabearen izenetik eratortako baserri izenak emateko orduan [-e]na. Ez dago garai bateko ahozko erreferentziarik, baina noizbehinka agertzen da honen arrastorik idatzizko agiritan (XVIII. mendean: Ostiene).

Leku-izenen adierazpenari dagokionez, garai foraleko dokumentazioa nahiko zuzena den bitartean, esan behar da, XX. mendekoa nahiko traketsa dela, ustez, funtzionarioek euskara ezagutzen ez zutelako. Baserri inguruetako biztanleen edo auzoetako alkateen laguntzaz burututako nomenklatorrak, berriz (1860koa eta 1898koa), bereziki zuzen eta zehatzak dira.

Ahozko erreferentziak:

Ahozko erreferentziak jasotzeko orduan, kontu handia izan da informatzaileen adina, nongoak diren, non bizi izan diren, ogibidea...⁷ Honek ez du esan nahi informatzaileen artean gazterik ez dagoenik. Batzuetan besterik ezean, inguru edo baserri zehatz bateko informazioa jakin nahi izanez gero, dagoenarekin edo aurkitzen denarekin hitz egin beharra dago. Baina egia da, aldaerak jasotzerakoan pisu handiagoa izan dutela lekuan bertan bizi diren adineko informatzaileen datuek.

Askotan, leku-izen beraren forma ugari jasotzen dira:

- Aldaera laburragoak (“*Arronategi*” edo “*Arnote*”),
- Bustiak (“*Iruturrizek*” edo “*Iruitzurizek*”),
- Epentesidunak (“*Tonpoize*” eta “*Tonpoie*”),

Azentuak ere aldaerak eragiten ditu: “*Kóseandizenè*” (Mañu aldekoa) edo “*Joseándizene*” (herri aldekoa) eta gaztelaniaren eraginpekoa “*Joseandiéne*”⁸.

Aldaera berriak ere sortu izan dira, herri etimologiatik eratorrita: **Lamiaranpunta** > “*Lamerapunte*”, **Urkamendi** > “*Urkimendi*” edo “*Urkisarri*” > “*Urkisarre*”.

Sarritan, aldaera osatuagoak ematen direnean, edo aipatutako gaztelaniaren eraginpeko azentu ereduak aurkitu izan denean, jabetza paperetatik irakurrita daukatelako da, horixe irizten dutelako berriemaileek zuzenena eta egokiena. Tankera honetakoak ekidin egin dira.

II. FONEMAK ETA ARAU MORFOFONOLOGIKOAK

A. FONEMAK:

A.1. Bokalak:

Euskaran bost bokal ditugu [a, e, i, o, u]. Hauek dituzten ezaugarrien arabera be-reiztu egiten dira.

a: bokal irekia e, o: erdiko bokalak i, u: bokal itxiak, palatalak	aurreko	erdiko	atzeko	
	i		u	itxiak
a: erdiko e, i: aurrekoak o, u: atzekoak eta biribilak		e	o	erdikoak
			a	irekia

A.2. Kontsonanteak:

		Ezpain- bikaria	Ezpain- horzkaria	Horzkaria	Apiko- albeolarea	Bizkar- albeolarea	Sabai- aurrekoa	Sabaikaria	Belarea
		[+ahos] [+ahos]	[-ahos] [+ahos]	[-ahos] [+ahos]	[-ahos] [+ahos]	[-ahos] [+ahos]	[-ahos] [+ahos]	[-ahos] [+ahos]	[-ahos] [+ahos]
Herskariak	Hasperen- duna	p b		t d					k g
Sudurkariak		m	ɱ		n			ɲ	ŋ
Frikariak		β f		θ ð	ɣ		ʃ ʒ		x ɣ
Afrikariak						ts	tʃ dʒ		
Albokoak					l			ʎ	
Dardarkariak	Bakuna					r			
	Anitza					ɾ			

7 “Para la elección de personas entrevistables (...) me han puesto en contacto con las personas más idóneas prefiriendo labradores nacidos y crecidos en el pueblo (a veces guardas rurales y pastores), conocedores del terreno y los de mayor edad y buena memoria”. Jimeno Jurio, J.M^a (1991).

8 [j-] gaztelaniazko /x/ belare ahoskabeari dagokio.

Ondoren, toponimoak erabili dira erakusteko, fonema kontsonantikoak testuinguru desberdinetan:

/p/ : [p] : Paradako landa	/m/ : [m]: Lamiñane	/s/ : [s]: Asitxo
/b/ , /β/ : [b]: Basero, Astasabale	/n/ , /ɲ/ , /m̃/ : [n]: Arene, Ingelesolo, Enpare	/ts/ : [tz]: Tzoborsolo
/t/ : [t]: Tontorre	/l/ : [l]: Gibeles	/ʃ/ : [x]: Itxibixker
/d/ , /ð/ : [d]: Dondorreta, Artedi	/ɲ/ : [ñ]: Lamiñerrea	/tʃ/ : [tx]: Atzitxurri
/k/ : [k]: Kakitxurri	/ʎ/ : [ll]: Silluta	/ʒ/ : Iribigene
/g/ , /ɣ/ : [g]: Gixisti, Igertu	/f/ : [f]: Fandangone	/dʒ/ : Tzindzortza
/x/ : [j]: Joseandizene	/θ/ : [z]: Kalzada	/r/ : [r]: Arantzadi
		/r̄/ : [rr]: Artikerreka, Ronpiolas

B. ARAU MORFOFONOLOGIKOAK

B.1. Historikoak diren arau morfofonologikoak

Arau morfofonologiko hauek ez dute, gaur egun, indar handiegirik edo indar erlatibo dute.

B.1.0. Fonema zahar batzuk

B.1.0.1. /f/ fonema.

Garai batean /f/ fonema arrotza izango zen, horrela, /f/ fonema /p/ fonemarekin txandakatzen zen edo /p/ fonemak /f/ ordezkatzaren. Fonema honen inguruan, Mitxelena hauxe esaten du:

«Es seguro que su introducción es relativamente reciente. En efecto, f aparece sobre todo en préstamos y fuera de ellos se puede demostrar por lo general que procede de otro sonido más antiguo (...) Esto puede extenderse al vasco que conocemos por los textos desde el siglo XVI.» (Mitxelena, *FHV*, 1990, 262)

Hualdek honela esaten du:

«Euskaraz [f]ak status marjinala du fonema bezala. Bizkai-Gipuzkoetako hizkera askotan eta agian beste leku batzuetan ere, [f] eta [p] aldaera estilistikoak izan dira zenbait hitzetan. Txandaketa hau erakusten duten hitz gehienak jatorriz [f] zuten maileguak dira: *feria* ~ *peria*, *fanfarroi* ~ *panparroi*, *Fernando* ~ *Pernando*, etab. Mitxelenaren ustez, gaurregun [f] fonema /p/ ren aldaeratzat hartzen bada ere, aitzinean gauzak ez ziren horrela.» (Hualde, “Aitzineuskaren leherkariak” *ASJU XXXI-2*, 1997, 421)

/p/ fonemak /f/ ordezkatzeara, XX. mendean eta ahozkoan, indar handirik gabe, jaso den gertaera da. Badirudi, garaiako modaren bati jarraitzen diola.

Fitxa burukoa	Auzoa	/f/ > /p/
Infernuerreka	Artika	1891 Infernuerreca > 1966 Ympernu-erreca
Fradu	Demiku	1578 Fradua > 1763-1846 Fradu > 1847 Pradupe
Nafarroa	Artika	1285 Nafarroa > 1944 Naparroa

[f-] / [p-] txandakatzea erakusten duen adibide zahar bat ere badago XVI. mendean:

Fitxa burukoa	Auzoa	[f] / [p] txandakatzea
Pagozuloaga	Artika	1575 Pago y Culiaga / 1578 Fagoculuaga

Gaur egunean gertatzen den moduan, gaztelaniatik asimilaturiko /x/ fonema (frikari belare ahoskabea) gutxitan azaltzen da.¹⁰ Badirudi, lehengoek /ʒ/ antzekoa (frikari belare ahostuna) egiten zutela.

9 Fonema hau, dardarkari anitza, hitz hasieran [r-] idazten da.

10 Batzuetan, /x/ fonema /k/ fonemak ordezkatzaren. Toponimian ere agertzen dira ordezkapen hau islatzen dituzten aldaerak. Ikusi San Migeleko *Atakueta* –“*Atakuta*”- eta *Atakuburu* –“*Atakuburu*”-, Almikako *Atakuko* soloa –“*Atakuko solue*”-, Demikuko *Josene* –“*Kosene*”-, Mañuko *Joseandiane* –“*Koseandizene*”- eta *Mungiarrenegoiko* –“*Kosemarijene*”-.

Gaur egunean, badira /x/ fonemaz ahoskatutako leku-izenak:

Normalizatua	Auzoa	Gaur egun ahoskabea
Jardiña	Hirigunea	1860 Jardín > 1903 Jardin, Yardiña > “Jardiñe”
Sanjuanbidea	Hirigunea	1769 San Juan Vide > “Sanjuanbide”
Sanjuanportale	Hirigunea	1334-35 portal de San Juan > 1608 portal de San Joan
San Juan Gaztelugatxekoa	San Pelaio	1334 la Peña de Sanct Joan > 1634 San Yuan de la Peña > 1652 San Joan de la Peña
Jeronimone	San Migel	1860 Geronimo
Jardinondo	San Andres	1790 Jardin ondo
Juramentu	Almika	1910 Jurementu
Birjiñean beresia	Almika	“Birjiñin beresi x̃”
Joseandiane	Mañu	1827 Jose Andia > “Joseandi x̃ne”, “Koseandi x̃ne”
Sanjuanoñetze	San Pelaio	“Sanjuanoñetze”

/ʒ/ fonema adierazteko hurrengo grafiak erabiltzen ziren: [g], [j], [x] eta [y] bokal-erdia. Inoiz, XX. mendean, [ch] eta [jj] grafiarekin adierazi izan dira. Beraz, horrelako txandakatzeak ikusiz gero, /ʒ/ fonema dagoela susmatzen da.

Fitxa burukoa	Auzoa	Idatzizkoa
Mojoja	Ezezaguna	Mojoja
Berjelarte	Ezezaguna	1535 Berjelarte
Berjeleta	Ezezaguna	1563 Bergeleta > 1579 Verjeleta
Oiangorta	Mañu	1577-78 Ojaurta > 1646 Oxaorta > 1710 Oyorta > 1823 Ojangorta > 1827 Oyurta
Berjele	Arane	“Brei x̃le”
Sanjuanbaso	Artika	“Sanx̃nbaso”
Justu	Demiku	1922 Churtu > “x̃istu”
Sanjuanalde	San Pelaio	1910 Jayo-alde > 1982 Sanjionalde > “San x̃nalde”
Jentillatxeta	Mañu	1854 Gentilache > 1855 Jentil Ach > “x̃entillatzeta”

B.1.0.3. Ozen osteko afrikaria

Toponimo zaharretan, ozen ostean, garaiko [ç] eta [z] grafiak jaso dira: *Zurzuri* > *Zurtzuri*, *Calzadas* > *Kaltzada*... Kasu batzuetan *-tza* atzizkia ezkutatu izan du: *Elorça* > *Elortza*, *Ocaranza* > *Okarantza*, *Aranzadi* > *Arantzadi*, *Areilza* > *Areiltza*...

XIX eta XX. mendeetan, testuinguru honetan, afrikaria eta frikaria jaso dira, gero eta gehiago, gaztelaniak eraginda: “*Kaltzada*” eta “*Kalsada*” (Hirigunekoa), “*Sartzailleku*” eta “*Sarsailleku*” (Arane auzokoa), “*Ertzille*” eta “*Ersilla*” (Hirigunekoa)... Gaur egun, elkarketan, frikaria jaso da: *Urzuri* (Mañu), *Farolzarra* (Arane), *Txapelsolo* (Mañu), *Antonsolo* (Arane), *Butzinsolo* (Demiku)...

B.1.1. Ahoskabetzea eta Ahostuntzea

Ahoskabetze eta ahostuntzeari buruz Hualdek hauxe dio:

«Euskaraz, bokalen arteko ingurunean latinaren leherkari ahoskabeak mantentzen dira ahostundu gabe, mendebaldeko hizkuntza erromantze gehienetan bezala (...). Aldiz, hitz hasieran egoera askoz korapilotsuagoa da, adibideek erakusten dutenez. Askotan ahoskabeak ahostuntzen dira testuinguru honetan, baina ez beti eta bestaldetik ahostunak ere ahoskabetu daitezke: *torcular* > *dolare* ~ *tolare*, *pace* > *bake* ~ *pake*, *cruce* > *gurutze* ~ *erronk*. *Krutze*, *corpus* > *gorputz* ~ *Z. khorpitz* ~ *gorphitz*, *corta* > *korta* ~ *gorta*, *corroto* > *gorroto*, *golpe* > *kolpe*, *gypsu* > *kisu* ~ *gisu*, *daculu* > *dailu* ~ *tailu*, *bolsa* > *poltsa*. (...) Badirudi gertakaririk hedatuena eta zaharrena ahostuntzea dela, dena den. Hala ere, ahostuntzea ez da inolaz ere sistematikoa.» (Hualde, “Aitzin euskararen leherkariak”, *ASJU XXXI-2*, 1997, 414-415)

B.1.1.1. Ahoskabetzea

Kontsonante ahostunak ahoskabetu zitezkeen, bai hitz hasieran, bai hitz barruan.

Fitxa burukoa	Auzoa	Ahoskabetzea: [g > k / # _V]
Gortaederre	Mañu	1645Cortaederra > 1646 Gortaederra > 1774 Corteder > "Gortarre" / "Kortarre"
Goientzabalpe	Mañu	1656 Gogençabala > 1910 Conchaleburu
Fitxa burukoa	Auzoa	Ahoskabetzea: [g > k / V _V]
Artika	Artika	1521 Artigas > 1700 Artica
Aguriaga	Mañu	1645 Aguriaga > 1702 Acuriaga
Demiku	Demiku	1236? De Menigo > 1734 Demenigu > 1796 Demeicu aurrecoa > "Demiku"

B.1.1.2. Ahostuntzea:

Gertaera honen berri emateko datu gutxi daude.

Hitz hasierako herskariago ahostuntzea, XVIII. mendearen azkenetan ikusten da: Denderia eta mende bat geroago Dondorreta. Bigarren toponimo honen txandakatzeak, XX. mendera arte jaso dira.

Hitz barruan, belarearen ahoskabe / ahostun txandakatzea ageri duen adibide bakarra dago: *Cafranga*, XVIII. mendean.

Eratorpenean ere adibide bat jaso da, *-ika* atzizkiaren ahostuntzea erakusten duena: *Albonica* > *Alboniga*. XV. mendetik, lehenengoz jaso denetik, eskribauek Alboniga aldaera erabili izan dute, eta gutxi gutxitan, jaso izan da ahozkoa islatzen duen aldaera: 1659 *Albeinca* edo oikonimoan 1787 *Albincachu* edo *Almikaondo* parajeen agertzen direnak, guztiak *-ika* atzizkia ahoskabe jaso izan dutenak: Alboincaondo, Albeincaondo, Albincaondo, Almoycaondo, Almicaondo, Almicondo.

Fitxa burukoa	Auzoa	Ahostuntzea: [k > g / # _V]
Denderiakalea	Hirigunea	1566 Tenderia > 1775 Denderia
Tontorre	San Andres	1896 Dondorreta > 1910 Tontorra > 1911 Dondorreta

Fitxa burukoa	Auzoa	Ahostuntzea: [k > g / V _V]
Kafranka	Artika	1514 Cafranca > 1745-6 Cafranga > 1836 Cafranca
Almika	Almika	1093 Albonica > 1493 Alboniga

B.1.2. *-io* amaiera.

Badira leku izenen artean *-io* amaiera dutenak. Mitxelena dioen moduan:

«Efectivamente, *-io*, suf. o mera terminación, es de muy elevada frecuencia: así en nombres de población, sobre todo occidentales, como Amurrio, Baruijo, Barambio, Derio, Erandio, etc.; acaso también Bermeo, escrito Bermeio, Vermeio desde el s.XI. Si la pérdida de *-n-* entre vocales es regular en las formas vascas de los nombres de lugar, esto raramente se refleja, y menos en fecha antigua, en las formas oficiales, escritas.» (Mitxelena, *Apellidos Vascos*, 1986, 134)

-io amaiera duten leku-izenek hiatoan dituzte bi bokal hauek¹¹ eta bilakaera desberdinak izan dituzte garai desberdinetan:

- Hiatoan dauden bokalen artean epentesi bat sortu da: *Dibio* > *Dibiyo*. Hiri-gunean bide gurutzeak izendatzeko erabiltzen den generikoan ere badago¹²: *kurtzio* > *kurtziye*.

11 *-i* eta *-o* bokalak hiatoan daude, eta apurtzeko, fonema epentetiko bat txertatzen zaie: *Bakizo*, *Amurrijo*, *Derijo*, *Erandijo*, *Lekeitiyo*. *Bermio* izenaren kasuan, epentesia txertatu aurretik fosildu zen.

12 Kasu honetan oinarria ez litzateke *-i* bokalez amaitutakoa: Kurtze + o. Ostean disimilazioz, Kurtzio. Horrela balitz, ez luke epentesirik txertatuko, epentesia testuinguru honetan baino ez da txertatzen eta: oinarritzko *-i* bokalaren ostean eta bokal aurrean (*i* > *iʝ* / *i* _V). Beraz, *-io* proposatu beharko litzateke. Orduan, *-ei-* > *-i-* bilakatuko litzateke (Bermeio > Bermio bezala), eta ostean, epentesia txertatuko litzateke: Kurtze + io > kurtzeio > Kurtzio > Kurtziyo

- Herri etimologiagatik edo berranalisiagatik aldaketa jasan du **Ermetxio** toponimoak. XIX. mendearen hasieran, azken silaba txikigarri bezala analizatu zen: *Ermetxu*.¹³
- Beste kasu batean, bokal ugari egokitu direnean ondoan, hautaketa egin beharra egon zen (armarrian *Bermei* ageri da) **Bermeio** > *Bermeo* / *Bermio*. Idatziz, *Bermeo* izenak izan zuen arrakasta gaztelania edo erromantzearen arauetara egokitzeko zelako. Ahoz, berriz, *Bermio* nagusitu da euskararen arauak jagona (Ik. 4.2. Bokalismoa: *-ei-* > *-i-*). Antzera gertatu da Hiriguneko **Kurtzio** leku-izenearan.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
Ermetxio	San Migel	1514 Hermenchio > 1726 Hermecheo > 1800 Ermechus > 1848 Ermuchu
Bermeio	Hirigunea	1051 Vermeio > 1082 Bermelio > 1236 Bermejo > 1334 Bermeo / “ <i>Bermio</i> ”
Kurtzio	Hirigunea	1740 La Cruz > 1910 Curcio (Arane auzoan, 1704 Vida Curçio Azatarrochu)
Dibio	Hirigunea	1597-99 Dibio > 1836 Dibiyo

B.1.3. Errotazismoa:

Bokal arteko dardarkari anitzak aurreko bokalaren irekiera eragiten duen araua da. «Una vibrante fuerte, intervocálica o implosiva, ha tenido, como en otras lenguas, la virtud de abrir una vocal precedente. La apertura se ha producido en contextos bastante bien determinados y la vocal más sensible a la acción de la consonante ha sido *e*, que se abrió a *a*. Limitado al vizcaíno, con inclusión de Alava. (...) El condicionamiento parece incluir una vocal cerrada en la sílaba siguiente.» (Mitxelena, *FHV*, 1990, 60)

Horrela, ‘berri’ hitza ‘barri’ bilakatu da. Modu berean, ‘txerri’ > ‘txarri’, ‘gerri’ > ‘garri’ eta gernu > *garnu*. Toponimoen artean, ‘barri’ osagaidunak aurki daitezke¹⁴.

Badirudi, XVI. eta XVIII. mendeetako toponimoetan gertaera honek aurrera egiteko (ez dago XVII. mendeko daturik), hurrengo silaban bokal itxi bat izan behar zuela. XX. mendean, berriz, dardarkari anitzaren ostean, bokal itxirik ez dagoen kasuetara ere zabalitzen da, **Ermendurua**, **Baztarre**¹⁵ edo **Beledrone** leku-izenetan gertatzen den moduan.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera: e > a
Ormabarrieta	Herri	1572 Hormabarrieta
Errotabarria	Ezezaguna / Artika	1575 Rotabarria
Errotatxu	Agirre	1704 Rotabarria
Bidebarrieta	Hirigunea	1726 Videbarrieta
Ermendurua	Hirigunea	1521 Hermendurua > 1928 Armendurua
Baztarre	Hirigunea	1730 Basterra > 1973-74 Baztarre
Beledrone	Artika	1822 Beledro > “ <i>Belárdone</i> ”

B.1.4. Erdiko bokalaren irekiera elkarketan eta eratorpenean

Hitz elkarketan edo eratorpenean hitz mugan dauden lehenengo osagaiko edo oinarriko erdiko bokalak *-e* / *-o* ireki egiten dira eta *-a* bilakatu.

«En bisilábos, *-e* y *-o* se cambian en *-a*: com. *emagin* ‘partera’, *emasabel* ‘matriz’, etc. De *eme* ‘hembra’ ‘suave’(...). Mer. *Usakume* ‘palomino’, *usatei* ‘palomar’, guip. Vizc. *Usatortola* ‘tortola’, etc. de *uso* ‘paloma’. Este fenómeno está

13 Lekeitio-ren kasuan ere murriztu egiten da (*-io* > *-o*), hau da: *Lekeitio* > *Lekitxo*.

14 Batzuetan bokal itxien eraginez, asimilaturik ageri da: *Luberri*. Bokal itxi biren erdian dagoenez, berau ere gradu bat ixten da: *Lubarri* > *Luberri*. Bilakaera hau XX. mendekoa da.

15 «En vez de *-er*, original como lo demuestran algunos préstamos y su mayor difusión y antigüedad, hay *-ar* en varios ejemplos no limitados al vizcaíno: baztar : com. Bazter ‘orilla, rincón’ casi único en nombres de lugar» (Mitxelena, *FHV*, 1990, 62)

bien atestiguado desde los primeros documentos medievales, aunque falta al parecer en onomástica aquitana.» (Mitxelena, *FHV*, 1990, 126)

Elkarketan, **Ettxebarrierreka** leku-izenak, XVI. mendearen erditik aurrera irekiera erakusten du. Eratorpenean, berriz, mende berean badira adibide bi araua erakusten ez dutenak: 1514 *Lupetegi* eta 1577-78 *Aquilotegi*. Leku-izen hauetan bietan, hurrengo mende erdira arte ez da irekiera adierazi.

Arau honek gaur egun ez du indarrrik. Fosilduriko izen jakin batzuetan baino ez da jaso: **Karabia** (Demiku auzoan), **Usatorre** (Hirigunean), **Usape** (San Migel eta San Andres auzoetan).

Elkarketan:

Fitxa burukoa	Osaketa	Auzoa	e / o > a > e / o
Ettxebarri	etxe + barri	Demiku	1629 Echavarria / 1629 Echevarria
Bidaetxe	bide + etxe	San Andres	1601 Vidaeche > 1633 Bideche
Ettxebarriaga	etxe + barri	Almika	1669 Echavarria > 1669 Hechebarriaga
Ettxebarrimotzene	etxe + barri	Agirre	1704 Echavarria > 1744 Echebarriaga
Ettxebarrierreka	etxe + barri	San Migel	1563 Hechavarria > 1745-46 Echebarria Erreca
Ettxebarrilanda	etxe + barri	San Andres	1682 Echavarri > 1745-46 Echebarria
Josune	etxe + barri	San Migel	1682 Echavarria muculu > 1745-46 Echebarria
Ettxerre	bide + kurtzio	Arane	1704 Vida Curçio Azatarrochu

Usatorre	uso + torre	Hirigunea	1698 Ussatorre
Karabia	kare + (h)obi	Demiku	" <i>Karabia</i> "

Eratorpenean:

Fitxa burukoa	Osaketa	Auzoa	e / o > a
Akulategi	Akuillo + tegi	Arranotegi	1577-78 Aquilotegi > 1652 Aculategi > " <i>Akuleti</i> "
Lupetegi	Lope + tegi	San Andres	1514 Lupetegi > 1682 Lupategi > " <i>Lupeti</i> "
Artadi	Arte + di	Demiku	" <i>Artadije</i> " / " <i>Arteri</i> "
Usope	uso + pe	San Andres	" <i>Usape</i> " > 1910 Usope

B.1.5. Bokal protetikoak

Mitxelenak dioenez, «Es un hecho conocido que una vibrante no puede iniciar normalmente palabra. Eso no quiere decir, naturalmente, que r- no se encuentre excepcionalmente en préstamos no asimilados, lo mismo ahora que en épocas anteriores. (...) se antepone a r- una vocal protética, a ó e: *arratoi(n)* 'rata', guip. vizc. *erreten* 'acequia', *erromeria* 'romería, peregrinación'» (Mitxelena, *FHV*, 1990, 332)

Eskribauen esku zegoen bokal protetikoak jartzea. Hau da, eskribau batzuek ahazko erabilera islatzen zuten, beste batzuek gaztelaniaren edo erromantzearen erregelari jarraitzen zieten bitartean. Gaur egun, bokal protetiko gabeko izenak erabiltzea errazagoa da, komunikabideen bidez geureganatu ditugun maileguak direla kasu, edo beste hizkuntzekiko harremana edo ezagutza dela kasu; bokal protetikorik gabeko leku-izen berri hau, esate baterako: *Ronpiolas*.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bokal protetiko gabe	Bokal protetikodun
Erreten	Hirigunea	---	1357 Erreten
Errotazarra	ZG / Artika	1629 Rotaçarra	1578 Errotazarra
Errotaederra	ZG / Artika	1575-78 Rotaesquerra	1629 Errota hederra
Ettxebarrierreka	San Migel	1682 Echavarria Reca	1682 Echavarria erreca
Erramuene	Artika	1821 Ramuena	1733-1845 Erramuena
Erribera	Hirigunea	1566 Rribera	1733-1845 Erribera
Erregiñazubi	Hirigunea	1644 Regina zubia	1764 Erreguinazubi
Errotatxu	Agirre	1704 Rotabarria	1764 Errotachu
Errosa	Demiku	1637 la Rosa	1783 la Errosa
Errenta	Demiku	1763-1846 Renta	1823 Errenta

Errematzane	San Migel	1823 Remachena	1827 Erremachachu
Errementaribaso	Mañu	1882 Rebentaribaso	1854 Errementari vaso
Errenterriportale	Hirigunea	1514 Renteria	---
Errotaburu	Artika	1633 Rrotaburua	---

B.1.6. Diglosia

Komunitate batean bi hizkuntz sistema xede desberdinetarako erabiltzearen ondorioz gertatzen den egoera da. Hizkuntza ukipenezko egoeran, bi hizkuntzen artean mendekotasun harremana gerta daiteke, eta egoera horri deritzo diglosia. Ondorioz, bata tesuinguru jasoetarako (administratziarako, esate baterako) eta bestea maila apalagokorako (lagunarterako) erabiltzen da. Hauxe da gure eremuan euskarak gaztelaniarekiko duen eta izan duen egoera.

Toponimoak idatzita ageri diren testuak gaztelaniazkoak direnez, leku-izenak euskaraz eman beharrean, batzuetan, gaztelaniaz adierazi izan dira.

Fitxa burukoa	Auzoa	Gaztelaniaz	Euskaraz
Irureta	Mañu	1562 Tres arroyos	1799 Yru ureta
Denderiakalea	Hirigunea	1566 Tenderia	1775 Denderia
Usatorre	Hirigunea	1608 La torre de las palomas	1698 Ussatorre
Gaztelu	Hirigunea	1637 Castillo	1590-96 Gaztelua
Beiportale	Hirigunea	1628-1797 Bacas, portal de	1777 Beiportale
Laubidieta	Mañu	1733-1845 cuatro-caminos	1733-1845 Laubideta
Andra Mari kalea	Hirigunea	1740 calle de la Virgen	1825 Virginia Calle
Kurtzio	Hirigunea	1740 La Cruz	1910 Curcio, 1910 Curchiogane
Erremedioa kalea	Hirigunea	1775-1831 Pie de Carcel	1775-1831 Carcelaña
Irukurtzieta	Hirigunea	1841 las tres cruces	1944 Irucurchieta

B.2. Asimilazioa

Fonema batek bere inguruko fonema bati bere ezaugarri bat edo batzuk harrarazten dizkioneko fenomeno fonetiko da. Hau da, gertaera honen bitartez, fonema biren ahoskera hurbildu egiten da.

Gertaera hau atzeranzkoa izan daiteke, bera baino lehenago dagoen fonema bat asimilatzen duenean. Aurreranzkoa, berriz, bere ondoren dagoen bat asimilatzen badu.

Artikuluak ere jasaten du, asimilazioa. Aurrean duen bokala disimilatu ostean (Ik. 4.0. Bokalismoa), gertatzen da.

Fitxa burukoa	Auzoa	a > e / i, u__
Kanpoepa	San Andres	1930 Campo-pía > 1910 Campopie
Masuane	Demiku	1846 Masuane > 1870 Mazuene

B.2.1. Bokal asimilazioa: asimilatzen edo hurbiltzen den fonema bokalikoa da.

Asimilazioa, gehienetan, bokal itxiek eragiten dute¹⁶. Hau da, /i/ eta /u/ fonemen eraginez, asimilatzen da artikulu edo beste bokalen bat.

Badira, hala ere, asimilatzen ez diren osagaiak. Esate baterako, gutxi-gutxitan asimilatzen da *-tza* atzizkia, eta arraro-arraroa da *-aga* atzizkia asimilatzea ere. Egia da, XX. mendean aurki daitezkeela bigarren kasu horren adibideak, baina, badirudi, gertatzen denean, jadanik hiztunak ez duela gogoan bukaerako *-a* horretan *-aga* leku-atzizkia ezkututzen denik. Sarritan, bukaerako *-a* ez asimilatzeak azaleratzen du *-aga* atzizkia dagoena azpian.

¹⁶ Batzuetan, bokal itxiak ez du ondoan dagoen bokala ixten, berez itxia bada; palataltasuna ala borobiltasuna erantsi diezaioke. Hori gertatzen da San Migeleko *Urubi* toponimoan: lehenengo kasuan *u-* > *i-* bilakatu da bokal itxiari borobiltasuna kendu eta palatalago eginez: 1928 Urubi > “*Iribi*”. Bigarrean, *-i-* > *-u-* bilakatu da borobiltasuna hartuta: 1928 Urubi > 1935 Urubi.

Asimilazio aurrekaria:

Fitxa burukoa	Auzoa	Bokal asimilazioa: a > e > i
Aritzatxu	Kostaldea	1671Ariazachu > 1768 Ariechachu > 1781Arichachu
Itubizkar	San Migel	1606 Itubiscar > 1775-1831 Itibizcar
Pintxes	Agirre	1643 Pinchas > 1790 Pinches
Iraebagieta	Mañu	1779 Yrebaguieta > 1845 Iribaieta
Urkamendi	Arranotegi	1824 Urcamendi > 1910 Urquemendi
Gisasti	San Pelaio	1839 Guisasti > 1826 Guisesti > 1854 Guisisti
Irabiene	Artika	1578 Irabien > 1859 Iribien
Artikerreka	Artika	1827 Artigas > 1914 Artique
Miskatu	Arane	1876 Miscatu-baso > 1943 Mizquetu
Katiape	Mañu	1854 Katiape > 1950 Catie > “ <i>Katipe</i> ”
Almika	Almika	1093 Albonica > 2003 Almike
Iragorri	San Pelaio	1869 Iragorri > “ <i>Iregorri</i> ” > “ <i>Irigorri</i> ”
Gastañabakarra	Artika	“ <i>Gastañabakarra</i> ”

Asimilazio atzekaria:

Fitxa burukoa	Auzoa	Bokal asimilazioa: a > e > i / o > u
Uriatziti	Hirigunea	1663 Uriacheti > 1236 Uriachiti
Armoki	San Pelaio	1500 Armoquigana > 1855 Armuqui
Lantzabide	San Andres	1910 Lancha-vide > 1910 Lantzabide > 1910 Lanchibide
Errementaribaso	Mañu	1854 Errementari vaso > 1923-24 Biorreta-errementeribaso

Bokal itxiek eragiten ez dituzten asimilazioak ere badira.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bokal asimilazioa
Enparane	Artika	1446 Enparan > 1446 Anparain > 1575 Anparan
Sanjuanportale	Hirigunea	1334-53 San Juan > 1608 San Joan
Berdantza	San Andres	1675 Berdancha > 1701 Berdentza
Agirretxu	Almika	1661 Aguirrechu > 1703 Aguerrechu > “ <i>Agarretzu</i> ”
Torrontero	Hirigunea	1576 Torrontero > 1745-46 Torrontero
Arane	Arane	1645 Arana > 1818-50 Aranes > 1846 Arenes
Kantara	Agirre	1847-74 Kantera > 1827 Cantaracua
Olazarreta	Mañu	1827 Olazarreta > “ <i>Olazarrata</i> ”

B.2.2. Kontsonante asimilazioa: asimilatzen den fonema kontsonantikoa da.

Fitxa burukoa	Auzoa	Kontsonante asimilazioa
Almikaondo	Almika	1621 Alboincaondo > 1748 Almoycaondo
Iraebagieta	Mañu	1779 Irebaguieta > 1850 Idebayeta
Arranotegi / Txinbelane	Arranotegi	1860 Chimbelena > 1938 Chimelene
Jeronimone	San Migel	1860 Geronimo > “ <i>Jerolimo</i> ”

B.3. Disimilazioa

Asimilazioari kontrajarririk, ezaugarri fonetiko bertsuak dituzten bi fonemen artean gertatzen den fenomeno da. Batak besteari komunean dituzten ezaugarriak aldaraziz, bien arteko desberdintasuna areagotzean datzana.

B.3.1. Bokal disimilazioa: Hitz barruko bokalen artean gertatzen da.

Fitxa burukoa	Auzoa	Disimilazioa
Aritzatxu	Kostaldea	1779 Areazachu > 1671 Ariazachu
Zearbide	Demiku	1873 Ciarbide
Zarran	Demiku	1542 Saran > 1737 Zarren

Orubezarreta	San Pelaio	1682 Orue Zarreta > 1775-1831 Orvizarreta
Tribiz	Artika	1578 Tribiz > 1858 Trebis
Laubidieta	Mañu	1733-1845 Laubideta > 1818-1850 Laubidieta

Bokal disimilazioa artikulua eragindakoa izan daiteke (Ik. 4.0. Bokalismoa). Tes-tuinguru honetan jaso da disimilazioa ugarien.

Fitxa burukoa	Auzoa	Disimilazioa
Landatxu	Hirigunea	1633 Landecho > 1570 Landachua
Atsoarene	Artika	1578 Achoaren > 1629 Achuaren
Torretxu	Hirigunea	1714 Torrecho > 1723 Torrechu
Pellune	Agirre	1752 Aguirre goicoa > 1758 Aguirre goycua
Beazko	San Migel	1704 Morteruzua Veazcoa > 1763-1846 Viascua
Agirrebarrenengo	Agirre	1704 Aguirre Barrenengoa > 1809 Barrenengua
Frantzune	Artika	1845 Franchoen > 1847-74 Franchua
Bidekoetxe	Arane	1854 Videcoa > 1860 Videcua
Landatxupea	Almika	1896-97 Landachupia
Kanpoepa	San Andres	1930 Campo-pía

-aga leku-atzizkiaren aurreko bokala disimilatu da.

Fitxa burukoa	Auzoa	Disimilazioa
Iskiñarruaga	Hirigunea	1775-1831 Esquinarroaga > 1589 Quisquinarrua / 1676 Yzquiarruaga
Burdinkurtziaga	Mañu	1731 Burnincurciaga
Dolareaga	Hirigunea	1608 Dolareaga > 1737 Dolariaga
Areaga	San Pelaio-Bakio	1839 Areaga > 1818-50 Ariaga

B.3.2. Kontsonante disimilazioa: fonema kontsonantikoei eragiten die.

Fitxa burukoa	Auzoa	Disimilazioa
Mañu	Mañu	1700 Mañuas > 1778 Bañua
Landane	Mañu	**[Iminieta > Minta > Mintza > Mintzeta >] ¹⁷ 1829Vintzeta
Zumarretako landa	Agirre	1928 Sumarrieta > 1844 Zubarreta
Txarale	San Pelaio	1818-50 Sarele > 1847-74 Charale > 1872 Chagale
Arrizurieta	Mañu	1656 Aricurieta > 1893 Arrizubieta
Orubezarreta	San Pelaio	1775-1831 Orvizarreta > "Olbisarreta"

B.4. Bokalen bilakaerak

Atal honetan deskribatzen da bokalen bilakaera nolako den hitz mugan, silaba mugan eta morfema mugan. Hau da, artikulua eranstea gertatzen diren fenomenoak, hitz amaieran erromantzeko -o > -u bilakatzea, hiatoko bokalen bilakaera eta diptongoko bokalen bilakaera.

B.4.0. Artikulua

Artikulua erakusten duten toponimoek gorago aipatutako asimilazioa eta disimilazioa jasaten dituzte. Atal honetan, bokalez amaitutako leku-izenak izan dira kontuan, kontsonantez bukatutakoetan artikulua baino ez delako gehitzen.

Erdiko bokalez amaitzen diren leku-izenetan, artikulua eranstea, elkarren ondoan dauden bokalak disimilatu egiten dira gero asimilatzen:

$$-e + a > -ea > -ia > -ie$$

$$-o + a > -oa > -ua > -ue$$

Hau da, lehenengo, artikulua aurreko bokala disimilatzen du eta gradu baten ixten du; horrela, bien arteko desberdintasuna nabarmenagoa egiteko. Ostean, itxi den bokal honek, artikulua ixtea ekarriko du, asimilazioz, bere ezaugarrietara hurbiltzeko.

17 **ikurrarekin, berreraiketa edo idatziz jaso gabea adierazi nahi da.

Bokal itxiz amaitzen diren izenetan, artikulua eranstea ‘epentesia’ txertatzen da bokal itxiaren ostean eta artikularen aurrean:

$$-i + a > -ia > -i\zeta a$$

$$-u + a > -ua > -uba$$

Gaur egun, /i/ bokalaren osteko epentesia txertatzen da, baina /u/ bokalaren ostekoa ez. Idazkietan bietako datuak urriak dira, baina -b- epentesiarena askoz urriagoa. Badirudi, denbora laburrean izan zuela indarra eta eragina (Ik. 6.1. Gehitzeak. Epentesiak).

Antzera gertatzen da -aga leku-atzizkiarekin edo berezko -a bokalarekin. Nabarmentzekoa da, -aga leku-atzizkia ez dela gero belarearen galeraren ostean asimilatzen.

-aga: **Artezabal** (Hirigunea): 1593 Arteaçabal > 1736 Artiazaval > *Artiezabal¹⁸

Ezkiaga (Artika): 1366 Esquiaga > 1859 Esquiyaga > “Eskiça” > *Eskiçe

Iskiñarruaga (Hirigunea): 1775-1831 Esquinarroaga > 1676 Yzquiarruaga > 1704 Ysquinarrua > *Iskiñarrue

-a: **Aritzatxu**: 1779 Areazachu > 1671 Ariazachu > 1768 Ariechachu > 1781 Aritzatxu.

Lan honetan bildu diren toponimo batzuek artikulua izan dute. Beste batzuek, artikulua hartu izan dutenak, garai batetik aurrera ez dute hartu eta guregana artikulua gabe heldu dira. Beste multzo batekoak, ordea, artikulua gabe jaso izan dira, baina, bere generikotasunagatik, gaur artikulua daramate (Ik. Talea).

Fitxa burukoa	Auzoa			Disimilazioa	Epentesia	Asimilazioa
Talea	Hirigunea	-a + a	ea > 1606 Tala [Talea]	ia > [Talia]		ie 1973-74 Talie
Kanpopea	San Andres	-e + a	ea > [Kanpopea]	ia > 1930 Campo-pía		ie > i 1910 Campopie
Karabia	Demiku	-i + a	ia > 1910 Lubarri(a)		iza > 1873 Lubarrija	ize “Lubarriçe”
Nafarrologoiko Atsoarene	Artika	-o + a	oa > 1774 Nafarrologoicoa 1578 Achoaren	ua > 1823 Nafarrologoicua 1629 Achuaren		ue “Nafarrologoicue” 1938 Achuene
Mañu Portua	Hirigunea	-u + a	ua > 1610 Mañuas 1629 Portua		(uba) 1770 Mañuba ---	ue *Mañue “Portue”

Gaur egun bilakaera aurrerago doa, bokalismoan ikus daitekeen moduan. Artikulua desagertu egiten da, deklinabide marka bat atzetik eramanez gero: **Atsoarene**: 1938 Achuene “Atzune”.

B.4.1. Hitz amaieran erromantzeko -o > -u bihurtzea

Badira toponimoak, beraien lehenengo agerraldietan -o amaieradunak direnak. Esate baterako, **Mañu** (Maño), **Burgo** eta **Arballo**.

Batzuetan, bukaerako bokal hau, disimilatu egin da mende bat geroago, artikulua erantsi zaiolako: 1500 Maño > 1610 Mañua (**Mañu**). **Burgo** toponimoan, ordea, ez da disimilatu: 1882 **Burgo** > 1285 **Burgoa**. Eta hirugarren adibidean, **Arballo** toponimoan, ez dago disimilazioa eragingo duen artikulurik.

Gaztelaniatik mailegaturiko -ero atzizkia gutxi-gutxitan disimilatu da. -ko euskal atzizkia, berriz, artikularen ondoan disimilatu egiten da. Seguruenik, garai desberdineta-koak direlako.

Badira latinetik edo erromantzetik aspaldi mailegatutako osagaiak -o > -u bilakatu izan dutenak. Batzuetan biak jaso izan dira. Gaur egun, gaztelaniaren eraginez, toponimo batzuetan -u > -o bilakatzen ari da berriro (Ik. **Iskiñarruaga** edo **Pozuillune**, **Pozusi-kua**).

18 * ikurrarekin, ez gramatikala adierazi nahi da.

Fitxa burukoa	Auzoa	Oinarria	Jasotakoa
Poiu	Artika	Podium	1578 Puxua
Pagoalde	Arane	Fagus	1910 Pagoalde > “Fagu”, “Fagualde”
Pagozuluaga	Artika	Fagus	1575 Pago y Culiaga
Justu	Demiku	Justo	1796 San Justo y Pastor > 1922 Churtu
Maiteortu	Mañu	Hortus	1774 Maite Ortu
Portu	Demiku	Portus	1629 Portu, Portua
Sartzaillleku	Arane	Locus	1775-1831 Zarzalleko > 1828 Zarzalleku
Gaztelu	Hirigunea	Castellum	1590-96 Gaztelua < 1637 Castillo
Pedru	Agirre	Pedro	1663 Pedurua > 1704 Pedrua
Peruarezti	Arane	Pedro	1847-74 Peru Aresti
Pellune	Agirre	Pedro	1809 Pello > 1847-74 Pelluena
Pozusikua	Arane	Pozo	1973-4 Poso-sikua
Pozuillune	Arane	Pozo	1869 Posu-illun > 1927-32 Pozo illuna
Iskiñarruaga	Hirigunea	Gato	1973-74 Katukale > “Katokale”

Beste toponimo batzuetan ez dago argi, aspaldikoak direlako, latinetik edo erro-mantzetik edo beste hizkuntzaren batetik datozen, euren jokabidea bestelakoa izan dela-ko: ez dute artikulurik hartzen, edo hartuta ere, ez dute amaierako bokal hau disimilatzen, **Burgo**, **Arballo**, **Torrone**¹⁹ toponimoetan gertatzen den moduan.

Hauekin batera, badago toponimo bat artikulua hartu eta disimilatu egiten dena: **Mañu**.

Fitxa burukoa	Auzoa	-o > -u
Arballo	Gainak	1500 Arballo > 1973-74 Arballu
Mañu	Mañu	1500 Manno > 1610 Mañuas
Burgo	Gainak	1285 Burgoa > 1724 Vurgo Gana
Torrone	Hirigunea	1576 Torrentero

B.4.2. Silaba mugan gertatzen diren bokal bilakaerak

Elkartutako edo eratorriko leku-izenetan, ondoko silabetan dauden bokal biren arteko kontsonantearen galeraren eraginez, edo metatesiz, kontsonantea lekuz aldatu dela-ko, ondoan dauden, hau da, hiatoan dauden bokalak diptongatu egin dira, eta ostean, diptongo hauek monoptongatu egin dira.

B.4.2.1. Diptongoko bokalak hurbildu edo asimilatu egiten dira monoptongatu aurretik:

Bokal bilakaera	Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
ai > ei > i	Urdaiaga	San Andres	1563 Udayaga > 1854 Urdeyaga > 1764 Urdiaga
ai > ei > i	Urdailape	San Migel	1896 Urdailape > 1910 Urdillepe
au > a	Laubidieta	Mañu	1818-1850 Laubidieta > “Labita”
au > a	Laumariko	Agirre	“Laumariko” > 1944 Lamaico
au > o	Intxaurreta	San Andres	1950 Ynchaurreta > “Intzortzuta”
au > u	Belauko	Artika	1681 Belaucu > “Beluko”
au > u	Intxausti	San Migel	“Intxusti”
au > u / o	Intxaurpe	Agirre	1910 Ynchorpe / “Intxurpe”
ei > i	Areiltza	Hirigunea	1358 Areilza > 1832 Arilza
ei > i	Erciñotza	Artika	“Eriñotza”
oi + e > i + e > i	Truboietagane	Mañu	“Trubitagane”

¹⁹ -ero atzikia bada toponimo honetan ikusten dena, arraroa da ez disimilatzea, badirelako beste toponimo batzuk nahiko erraz eman dutenak pausu hau: **Foteroane** (Agirre), “Poteruné”, **Barberubaso** (Mañu), 1863 Barberubaso. Toponimo honek, ahozkoan, disimilazioa erakusten du, edo beste era batera esanda, -o > -u bilakatu da. Badira gaztelaniaren eraginez, bukaerako -o mantendu duten izen modernoak: **Kargadero** (kostaldea), 1845 Cargadero.

B.4.2.2. Hiatoa bokalak asimilatu egin dira (inoiz, lehenago, disimilatu egin dira), gero soiltzeko.

Bokal bilakaera	Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
ae > a / ei > i	Paskualetxe	Artika	1822 Rafaelachu > 1944 Rafallene
a + e > a / ei > i	Errafaelbaso	Mañu	1892 Rafael-baso > "Errefilbaso"
e + e > ie > i	Laubideta	Mañu	1733-1845 Laubideta > 1818-1850 Laubideta > "Labita"
i + e > i	Piezaetxe	Arane	1850 Pieza-eche > "Pisitze"
oi + e > i + e > i	Truboietagane	Mañu	"Trubitagane"
o + a > ua > ue > u	Atsoaren	Artika	1578 Achoaren > > 1629 Achuaren > 1938 Achuene > "Atzune"
ua > o / u	Sanjuanalde	San Pelaio	"Sanzoalde", "Sanzumalde"
ua > u / o	Sanjuanbaso	Artika	"Sanzunbaso", "Sanzonbaso"

Batzuetan, hiatoa bokalak fonema kontsonantiko baten galeratik eratorritakoak dira. Hiatoa bokal hauek, gero, diptongatu ostean, monoptongatu egin dira.

Bokal bilakaera	Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
ari > ai > i	Beko arizti	Mañu	"Beko aisti" > "Beko ixti"
mari > mai	Laumariko	Agirre	"Laumariko" > 1944 Lamaico
bidi > bi	Laubideta	Mañu	1818-1850 Laubideta > "Labita"
ango > ao > au > u / o	Oiangorta	Mañu	1801 Oxangorta > 1634 Ojaortas, 1577-78 Ojaurta > 1827 Oyurta, 1710 Oyorta
meni > mei > mi	Demiku	Demiku	1578 Demenigo > 1734 Demenigo > 1796 Demeicu aurrecoa > "Demiku"

Beste batzuetan, kontsonante metatesiak bokal bi utzi ditu hiatoan. Bokalak diptongatu egin dira eta, asimilazioz, hurbildu egin dira, gero monoptongatzeko.

Bokal bilakaera	Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
boni > boin > bein > bin	Almikaondo	Almika	**Albonicaondo > 1621 Alboincaondo > 1659 Albeincaondo > 1745 Albincaondo

B.4.3. Hitz mugan gertatzen diren bokalen bilakaera

Hitz elkarketan bokal bi ondoan egokitzen direnean, kasu batzuetan, lehenengo osagaia -u bokalez amaitzen denean, kontsonante bat txertatzen da, hiatoa apurtzeko (Ik. 6.1. Epentesia).

B.4.3.1. Ondoa dauden bokalek bat egin dezakete.

-V + a-:

-V + a-	Fitxa burukoa	Auzoa	Osaketa	Bilakaera
-a + a- > a	Olalde	Mañu	ola + alde	1827 Olalde
-a + a- > a	Ibiñagalde	San Migel	Ibiñaga + alde	1882 Ybiñalde
-e + a- > a + a > a	Artalde	Hirigunea	arte + alde	1610 Artalde
-e + a- > a + a > a	Bidartemotzene		bide + arte	1726 Vidarte
-e + a- > ea	Joseandiane	Mañu	Jose + (h)andi	1827 Jose Andia > 1938 Joseandijene
-o + a- > a	Potorrarri	Kostaldea	potorro + (h)arri	1982 Potorrarri

-V + e-:

-V + e-	Fitxa burukoa	Auzoa	Osaketa	Bilakaera
-a + e- > a	Santierrotane	Artika	teila + errota	1701 Tellarrota < 1703 Tellaerrotta
-a + e- > a	Olaerrotta	Artika	ola + errota	1578 Olaerrotta > 1773 Olarrota
-a + e- > a	Otebagia	Arane	ota + ebagia	1910 Ota-veise
-a + e- > a / e	Goetaederre	Mañu	gorta + eder	1645Cortaederra > 1774 Corteder, "Gortarre"
-a + e- > e	Bidetxe	San Andres	bide + etxe	1601 Vidaeche > 1633 Bidechea

-a + e- > e	Olegi	San Migel	ola + (h)egi	1633 Olegi < 1645 Olaegi
-a + e- > e	Irebagieta	Mañu	ira + ebagieta	1779 Irebaguieta
-a + e- > e	Almikerrota	Artika	Almika + errota	1777 Alvincaerrota > "Almikerrota"
-a + e- > e > i	Ormaetxe	Agirre	(h)orma + etxe	1881 Ormaeche > 1922 Ormeche > "Ormitze"
-a + e- > e > i	Piezaetxe	Arane	pieza + etxe	"Pisitze"
-e + e- > e	Artetxerre	Agirre	arte + etxerre	1904 Artecherre
-e + e- > e	Etxerre	Arane	etxe + erre	1777 Eche errea > 1793 Echerre
-o + e- > oe > o	Bengoetxe	Artika	bengo + etxe	1629 Bengoechea > "Bengotze"

-V + i-:

-V + i-	Fitxa burukoa	Auzoa	Osaketa	Bilakaera
-a + i- > ai > i	Estratzaillune	Arranotegi	estrada + ilun	1827 Estraza ilun > "Estratzaillune"

-V + o-: XVI. mendearen amaieran, erdal toponimo batean lehengo murriztapenaren adibidea jaso da: *Peña de Oro* > *Penadoro*. XVIII. mendearen amaierarantz aurkitu dira euskarazko lehenengo adibideak. Gaur egun ere indarrean dago.

-V + o-	Fitxa burukoa	Auzoa	Osaketa	Bilakaera
-a + o- > o	Almikaondo	Almika	Albonika + ondo	1621 Albonicaondo > 1775-1831 Abincondo
-a + o- > o	Erremedio	Hirigunea	kartzela + oina	1775-1831 Carcelaño > 1791 Carzeloña
-e + o- > o	Peña de Oro	Kostaldea	peña de oro	1585 Penadoro
-e + o- > o	Maitortu	Mañu	Maite + ortu	1774 Maite Ortu > 1893 Maytortu
-i + o- > o	Mendiondo	San Andres San Migel	mendi + ondo	1782 Mendiondo (SA) > 1910 Mendondogane (SM)
-u + o- > o	Morondo	Hirigunea	murru + ondo	1781 Morondo

B.4.3.2. Beste batzuetan, berriz, ondoan dauden bokalak bere horretan gelditi daitezke. Toponimo erreferentzial hauen berritasunagatik izan daitezke.

-V + a-

-V + a-	Fitxa burukoa	Auzoa	Osaketa	Bilakaera
-e + a- > ea	Enparaneazpi	Artika	Enparane + azpi	1869 Empare-aspi
-e + a- > ea	Bonbillartealde	Almika	Bonbillarte + alde	1910 Bombillartealde
-i + a- > ia	Arantzadiazpi	San Pelaio	Arantzadi + azpi	1847 Aranzadi-aspi
-i + a- > ia	Mastiaurre	San Andres	Masti + aurre	1912 Mastiaurre
-o + a- > oa	Fagoalde	Arane	Pago + alde	1910 Pagoalde
-o + a- > oa	Pagoandia	San Migel	Pago + (h)andia	1910 Pago-andia
-u + a- > ua	Igartuatze	Agirre	Igartu + atze	1910 Igartuache
-u + a- > ua	Pedrualde	Arane	Pedru + alde	1943 Pedrualde chiqui

-V + e-

-V + e-	Fitxa burukoa	Auzoa	Osaketa	Bilakaera
-i + e- > ie	Mastiebagia	San Migel	Masti + ebagia	1910 Mastiebaye
-i + e- > ie	Santierrrotane	Artika	Santi + errota	1944 Santierrrotane
-o + e- > oe	Bidekoetxe	Arane	Bideko + etxe	1860 Bidecoche
-u + e- > ue	Infernuerreka	Artika	Infernu + erreka	1891 Infernuerreka

-V + i-

-V + i-	Fitxa burukoa	Auzoa	Osaketa	Bilakaera
-o + i- > oi	Basoillun	Arane	baso + ilun	1884-85 Baso-illumpe
-u + i- > ui	Pozuillune	Mañu	pozu + ilun	1869 Posu-illun

-V + o-

-V + o-	Fitxa burukoa	Auzoa	Osaketa	Bilakaera
-a + o- > ao	Kafrankaondo	Artika	Kafranka + ondo	1944 Cabranca-ondo
-e + o- > eo	Enparaneondo	Artika	Enparane + ondo	1910 Empare-ondo
-i + o- > io	Mastiondo	San Andres	masti + ondo	1910 Mastiondo
-u + o- > uo	Pedrualde	Arane	Pedru + ondo	1910 Pedruondo

B.4.4. Eratorpenean**B.4.4.1. -eta leku-atzizkia**

Leku-atzizki hau oinarriaren muga bokalaren ondoan, murriztu egiten da.

-eta > -ta

Atzizkiaren hasierako bokalak, sarritan, aurreko bokalaren disimilazioa eragiten du: **Laubidieta**.

Berezko *-a* bokalez amaitutako izenetan, XX. mendean, *-eta* leku-atzizkia murriztu egin da. Lehenago ez da jaso.

-V + -eta	Fitxa burukoa	Auzoa	-ta
-a + -eta > -ata	Iruerrekata	San Migel	1910 Iruerrequeta > "Iruerrekata"
-a + -eta > -ata	Errekata	Demiku	1980 Erracata / 1980 Erreketa

-e bokalez bukatutakoetan, XVIII.-XIX. mendeetan, disimilazioa gertatzen zen. Gero, XX. mendean, leku-atzizkiaren murriztapena *-eta > -ta* jaso da, eta sinkopadun aldaera ere jaso da.

-V + -eta	Fitxa burukoa	Auzoa	-ta
-e + -eta > eta > ta	Ganeta	Demiku	"Ganeta" > "Ganta"
-e + eta > eta / ata	Arreta	Artika	1622 Arreta > 1966 Arrata
e + -eta > (eta >) ieta > ita	Laubidieta	Mañu	1733-1845 Laubideta > 1850 Laubidieta > "Laubidita"
-e + -eta > ieta	Artieta	Arane	1944 Artieta
e + -eta > ieta > ita	Irukurtzieta	San Migel	1763-1846 Crucieta > "Kurtzita"

-i bokalez amaitutakoetan, epentesia sortzen da²⁰, XIX. mendean ere jaso izan dena, bokal honen eta leku-atzizkiaren aurrean. Salbuespenen batzuekin.

	Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
-i + -eta > izeta	Bastegieta	Agirre	1847-1874 Basteguieta > 1927 Basteyeta
-i + -eta > ieta > izeta	Iraebagieta	Mañu	1847-74 Irebaguieta > 1850 Idebayeta
-i + eta > izeta	Iturrieta	Arane	1847-1874 Yturrieta > "Itzurri g eta"
-i + -eta > ita	Tuboietagane	Mañu	"Trubitagane"

-o bokal amaiera dutenetan, disimilazioa gertatzen da, XVI. mendetik, **Zulueta** ize-nak erakusten duen moduan. Ostean, leku-atzizkia murriztu egin da. Gertaera hau XX. mendera arte ez da jaso.

	Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
-o + -eta > ueta > uta	Zulueta	Artika	1285 Zuloeta > 1576 Zulueta > "Suluta"
-o + -eta > ueta > uta	Zulutatxu	Artika	1725 Zuloetacho > 1791 Zulutachu > "Sulutatxu"
-o + -eta > ueta > uta	Txopueta	Hirigunea	Txopueta > "Tzoputa"

-u bokalez amaitutakoetan, leku-atzizkia murriztu egiten da. XIX. mendean adibide bat jaso da.

20 Epentesia XVIII. mendean ere jaso izan da (Ik. 6.1.Epentesiak). De la Quadraren testuan (1784) era sistematikoan aurkitzen da, eta Bermeo Mundaka eta Almikako eremuatarako idatzi zen.

	Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
-u + eta > ueta > uta	Pisueta	Hirigunea	1587 Pisueta > 1841-44 Pizsuta
-u + -eta > ueta > uta	Zubitxueta	Artika	1901 Subichueta > “Subitzuta”
-u + -eta > ueta > uta	Pozueta	Demiku	1846 Posuetas > “Posuta”

Ondorioz, *-eta* leku-atzizkiko *-e* bokalaren galera berria da, XIX. mendearren erdian adibideren bat jaso baita. Leku-atzizkiak eragiten duen disimilazioa, berriz, zaharragoa da: *-o* > *-u* disimilazioa XVI. mendean jaso da lehenengoz; *-e* > *-i* disimilazioa, XVIII.-XIX. mendeetan.

B.4.4.2. *-tegi* leku-atzizkia

Atzizki honetako bokal arteko belare ahostuna galdu ostean, $g (> r) > \emptyset$, ondoan gelditu diren bokalak diptongatu egin dira, gero, monoptongatzeko:

-tegi (> *-teri*) > *-tei* > *-ti*

Badira gaur egun bizirik dirauten toponimo zahar bi, bokal bilakaera hau bete-be-tean betetzen ez dutenak: *Austekantale* (Hiriguneko **Aroztegi**) eta *Arnote* edo *Arnoti* (Arranotegi auzoa). Adibide horietan, *-ei-* diptongoa *-e-* ere bihur zitekeela agerian gelditzen da.

Leku-atzizki hau murriztuta lehenago jaso bada ere, diptongodun aldaera XIX. mendean jaso da.²¹

Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
Aroztegi	Hirigunea	1591 Arostequi > 1768 Ajustecanttala
Arranotegi	Arranotegi	1578 Arranotegi > 1938-39 Arnuote, “ <i>Arnóti</i> ”
Akulategi	Arranotegi	1652 Aculategui > “ <i>Akuléti</i> ”
Lupetegi	San Andres	1514 Lupetegi > “ <i>Lupeti</i> ”
Beitegi	Arane	1656 Beitegui > 1847-1874 Beiti
Mintegipe	Mañu	1855 Minteguipe > 1850 Minteipe > “ <i>Mintxipe</i> ”
Mintegitxu	Demiku	1944 Minteguichu > “ <i>Mintzeritzu</i> ” > “ <i>Mintzitzu</i> ”

B.4.4.3. *-aga* leku-atzizkia

Leku-atzizki honetako bokal arteko belare ahostuna ere ahuldu eta galdu egin da, eta ondoan gelditu diren bokal biak berdinak direnez, bat egiten dute:

-aga (> *-ara*) > *-a*

Gaur egun atzizki hau murriztuta gelditu den arren, ez dago artikularekin nahaste-ko arriskurik, ez delako asimilatzen, artikularekin gertatzen den moduan.

Leku-izen batzuetan, leku-atzizki hau *-e* edo *-o* bokalez amaitutako oinarrien ondoren lotu izan denean, aurreko bokal horiek disimilatu egin izan ditu.

-i bokalez amaitzen diren oinarrietan, leku-atzizkiaren aurrean epentesia txertatu da.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
Txibitxaga	Hirigunea	1542 Chyvichiaga > 1836 Chibichia
Dolareaga	Hirigunea	1608 Dolareaga > 1844 Dolaria
Iturriandiaga	San Migel	1663 Yturriandiaga > 1747 Yturri Andia > “ <i>Itzurrándi xi</i> ”
Urdaiaga	San Andres	1659 Urdyaga > 1857 Urdeichaga > “ <i>Úrdi xi</i> ”
Etxebarriaga	Almika	1628-1797 Echebarriaga > 1669 Echavarria > “ <i>Etzebarri xi</i> ”
Mazaleriaga	Artika	1643 Mazaleriaga > 1702 Mazaleria > 1893 Mazaleriya
Ezkiaga	Artika	1366 Esquiaga > 1859 Esquiyaga > “ <i>Eski xi</i> ”, “ <i>Eski xi</i> ”
Makatzaga	Agirre	1827 Macazaga > 1938 Macacha
Altxurraga	Arranotegi	1702 Alchur > 1733-1845 <i>Achurra</i> > 1809 Achurraga > “ <i>Altzurrá</i> ”
Ametzaga	Agirre	1790 Amezaga > “ <i>Ametza</i> ”

²¹ Belarearen galera XVIII. mendean ikusi behar da (Ik. **Aroztegi**, Hirigunean), eta *-ei* > *-i* diptongoaren monoptongazioa ere bai (Ik. **Almikaondo**, Hirigunean). Kontua da *-tegi* atzizkian ez dela islatu.

B.4.4.4. *-eria* atzizkiaren murrizketa:

Atzizki hau laburtuta ere ageri da²², bokal arteko dardarkari bakuna galdu ostean:

-eria > *-eriza* > *-eiza* > *-iza* > *-ize*

Bokal itxiaren ostean, eta bokal irekiaren artean, epentesia txertatu da, hiatoa apurtzeko:

i > i₃ / i__V

Ondoren, bokal arteko dardarkari bakuna galdu da (r > Ø / V__V), eta hiatoko bokalak diptongatu egiten dira. Ondoren, diptongoa monoptongatu egiten da:

-e- + -i- > -ei- > -i-

Amaitzeko, bokal itxiak bukaerako *-a* asimilatu du, eta gradu batean itxi du: *-a* > *-e*.

Atzizki honek *-aga* leku-atzizki murriztua erantsita badu amaieran, azkeneko pausu hau ez da burutu, hau da, ez da bukaerako *-a* asimilatu.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
Mazaleriaga	Artika	1628 Mazaleria > 1643 Mazaleriaga > 1893 Mazaleriya > “Masalei _{xi} ” > “Masali _{xi} ”
Adoberia	Hirigunea	1624 Adoberias > 1831 Aduveria > 1973-74 Adubiye
Telleriagaburu	Hirigunea	1598 Telleriaburu > 1778 Thelleriyaburu

Dardarkariaren galera, atzizki honetan, XIX. mendean ikusten da. Epentesia, berriz, lehenago, XVIII. mendearen azkenean. Beraz, Telleriagaburu toponimoak erakusten duenez, epentesia txertatzen zen, bokal arteko dardarkari bakuna galdu aurretik.

B.5. Palatalizazioa edo bustidura

Bustidura semantiko edo adierazkorra ez da kontuan izan, testuinguruak eragindako asimilazio bustidura baino.²³

Bustidura edo palatalizazioa bokal edo bokal-erdi itxi palatalak osteko kontsonantean eragindako asimilazioa da. Hau da, hurrengo kontsonanteak ezaugarri sabaikariak hartzen ditueneko fenomenoak:

«Euskarazko palatalizazioa asimilazio aurrekaria edo iraunkorra (progresiva edo persistente) dugu. Esaldi bakarrean adieraztekoan, bokal(erdi) palatal goiko edo itxienak ondorengo kontsonanteari bere ahoskune edo artikulazio puntua <kutsatzen> diola esan daiteke: bokalaren artikulatzaileek (mihia eta ahosabaia) iraun egiten dute hurrengo kontsonantea ahoskatzean, kontsonantearen ahoskunea aldatuz.»²⁴

Hauek dira bokal itxi palatalak eragiten dituen bustidurak /n/ eta /l/ ozenetan, /s/ txistukarian²⁵ eta /t/ eta /d/ herskarietan.

- n > ñ / i__
- l > ll / i__
- s > x / i__
- t > tx, tz / i__
- d > d₃ / i(n)__

Baina Oñederrak dioen bezala: “*Ezin liteke inola ere esan euskarazko hots palatal guztiak erregelaz eratorriak direnik*”. Batzuk mailegatutakoak dira, beste batzuk, berriz, ez dago esaterik. Horien artean, **Sollube** edo **Arballo**.

22 Zerrenda honetan ageri direnetatik aparte, badira atzizki hau daramaten beste leku-izen batzuk, baina bilakaera erakusten ez dutenez, eta, gaur egunera bizirik heldu ez direnez, ez dira aipatu: Zesteriakalea, Denderiakalea, Karnazeriakalea, Peskaderiakalea, Errenteriaportale...

23 Badaiteke, hala ere, toponimo batzuk aldaera adierazkorrek izatea. ‘tontor’ generikoaren forma adierazkorra susma daiteke Txutxurruqueta eta Txuntxurrutxu leku-izenetan (San Migel eta San Andres auzoetan).

24 Miren Lourdes Oñederra (1990): *Euskal fonologia: Palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitarapen Zerbitzua. Zarautz.

25 Palatalizazioak [tz] eta [ts] txistukarietan ere eragiten du eta [tx] bilakatzen ditu. Bermeoko ahosko erabileran ez dago [ts] grafiari dagokion fonema. Guztiak [tz] ahoskatzen dira eta [tx] bilakatzen dira (gaur egun, herriko erabileran ez da ahoskatzen ia [tx]-ri dagokion fonema; auzoetan, berriz, bai). Idatziz, [ch] erdal grafiaz islatu izan da eta ez dago esaterik bustidurarik egon den. Horrexegatik ez da komentagarria lan honetan.

B.5.1 Sudurkariaren palatalizazioa: n > ñ / i__V

Aberatsen jaso den bustidura da. XVI. mendearen hasieran sudurkari palataldun **Mañu** toponimoa jaso da. 1646an, *Maino* aldaera jaso da, baina ezin daiteke esan aldaera despalatalizatua denik; seguruenik, [in] grafia fonema palatala islatzeko modu bat da.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bustidura gabekoa	Bustiduraduna
Mañu	Mañu	---	1500 Maño
Añabusti	Artika	1645 Anabuste	1725 Añabusti

Bustidura, XVII. mendearen lehenengo erditik aurrera jaso izan da, baina ez modu sistematikoa, gero ere, bustidura gabeko aldaerak badira eta.

Bustidura eragiten duen bokal palatala silabagilea izan daiteke: *Lamiñaran*, *Yñurri*, *Ibiñaga*, *Balentiñene*... Bokal-erdia ere izan daiteke: *Carceloiña* (Hiriguneko Erremedio kalea).

Bokal-erdi hau, batzuetan, kontsonante baten galeraren ondorioz sortutakoa da. Hau da, bokal arteko kontsonantea galdu eta gero, ondoan gelditzen diren bokalak dip-tongatzean bilakatutakoa da:

Santa Marina > *Santa Maña*
Reguina zubia > *Puente Reña*

Fitxa burukoa	Auzoa	Bustidura gabekoa	Bokal silabagilea bustidura eragile
Iñurri	San Andres	---	1763-1846 Yñurri
Iskiñarruaga	Hirigunea	1682 Ysquinarruaga	1775-1831 Yzquiñarrua
Balentiñene	Mañu	1827 Valentin	1860 Balentiñena
Giñarralde	Mañu	---	1892 Guiñerraldi
Jardiña	Hirigunea	1860 Jardin	1902 Fardiña > 1903 Yardiña
Buztiñak	Hirigunea	---	1973-74 Bustiñek
Lamiñerreka	San Migel	---	"Lamiñerreka"

Fitxa burukoa	Auzoa	Bustidura gabekoa	Bokal-erdia bustidura eragilea
Erregiñazubi	Hirigunea	1644 Reguina zubia	1740 Puente Reña > 1780 Erreñazubi
Santa Mariña	Hirigunea	1353 Santa Marina	1783 Santa Maña
Erremedio	Hirigunea	---	1775-1831 Carcelaoña, 1831 Carceloiña

Hurrengo bietan sudurkaria gerokoa dela ematen du, baina ez da eragozpena palatalizazioa jasateko.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bustidura gabekoa	Bokal silabagilea bustidura eragile
Lamiarango erreka	Demiku	1285 Lamiaran	1629 Lamiñaran
Ibiñaga	San Migel	1542 Ibiaga > 1682 Ibinaga	1821 Ibiñaga

B.5.2. Albokariaren palatalizazioa: l > ll / i__V

Sollube leku-izenean ageri den kontsonante palatala ez dago, antza, bokal itxi palatalak eraginda. Aldaera zaharrenak ez du albokariaren aurrean bokal palatala: *Solue*²⁶. XVIII. mendearen azkenetan jaso izan da lehengoz *Soilube* aldaera.

Bustidura eragiten duen bokal palatal silabagilea, XVI. mendearen azkenetik aurrera jaso izan da: *Aquillotegui*, *Bonbillarte*, *Zillueta*.

Bokal-erdia, bustidura eragile gisa, XVIII.-XIX. mendeetara arte ez da jaso: *Zarza-lleko*, *Urdaillape*, *Frailleleku*.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bustidura gabe	Bilakaera
Sollube	Arranotegi	1366 Solue	1637 Sollue > 1779 Soilube > 1793 Sollube

26 Garaiko grafiari jarraituta [u] letraz idatzita jaso da, *Solue*, baina bere fitxan jasotako hurrengo datuak kontuan izanda, Solbe irakurri beharko litzatekeela uste da.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bustidura gabe	Bokal silabagile bustidura eragile
Akulategi	Arranotegi	1577-8 Aquilotequi	1578 Aquillotequi
Bonbillarte	Almika	1644 Bombilarte	1655 Bombillarte
Arribiribil	Hirigunea	1855 Arribiribil	1854 Arribiribilla
Zulueta	Artika	1285 Zuloeta > 1779 Zilueta	1859 Cillueta
Musillarrobaso	Arane	1855 Musilarroa-baso	1884-85 Musillarro-vaso

Fitxa burukoa	Auzoa	Bustidura gabe	Bokal-erdia bustidura eragile
Sartzailleku	Arane	1922 Zarzalecu	1775-1831 Zarzalleco
Urdaillape	San Migel	---	1896 Urdaillape
Frailleleku	Hirigunea	1854 Frailelecu	1913 Frailleleku

B.5.3. Txistukari frikariaren palatalizazioa: s > x / i__

Gertaera hau ez da islatu XX. mendera arte. Daturik gehienak ahoz batutakoak diren arren, batzuk, ordea, mendearen hasierakoak dira. Ez dago argi, azken horiek, idazteko moduari jarraitzen zioten ala fonema palatala islatu nahi zuten. Bustidura hau ere, bokal silabagileak eta bokal-erdiak eragiten du.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bustidura gabe	Bokal silabagilea bustidura eragile
Elizoste	Demiku	1846 Elesaoestebecuas	1910 Elixoste
Elizalde	Demiku	1907 Elizalde	1923-24 Elixalde
Arrizurieta	Mañu	1656 Aricurieta	“ <i>Arrixuri geta</i> ”
Elizondo	Mañu	1938 Elizondo	“ <i>Elixondo</i> ”
Gisasti	San Pelaio	1848 Guisisti	“ <i>Gixixti</i> ”
Itubizkar	San Migel	1606 Itubiscar	“ <i>Itxibixker</i> ”

Fitxa burukoa	Auzoa	Bustidura gabe	Bokal-erdia bustidura eragile
Axpaltxu	San Migel	1682 Azpalza	1643 Azpalza
Laisuak	Kostaldea	1895-1903 Laisoas	1996 Laixuek
Luisen arizti	San Pelaio	1854 Luisen Aristi	“ <i>Luixenaristi</i> ”
Leizarreta	Artika	---	“ <i>Leixárreta</i> ”

B.5.4. Herskari horzkari ahoskabearen palatalizazioa: t > tx > / i (C)__

Hiriguneko biztanleek, batez ere, /tʃ/ afrikari sabaikariaren ordez [tx], /ts/ afrikari bizkarralbeolarea [tz] egiten dute.

Herskariaren bustidura, XIX. mendean azkenean jaso da lehenengoz: **Zarragoiti**. Beste guztiak XX. mendekoak dira.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bustidura gabe	Bokal silabagilea bustidura eragile
Bitarte	San Migel	1882 Bide-arte	1910 Bicharte
Iturrieta	Arane	1845 Iturrieta	1910-23 Ichurrieta
Itubizkar	San Migel	1606 Itubiscar	1928 Ichibizkar
Iturriandiaga	San Migel	1663 Iturriandiaga	1935 Ichur-andia
Mintegitxu	Arranotegi	1827 Minteguichu	“ <i>Mintxirítxu</i> ”

Fitxa burukoa	Auzoa	Bustidura gabe	Bokal-erdia bustidura eragile
Zarragoiti	Hirigunea	1670 Zarragoiti	1892 Sarragoichi
Saitu	Agirre	1847-74 Zaituchu	1910 Saichu
Beitegi	Arane	1656 Beitegui	1938 Beichi
Beiti	Demiku	1578 Beytia	1938 Beichi

B.5.5. Herskari horzkari ahostunaren palatalizazioa: d > d₃ / in__V

Palatalizatzen den fonema hau, sabaiaurreko afrikari ahostun [d₃] bilakatzen da. Aurkitutako leku-izenean eta beste generiko batean, sabaikaritutako herskariaren aurrean, -n- sudurkaria dago. Badirudi beharrezkoa dela:

«/d/-ren asimilazioak besteek ez duten baldintza bete behar du ingurunearen aldetik: bizkaieraz bederen, i eta bustigaiaren artean l edo n kontsonanteetako bat egon behar da.»²⁷

Esan bezala, adibide bakarra jaso da, eta aldaera bustia, idatziz, behin bakarrik jaso izan da, XVI. mendean. Ahoz, gaur egunera arte bizirik heldu da. Bigarrena generiko bat da, XX. mendean jaso izan dena idatziz eta ahoz.

Fitxa burukoa	Auzoa	Palatalizazio gabea	Palatalizatua
Txindurtza	Almika	1576 Chindurza	1578 Pedro de Chinchurca > “Txindurtza”
zirrindada	San Andres	---	1916 Seranyadi > “Sirrindadie”

B.6. Gehitzeak: epentesiak -z- / -b-, -g-; anatipxia; bokal paragikoa

Atal honetan ondokoak bildu dira: epentesiak, hau da, kontsonante baten gehitzea; anaptixia, bokal baten gehitzea eta bokal paragikoa -e, kontsonantez bukaturiko toponimoetan, amaieran, eransten den bokala.

B.6.1. Epentesia: Bokal itxien ostean txertatzen den fonemari esaten zaio. Hiatoa apurtzeko eta ahoskera errazteko egokitzapen fenomeno da, VCV hurrenkeria errazago ahoskatzen baita.

i > i₃ / i__V
 u > u_b / u__V
 g > u_g / u__V

Epentesi biek ez dute emankortasun berdina izan:

- i- bokal itxiaren osteko epentesia automatikoa da gaur egun, eta salbuespen gutxi ditu. Salbuespenen artean, toponimo ihartuak daude: esate baterako, Bermeo (Bermio > *Bermi₃o), edo Arrieta (“Arrietá” epentesirik gabe, aldiz, osagaia denean, “Iruarri₃eta”).
- u- bokalaren osteko epentesia, berriz, ez da gaur egunera heldu. XVIII. mendean jaso da, baina garai horretatik aurrera ez da islatu.

B.6.1.1. -i- bokal itxiaren osteko epentesia: i > i₃ / i__V

Fitxa burukoa	Auzoa	Artikuluaren aurreko bilakaera : i + -a > -i ₃ a
Amezti	Arane	1811 Amestiya
Ameta	Demiku	1873 Ameta y Lubarrija
Sagasti	San Andres	1916 Sagastiya
Luberri	Arane	1944 Luberriya
Mastiebagia	San Migel	1910 Mastiebaye
Otaebagia	Arane	1910 Ota-veise
Sagasti	Agirre	1910 Sagasteise
Erroia	Arane	“Erroi ₃ e”

Fitxa burukoa	Auzoa	-eta atzikiaren aurreko bilakaera : i + -eta > -i ₃ eta
Arriandieta	Arranotegi	1850 Arriandiyeta
Urkieta	Arane	1910 Urquicheta
Arrizurieta	Mañu	1944 Arri-zuricheta
Irebagieta	Mañu	1845 Irivayeta
Zurebagieta	Artika	1910 Surebayeta
Bastegieta	Agirre	1927 Basteyeta

27 Miren Lourdes Oñederra (1990): *Euskal Fonologia: Palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitarapen Zerbitzua. Zarautz.

Fitxa burukoa	Auzoa	-aga atzizkiaren aurreko bilakaera : i + -aga > -izaga > -iz̃a
Telleriagaburu	Hirigunea	1778 Thelleriyaburu
Ezkiaga	Artika	1859 Esquiyaga
Atxiturriaga	Artika	"Atxiturri ga"
Mazaleriaga	Artika	1893 Mazaleriya
Urdaiaga	San Andres	1857 Urdeichaga
Zelaiaga	San Andres	"Selai ga"

Fitxa burukoa	Auzoa	-io bukaeradunen bilakaera : i + -o > ijo atzikia
Dibio	San Migel	1597-99 Dibio > 1836 Diviyo

Fitxa burukoa	Auzoa	Hitz barruko bilakaera : i + V > i3V
Uriartegoiko	Demiku	1938 Uyarate goicoa
Erremedio	Hirigunea	1973-74 Erremediyo-kalie
Oiangorta	Mañu	1827 Oyurta, "Oizortá"

Fitxa burukoa	Auzoa	-en superlatiboaren aurrekoa: i + -en > izen
Goienzabalpe	Mañu	1826 Goijenzabalpe
Goienetxe	San Andres	"Goiznetze"

Fitxa burukoa	Auzoa	-ene paragogikodun geneitiboaren bilakaera: i + -ene > izene
Kalene / Frantzesena	Agirre	1795 Julianena > 1824 Juliyanena
Mungiarrene	Mañu	1827Muguijarrena
Olalde	Mañu	1836 Orijuena
Uriartebeko	Demiku	1938 Anamarijene
Irabiene	Artika	1938 Iribijene

-io amaieradun toponimo ihartu bitan, epentesi hau ez da adierazi: Bermeo eta Kurtzio.

*Bermi3o, *Kurtzi3o

Bigarrenak epentesia hartzen du, generiko moduan erabiltzean: "kurtzi3ué", hau da, bidegurutzeta.

B.6.1.2. -u- bokalaren osteko epentesia: u > ub / u__V, u > ug / u__V

Artikuluaren aurrean, -b- txertatu izan da, eta hitz elkartuaren osagai bien artean, -g- antihiatikoa.

Fitxa burukoa	Auzoa	Epentesi gabe	Epentesiduna
Mañu	Mañu	1500 Maño > 1610 Mañuas	1770 Mañuba
Etxetxu	San Andres	1896 Echechu	1799 Echechuba

Fitxa burukoa	Auzoa	Epentesi gabe	Epentesiduna
Gastelugatxe	San Pelaio	1893 Gasteluache	1793 Gastelugach
Iruarrieta	Almika	1629 Iruarrieta	1791 Yribarrieta > 1828 Yrugarrieta

-u- bokalaren osteko epentesiak XVIII. mendearen azkenetan jaso izan dira, bai artikulu aurrean, bai elkarketan. Ez dira batere emankorrak izan, eta zalantzan hartzekoa da, artikuluaren aurrekoa, hirigunekoek garaiko hizkeran erabiltzen ote zuten.

Kontuan hartzen bada "De la Quadrak Bermeon 1748an idatzitako eskuizkribuak. I Doctrina christaubarena"²⁸ eta kontuan izanik, idazleak esaten duenez, Bermeo, Mundaka eta Almikako inguruetarako idazten duela, pentsatzekoa da inguru hauetan epentesi

28 Gidor Bilbao (1997). *ASJU XXXI,1*.

hau erabiltzen zela, idazki honetan era sistematikoan erabiltzen baita. Beste idazki batean ere, sistematikoki erabiltzen da epentesi hau: “Un texto de 1846 en euskera de Bermeo: la fundación de la Cofradía de las Benditas Ánimas del Purgatorio”²⁹. Kontua da, XVIII. mendearen bigarren zatian aurkitzen direla jaso diren lekuko urriak, hoguei urteren barruan eta sistematikotasunik gabe:

1770 *Mañuba*, 1772 *Mañuba*, *Bañuba* vivero de, 1774 *Bañuba*, 1778 *Bañua*, 1778 *Bañuba*, 1779 *Mañua*; 1799 *Echechuba* ³⁰

XIX. mendean ez dago epentesidun adibiderik. Beraz, zalantzan hartzekoa da, garaiko hizkerako ezaugarri bat zen, ala idazteko modu edo molde bati jarraitzen zioten.

B.6.2. Anaptixia: bokal baten sorreraz gertatzen den gehitzea

Anaptixia kontsonante multzoak ekiditeko gertaera zaharra da. Ez dago adibide askorik. XVII. mendean jaso da lehenengo adibidea eta XVIII. mendearen amaieran jaso da azkenekoz: **Pedru** (1663 *Pedurua*). Gaur egun ere, bizirik dagoen gertaera da, “*Ingelesolo*” leku-izenean ikus daitekeen moduan³¹.

Fitxa burukoa	Auzoa	Anaptixia gabe	Anaptixiadun
Pedru	Agirre	1704 <i>Pedrua</i>	1663 <i>Pedurua</i>
Ingelesolo	Agirre	1910 <i>Ingles-solo</i>	1944 <i>Ingeles-solo</i>
Eskiriburu	San Andres	1910 <i>Escribano</i>	“ <i>Eskiriburú</i> ”

Kontsonante multzoak mantendu dituzten toponimo ugari daude. Leku-izen hauek, paraje nagusiak edo oikonimoak direnez, sarritan jaso behar izaten ziren idatziz, eta eskribauek inongo aldaketarik gabe edo aldaketa gutxi-gutxirekin jaso izaten zituzten. Hauen kasuan kontsonante multzoak mantendu egiten zituzten.³² Badirudi, kontsonante multzoak mantentzen dituzten toponimoak maileguak direla eta horregatik, beharbada, mantendu dira. **Pedru** oikonimoaren kasuan, bokal anatiptikoa txertatu zen, garaian erabiliko zelako bokal antiptikodun antroponimoa.

Fitxa burukoa	Auzoa	Kontsonante multzodunak
Kafranka	Artika	1514 <i>Ca.franca</i>
Fradu	Demiku	1578 <i>Fradua</i>
Tribiz	Artika	1578 <i>Tribiz</i>
Flores	Arane	1682 <i>Flores</i>
Estratzaillune	Arranotegi	1778 <i>Hestrada Ylluna</i> , 1827 <i>Estraza ilun</i>
Trampa	Artika	1809 <i>Trampa</i>
Betrokolo	Artika	1898-99 <i>Betrocolo</i>

B.6.3. -e bokal paragogikoa

Kontsonantez bukatutako leku-izen gehienetan amaieran eransten den bokalari esaten zaio paragogikoa. Mitxelenak dioenez, deklinabide markak lotzetik sorturikoa da:

«Esto es lo que ha ocurrido con muchos nombres de lugar en dialectos orientales: de Paris-en ‘en Paris’ dividido Paris-e-n, Paris-e-ko, Paris-e-tik, etc. se ha de-

29 Josu Gómez Pérez & Asier Romero Andonegi (2002) *FLV.XXXIV*.

30 Epentesiak jaso izan direnean, esan bezala, zortzi urteren barruan, Bermeoko Udaleko Artxiboko errezibo eta kontuetatik ateratakoak dira. Izan daiteke, garai horretan arduradun zegoena Bermeokoa ez izatea edo elizan edo elizarako erabiltzen hizkera egokiagoa iriztea eta hortik etortzea *-b-* epentesidun aldaerak. Hamar urte beranduago, 1799an, *Echechuba* jaso da Bizkaiko Foru Aldundiko Korregimenduko Artxiboan. Ez da beste inoiz batu.

Besteak, *Irubarrieta* eta *Irugarrieta* etimologia berri bati erantzuten diotela ematen du.

31 Gaur egun mailegatutako hitzetan ere gertatzen da, ekidin behar den kontsonante multzo jakin bat agertzen denean: ‘*chicle*’ > “*tzikille*”, ‘*ciclista*’ “*tzikilistié*”.

32 Batzuetan kontsonante multzoak metatesiz ekidin izan dira: 1827 *Estarta illuna* (BEHA), 1827 *Estraza ilun* (BUA).

ducido un nominativo Parise. Así *-e* es claramente paragogika en casos como Akize Dax, del lat. Aquis» (Mitzelena, *FHV*, 1990, 133)

Bokal paragogikoaren lehen agerraldiak XVII eta XVIII. mendeetakoak dira. Toponimoen bigarren osagaia den ‘atx’ hitzari erantsita agertzen da: **Akatxe**, 1634 eta 1793 Aqueache; eta **Salbatxe**, 1754 Salbaiche (Ik. Artikulua eta bokal paragogikoaren azterketa).

Baserri berrien izenetan ere jaso izan da, genitibo markari erantsita, XVIII. mendetik aurrera (hasieran, artikulua edo *-a* bukaeradunak, *-e* amaieradunekin jaso izan dira). Gaur egun, *-e* bokal paragogikodunak baino ez dira jaso.

Indar handia duen gertaera da, baina salbuespenak ere badira. Horien artean, galdutako toponimoak, eta gaur egun, generikotasunetik hurbil daudenak: **Farola**, **Farolzarra**, **Aretxokerra**, **Atxa**, **Sakona**... Talde bi horietakoek artikulua hartzen dute, eta ez dira kontsonante hutsez ageri, ezta bokal paragogikoarekin ere.

Hagionimoek ere ez dute bokal paragogikorik hartzen: **San Migel**, **San Martin**, **San Andres**... Baina, ermitaren inguruko parajeak, bai ordea: “*Samigelé*”.

Toponimo zahar batzuk, bokal paragogikoa hartzen hasi badira ere, salbuespenen artean daude: **Nardiz**, **Galdiz**, **Mendiluz**, **Basogalant**, **Itubizkar** (baina *Itxibixkerre*), **Basoillun** (baina *Estratzaillune* ere), **Arantzazabal** (baina *Astasabale* ere), **Flores**, **Arribiribil**, **Ganbiribil**, **Astaldamen**, **Ataun**, **Ronpiolas**, **Tribiz** (baina *Tribise*), **Pintxes** (baina *Pintzese*), **Zarran** (baina *Sarrene*), **Solobiribil** (baina *Solobiribille*)...

B.7. Galerak: murrizketak, sinkopak, haplogia

Galtzen diren fonemen artean, kontsonantikoak, bokalikoak eta fonema multzoak, hau da, silabak aurki daitezke.

- Fonema kontsonantiko batzuk bokal arteko testuinguruan egonik, erraz galdu izan dira. Hauen artean, sudurkaria *-n-*, belare ahostuna *-g-*, dardarkari bakuna *-r-* edo horzkari ahostuna *-d-* daude.
- Fonema bokalikoak ere gal daitezke, eta aldaera sinkopatuak sortu. Ahoz jaso izan dira, idatziz ere aurki daitezkeen arren.
- Silabak ere gal daitezke; hau da, ondoan duen silabaren antzekotasunak eraginda, silaba biek bat egin dezakete. Adibide gutxi jaso izan dira.

B.7.1. Fonema kontsonantikoen galera:

Bokal arteko belare ahostunaren galera: $g > (r >) \emptyset / V_V$

Gertaera hau galeretatik ondoen dokumentatuta dagoena da. Ahozkoan ere ugaria da. XVI. mendearen azkenetarako galera honen datuak daude.

Lau egoeratan aztertu da galera hau: *-aga* eta *-tegi* leku-atzizkietan, hitz barruan eta hitz mugan. Guztietan, belarea galdu (kasu batzuetan, lehenago ahuldu egin dela jaso da) eta, ostean, ondoan gelditu diren bokalak diptongatu egin dira, gero, monoptongatzeko.

B.7.1.1. *-aga* leku-atzizkiko belare ahostunaren galera

Atzizkidun leku-izenak, atzizkirik gabe ere aurkitu izan dira.

Fitxa burukoa	Auzoa	Osorik	Galera
Iskiñarruaga	Hirigunea	1676 Yzquiarruaga	1589 Quisquinarrua, 1704 Ysquinarrua
Mazaleriaga	Artika	1643 Mazaleriaga	1578 Mucalaria, 1663 Macaleria
Echebarriaga	Almika	1628-1797 Echebarriaga	1669 Echabarria
Iturrandiaga	San Migel	1663 Iturriandiaga	1747 Iturri Andia
Altxurraga	Arranotegi	1809 Achurraga	1820 Achurra, 1824 Alchurra
Txibitxiaga	Hirigunea	1542 Chyvichiaga	1836 Chivichia
Dolareaga	Hirigunea	1608 Dolareaga	1844 Dolaria
Madariaga	Arranotegi	1827 Madariaga	1876 Madari
Astalarre	Almika	1829 Astalarraga	1910 Astalarra
Gaztañazabalaga	Artika	1910 Gaztaña-zabalaga	1944 Gastaña-sabala
Ezkiaga	Artika	1366 Esquiaga	“ <i>Eski za</i> ”
Urdaiaga	San Andres	1764 Urdaiagas	“ <i>Urdi za</i> ”

Esan bezala, batzuetan, bokal arteko belare ahostuna galdu aurretik ahuldu egin da, eta dardarkari bakun bilakatu da. *-aga* leku-atzizkiaren kasuan, gertaera hau ahozkoan baino ez da jaso: *-aga* (> *-ara*) > *-a*.

Fitxa burukoa	Auzoa	Osorik	Belarearen ahulketa: -g- > -r-
Areaga	Arane	1910 Ariaga	“Ariará”
Ezkiaga	Artika	1366 Esquiaga	“Eski zará”
Mazaleriaga	Artika	1643 Mazaleriaga	“Masali zará”
Sagarraga	San Pelaio	1655 Sagaraga	“Sagarrera”

B.7.1.2. *-tegi* leku-atzizkiko belare ahostunaren galera

Bokal arteko belare ahostunaren galeraren ondoren, *-tegi* leku-atzizkiak *-ti* eta zenbaitzuetan *-te* ere eman du (Ik. Hiriguneko Aroztegi eta Arranotegi auzoa).

Fitxa burukoa	Auzoa	Galera	Ahozkoa
Aroztegi	Hirigunea	1768 Ajustecanttala	“Austekantale”
Beitegi	Arane	1798 Beitia, 1847-74 Beiti	“Beitxi”
Mintegitxu	Arranotegi	1831 Minteuchia, 1857 Mintainchu	“Mintxitxu”
Mintegitxu	Demiku	---	“Mintzeritzu” > “Mintzitzu”
Mintegipe	Mañu	1850 Minteipe	“Mintxipe”
Bastegieta	Agirre	1854 Bastieta, 1922 Basteidi	---
Lupetegui	San Andres	1910 Lupeteatze	“Lupetiatze”
Arranotegui	Arranotegi	1938-9 Arnute	“Arnote” / “Arnoti”

B.7.1.3. Hitz barruko belare ahostunaren galera: g (> r) > Ø

Adibide gutxi daude. XVIII. mendearen azkenerantz jaso izan da lehenengoz galera hau.

Fitxa burukoa	Auzoa	Osorik	Galera
Erreginazubi	Hirigunea	1764 Erreginazubi	1778 Reynazubi, 1780 Erreñazubi
Irebagieta	Mañu	1779 Yrebaguieta	1845 Yribaieta
Olegi	San Migel	1633 Olegui	1910 Oley
Zurebagieta	Artika	---	1910 Surebayeta
Mungiarrenegoiko	Mañu	1827 Muguijarrena	1938 Muñarnegoicoa
San Migel	San Migel	1618 San Miguel	“Samiel barri zae”
Sanmigelpa	San Migel	1923 San Miguelpe	“Samielpa”

B.7.1.4. Hitz mugan dagoen belare ahostunaren galera.

Kasu bakarra jaso da, eta belarea ez da sistematikoki adierazi. Belarerik gabeko aldaera zaharrena, XVI. mendearen azkenetakoa da.

Fitxa burukoa	Auzoa	Osorik	Galera
Oiangorta	Mañu	1731 Ojagorta, 1801 Oxangorta	1577-78 Ojaurta

Sudurkariaren galera: n > Ø / V__V

Fitxa burukoa	Auzoa	Osorik	Galeraduna
Iskiniarruaga	Hirigunea	1682 Ysquinarruaga	1676 Yzquiarruaga
Txomekane	Demiku	1578 Demenigo > 1734 Demenigu (auzoa)	1796 Demeicu aurrecoa
Aretziminieta	Arranotegi	1642 Arechiminietas	1843 Arichymieta
Zugatziminieta	Mañu	1645 Çugaciminieta	1828 Sugasiminieta
Sanjuanalde	Mañu	“Sanjonalde”	“Sanjoalde”

Zenbaitetan, *-n-* sudurkaria, inguru esplosiboan ere galdu egin da: [f]-ren aurrean, ezabatu egin izan da: n > Ø / __f (Txillardeggi 1980;123). Datuek [f] aurreko galera erakusten dute, baita [g] aurrekoa ere.

Fitxa burukoa	Auzoa	Osorik	Galeraduna
Oiangorta	Mañu	1801 Oxangorta	1731 Ojagorta
Infernerreka	Mañu	1893 Infernuko-erreca	" <i>Ifernerrekie</i> "
Estrada / Fandangone	Artika	1823 Fandanguena	" <i>Fandaguene</i> "

Bokal arteko horzkari ahostunaren galera, ahuldu ostean: $d > r > \emptyset / V_V$

Horzkaria galdu egiten da *-di* atzizkian, baita hitz barruan ere.

Atzizkian eta hitz barruan gertatutako galerak XIX. mendearen erditik aurrera jaso izan dira.

Fitxa burukoa	Auzoa	<i>-di</i> atzizkiaren bilakaera
Arantzadi	San Pelaio	1818-50 Aranzadi > " <i>Arantzari</i> " > 1861 Aranzaize
Gaztañadixueta	Arane	1877 Gastanichueta
Arteri	Artika	1910 Arteri-andicoa > 1910 Arteico-luberrie
Altzadi	San Pelaio	1884-5 Alzadi > 1973-74 Altzai
Arantzadi	Mañu	1862 Aransaduy, Aransadi > " <i>Arantzari</i> "
Altzadi	Artika	" <i>Altzadi</i> " > " <i>Altzari</i> "
Gaztañadi	San Migel	" <i>Gastañadi</i> " > " <i>Gastañeri</i> " > 1910 Gastañey

Fitxa burukoa	Auzoa	<i>-d- > -r- > \emptyset</i> beste testuinguruetan
Gortaederre	Mañu	1645 Cortaederra > 1845 Corta-erre
Lamera	Hirigunea	1887 Alameda > 1857 Lameda > 1856 Lamera
Kaltzadape	San Andres	1910 Calzadape > 1944 Calzape

Bokal arteko dardarkari bakunaren galera bokal artean: $r > \emptyset / V_V$

XVIII. mendearen bigarren zatian jaso da dardarkari bakunaren galera lehenengo aldiz. XIX. mendean adibide batzuk aurki daitezke, eta XX. mendean sarri-sarritan jaso izan da. Galera hitz barruan gertatzen da edo *-ari* eta *-eria* atzizkietan ere.

Fitxa burukoa	Auzoa	Osorik	Galeraduna
Aroztegi	Hirigunea	1591 Arostegui	1768 Ajustecantala
Santa Mariña	Hirigunea	1701 Santa Marina	1823 Santamaña
Mazaleriaga	Artika	1628Mazaleria	1843 Maselaya
Atsoaren	Artika	1578 Achoaren	1938 Achuene
Uriartegoiko	Demiku	1578 Uriarte	1938 Uyarte goicoa
Laumariko	Agirre	" <i>Laumariko</i> "	1944 Lamaico
Txaraleko erreka	San Pelaio	1885-86 Charale	1951 Chaleco-iturri
Peruarezti	Arane	1847-74 Peru Aresti	1967 Peruasti
Aranburuerreka	Arane	1943 Aranburuco-erreca	" <i>Aranbuko erreka</i> "
Errementaribaso	Mañu	1854 Errementari vaso	" <i>Errementaribaso</i> "
Irabiaga	San Pelaio	1656 Per Yravien	" <i>Ibi zaga</i> "
Jeronimone	San Migel	1860 Geronimo > " <i>Jerolimone</i> "	" <i>Jelimone</i> "
Madariaga	Almika	1827 Madariaga	" <i>Madai za</i> "
Ariztixu	Arranotegi	1733-1845 Areistichu	" <i>Aistitxu</i> "
Majerine	Artika	1897-98 Mageria	" <i>Majeine</i> "
Aritzibiribille	Mañu	---	" <i>Aistibiribille</i> " > " <i>Aixtibille</i> "
Garimontorpe	Arane	---	" <i>Gaimontorpeko solue</i> "

B.7.2. Sinkopa: fonema bokalikoaren galera

Hitz baten barruan fonema bat edo batzuk, bokalak eta silaba azentugabeak bereziki, desagertzean datzan fenomenoak.

XVI. mendetik aurrera, adibide gutxi batzuk aurki daitezke. Indarra, XIX. mendean hartzen hasi zen, baina ahozko erabilera izan du islarik handiena. Sinkopadun aldaera asko, Mañu auzoan jasotakoak dira.

Fitxa burukoa	Auzoa	Osorik	Sinkopatua
Zelaia	Artika	1646 Celaeta	1747 Celayta
Arranotegi	Arranotegi	1578 Arranotegui	1791 Arnoategui > 1843 Arnotegui
Gantxu	Demiku	1910 Ganetxu	1846 Gantxu
Ganpe	San Andres	**Ganepe	1910 Ganpe
Mungiarrene	Mañu	1845 Munguiarrena de arriba	1938 Muñarregoicoa
Nafarrola	Artika	1285 Nafarrola	"Naparla"
Tribizkoerrota	Artika	1629 Tribiz, 1850 Tribizko errota	"Tribizkorta"
Aritzibiribile	Artika	"Aistibiribile"	"Aistibille"
Azatarro	Arane	1593 Azatarro	"Astorre"
Ganeta	Demiku	1907 Ganetac	"Ganta"
Katalane	Mañu	1823 Catalan	"Katalne"
Kristobalene	Mañu	1847-74 Kristobalena	"Kristobalne"
Olazarreta	Mañu	1827 Olazarreta	"Olasarta"
Zabalene	Mañu	1860 Mintegui Zabala, 1938 Zabalene	"Sabalne"
Jentillatxeta	Mañu	1854 Gentillache	"jentillasta"
Manutxuibarrene	Mañu	1897-98 Manuchu-ibarrena	"Mantzurne"

B.7.3. Haplologia: silaba murrizketa

Sinkopa mota bat da. Hitz baten kontrakzioa da; segidan dauden bi silaba edo hots berdin edo antzekoetatik bat bakarra ahoskatzearen ondorioz gertatzen dena.

Badira gertakari honen zenbait adibide. Gehienak ahoz jaso izan dira; idatziz gutxitan islatu izan dira.

Fitxa burukoa	Osaketa	Auzoa	Osorik	Haplologiaduna
Arantzazabal	arantza + zabal	San Migel	1910 Arancha-zabal	1944 Arranzabal
Etxebarrierreka	etxebarri + erreka	San Migel	1632 Echabari ereca	"Etebarreka"
Tribizkoerrota	Tribizko + errota	Artika	1850 Tribiscoerrota	"Tribiskorta"
Narditxikerre	Nardiz + txiker	San Andres	1859 Nardiz chicarra	"Natzikerre"
Aritzibiribile	ariziti + biribil	Artika	"Aistibiribile"	"Aixtibille"
Arloluze	arlo + luze	San Migel	"Arloluse"	"Arluse"
Atxiturriaga	(h)atx + iturri	Artika	"Atxiturri ga"	"Atxurri ga"
Txominantone	Txonin + Anton	Artika	"Tzominantone"	"Tzomintone"
Txominmontorre	Txomin + montor	Artika	"Tzomimontorre"	"Tzomontorre"

B.8. Metatesia

Hitz barneko fonemak lekuz aldatzean datzan fenomeno da. Mugimendua, silaba barnean gerta daiteke, edo silaba batetik bestera.

Bokal metatesia: Adibide bakarria aurkitu da, eta XVIII. mendearen lehen laurden aldera jaso izan da lehenengoa.

Fitxa burukoa	Auzoa	Metatesia
Arranotegi	Arranotegi	1578 Arranotegi > 1731 Arronotegi

Kontsonante metatesia: Ugariago jaso izan da. Lehenengoa, XVII. mendearen lehen laurdenean. Metatesiz mugitu den kontsonantea, gehienetan, *r* dardarkari anitza izan da. Beste kontsonante ozenen metatesia ere aurkitu da noizbait: **Garbola** (*l / r* metatesia) edo **Almikaondo** (*n* metatesia).

Fitxa burukoa	Auzoa	Metatesia
Almikaondo	Almika	**Albonicaondo > 1621 Alboincaondo
Irukurtzieta	San Migel	1763-1846 Crucieta > 1764 Yrucurcietta
Estratzaillune	Arranotegi	1827 Estraza illuna > 1836 Ertarzacuena
Garbola	Mañu	1656 Galbalorra > 1839 Galbarrola > 1844 Garbaola
Fradu	Demiku	1578 Fradua > "Padru"

Beledrone	Artika	1822 Beledro > “Belardone”
Etxebarrilanda	San Andres	1825 Echevarri Landa > “Etzebalandra”
Mungiarrenebeko	Mañu	1845 Munguiarra > “Mur zane”
Matxikorta	Hirigunea	1871 Machicorta > “Martxikota”
Berjele	Arane	1910 Berdela > “Brei zele”

B.9. Toponimoetako osagai jakin batzuen bilakaera

B.9.1. Elkarketan lehenengo osagaia *-i* edo *-u* bokalez amaitutakoa

«Cuando el primer miembro es un bisílabo, *-i* y *-u* caen, la primera normalmente en todos los dialectos (...) Leiz. Har kantoin ‘piedra angular’, Pov. Harxede ‘butte de pierre’, hardi ‘pedregal’, etc. De (h)arri ‘piedra’, cf. Top. Arzubiaga, CSMill.91, año 1025, Alava.» (Mitxelena, *FHV*, 1990, 125)

Talde honetakoak dira ‘(h)arri’ edo ‘iturri’ osagaiak dituzten toponimoak.

Mitxelenak dioen moduan, “*Artza, (h)artze ‘pedregal’ de (h)arri*” (Mitxelena, *Apellidos Vascos*, 1989, 59). Beraz, konposaketan ‘(h)ar-’ aurkitu da, dardarkari osteko bokal itxia galduta.

Kasu gutxitan, ‘(h)arri’ eta ‘(h)atx’ osagaiak txandakatu egin dira, edo idatziz bat agertu da eta ahoz bestea.

Fitxa burukoa	Auzoa	(h)arri > (h)ar-	(h)atx > (h)ax-
Axnabarre	Arane	1895-1903 Arnabarre	1878 Ach-nabar
Arbaltze	Arane	“Arbaltze”	1838 Atzbals

‘Iturri’, elkarketako lehenengo osagaia denean ere, gauza bera gertatu da. Dardarkari anitzaren osteko bokal itxia galdu egin da, salbuespenak badira ere (leku-izen berrietan). Beraz, ‘iturri’, ‘itur-’ bihurtu izan da konposaketan. Zenbait leku-izen zaharretan, osagai hau, harago ere joan da, bokal itxia ez ezik dardarkari anitza ere galdu izan du: **Itu-bizkar** (“*Itxibixker*”), **Iturizarre** (“*Itxusarre*”).

Bokal itxiaren ostean dagoen herskaria, busti egin izan da, ahoz jaso izan den moduan:

t > tx / i__

Idatziz, berriz, aldaera bustia, XX. mendean jaso izan da eta ez era sistematikoan.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
Iturralde	San Migel	1896 Yturrialde > 1903 Yturralde > “Itxurralde”
Iturrondo	Arane	1682 Yturralde
Iturrondo	Arane	1701 Iturondo > “Itzurrondo”
Iturralde	Mañu	1888 Yturraldes
Iturrazpi	Arane	1910 Yturri-aspi > 1944 Iturraspe
Iturriandiaga	San Migel	1663 Yturriandiaga > 1935 Ychur-andia

B.9.2. Elkarketako lehenengo osagaia ‘ur’, ‘u-’:

Elkarketako bigarren osagaia kontsonantez hasiz gero, ‘ur’ osagaian dagoen dardarkari bakuna gal daiteke.

«u- variante de (h)ur ‘agua’ ante consonante: Ubera (ubera ‘vado’, Refr. Y Sent.), Uberoaga (‘aguas termales’), Ubieche, Ubiria (...)» (Mitxelena, *Apellidos Vascos*, 1989, 155)

Urriak eta berri samarrak dira jasotako toponimoak eta ez dago sistematikotasunik. Gehienetan, ‘ur’ osagaia oso-osorik jaso da.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
Urtxipiaga	San Andres	1896 Yturralde-Ychupchaga > 1910 Urchiquiaga > 1910 Urchupieta > 1910 Uchupiaga
Urzuri	Mañu	“Ursuri”
Usalto	Mañu	1910 Usalta

Elkarketarako aldaera ziren itur- eta u-, gaur egun, indar gutxikoak dira, eta nahiko normala da, ahoz, *Iturriburu* edo *Ursuri* esate baterako, osorik jasotzea.

B.9.3. ‘Zulo’ osagaia

Erreferentzia zaharrenetan, XIII. mendetik, ‘zulo’ ageri da. XVIII. mendean ageri da bere aldaera den ‘zilo’, eta XIX. mendean aldaera bustia, ‘zillo’. Gaur egun, ‘zulo’ eta ‘zillo’ aldaerak daude bizirik. Mitxelena dioenez,

«A.nav. b.-nav. etc. *zilo*, *zillo* ‘agujero’ (dim. xilo): a.-nav. etc. *zulho* (ya Leiç.), cf. *Zuloeta*, Navarra, siglo XI.» (Mitxelena, *FHV*, 1990, 78)

Bukaerako -o bokala disimilatu egin da leku-atzizkiak eraginda.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera
Zuluetatxu	Artika	1745-45 Zuloetachu > 1797 Zuluetachu > “ <i>Sulutatzu</i> ”, “ <i>Sillutatzu</i> ”
Zulueta	Artika	1285 Zuloeta > 1718 Zulueta > “ <i>Suluta</i> ” 1779 Zilueta > 1859 Cillueta > “ <i>Silluta</i> ”

B.9.4. ‘(H)areitz’ osagaia:

Osagai hau elkarketan eta eratorpenean sarritan ageri da. Ez dago ‘(h)areitz’ edo ‘(h)aritz’ aldaeraren alde egiterik.

«Fuera de la posición inicial, *ei* parece haber pasado a *i* en la proximidad de una silabante en a.-nav. lab. zitu ‘mies, cosecha’ < rom. *seito < lat. Sectum. cf. a.-nav. b.-nav. guip. lab. (h)aritz ‘roble’ (sul. há(r)ritx), guip. areitz (araitz), mer. ronc. vizc. aretx. (...)» (Mitxelena, *FHV*, 1990, 106)

Oinarrizkoa den ‘(h)areitz’, inoiz agertu izan da toponimoren batean: 1733-1845 *Areistichu* (Arranotegiko **Ariztitxu**). Besteetan, -e- eta -i-dun aldaerak jaso izan dira. XVIII. mendea baino lehenago, -ei- diptongoa eta -e- bokaldun aldaerak jaso izan dira. XVIII. mendetik aurrera, -i- bokaldun aldaerak ere jaso izan dira -e- bokaldunekin batera.

Fitxa burukoa	Auzoa	garaia
Aretziminieta	Arranotegi	1642 Arechiminietas, 1843 Arichymieta
Ariztitxu	Arranotegi	1827 Arestichu, 1835 Aristichu
Ariztitxu	Arranotegi	1733-1845 Areistichu
Ariztitxu	Mañu	1847-74 Arestichu, 1855 Aristechu
Luisen arezti	San Pelaio	1854 Luisen Aristi, 1855 Luisen Aresti
Peruarezti	Arane	1847-74 Peru Aresti, 1938 Peru Aristi
Areztitxu	Almika	1835 Aristichu
Ariztitxu	Demiku	1873 Aristichu
Aretxokerra	Arane	1843 Arech oquer
Lauziriko arezti	Arane	1864 Laucirico Aresti
Areztinagusi	Agirre	1789 Aresti

B.9.5. ‘Txaola’ osagaia

Badirudi aldaera zaharra ‘txaola’ dela. Gerora, 1860tik aurrera ageri da ‘txabola’. XX. mendean ere ‘txaola’ aldaera jaso izan da.

Fitxa burukoa	Auzoa	-b- gabekoak	-b-dunak
Txaoleta	Agirre	1731 Chaoletta	1860 Cavoleta-barrena
Txaoletabeko / Zezilione	Agirre	1847-74 Chaoleta becoa	1897 Chaboleta-becoa
Txaoletagoiko / Paulogorri	Agirre	1847-74 Chaoleta Goicua	1869 Chavoleta, 1897-98 Chaboleta goicoa
Txaoletape	San Pelaio	1855 Chaoletape	
Arrizko txaola	Artika	1910 Anicochaola	
Txabolaondo	Artika	----	1985 Chabola-ondo
Txaolalde	Mañu	1944 Chaolalde	

B.9.6. ‘Txosna’ osagaia

Kasu guztietan, ahoz, “txosna” osagaia “txorna” jaso izan da, sudurkari aurreko txistukaria dardarkari bilakatuta. Aldaera berria da, XIX. mendearen amaieran jaso da lehenengoz.

Fitxa burukoa	Auzoa	Bilakaera > -sn- > -rn-
Txornaondo	Mañu	1886 Chosnaondo > “ <i>Tzornape</i> ” / “ <i>Tzornako itxurri</i> ”
Txorna	Mañu	“ <i>Tzorna</i> ”
Txornape	Mañu	“ <i>Tzornape</i> ”
Txornako iturria	Mañu	“ <i>Tzornako itxurri</i> ”

B.9.7. Eratorpeneko -di / -ti atzikia

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendean, -di / -ti atzizkien beste aldaera batzuk, ordura arte jaso gabekoak, agertzen hasten dira. Behin jaso izan da *-tegi* atzizkiarekin txandaka, **Mintegitxu** toponimoan. Beste toponimo batean, ez da erraza zer dagoen esatea: **Pastitxu**.

Mitxelena dioenez, kontuan izanik,

«Hay alternancia *oi (ui) / i* en el sufijo colectivo *-doi, -dui, -di*, frecuente en toponimia sobre todo con nombres de plantas: *Ariztuia*, Navarra, año 1042, *Ezpelduia*, 1056 y 1096, *Hillarduy* (mod. Ilárduya), Alava, 1025, en Navarra Ylardia (...). Hoy las formas en *-doi* son orientales (...) y las en *-dui*, usadas en el vizcaíno occidental (Arratia, Orozco) debieron estar extendidas también por Alava (...). Todo indica pues que *-di* procede de *-doi, -dui*, » (Mixelena, *FHV*, 1990, 107-108)

Fitxa burukoa	Auzoa	-tei
Ondarreko masti	Demiku	1980 Ondarreco mastey
Mastibarría	Arane	1943 Mastey-barriya
Sagasti	Agirre	1910 Sagasteise
Mastia	Almika	1944 Masteiga

Fitxarik gabe	Auzoa	-toi
Buruenikastoi	Arranotegi	1875 Buruen-icastoy ³³

Fitxa burukoa	Auzoa	-dui
Iturriko beresi	San Migel	1944 Bustinduy
Arantzadi	Mañu	1862 Aransaduy

Fitxa burukoa	Auzoa	-tui
Intxausti	Hirigunea	1606 Ysaustuy

B.9.8. ‘st’, ‘rt’ txandakatzea:

XX. mendean, ‘asta-’ eta ‘arte-’ / ‘arta-’ txandaka agertu izan dituzte eskribauek. Ar-gibidea aurkitu nahian, ahozkoari begiratu zaio: ‘asta-’³⁴ eta ‘arte-’³⁵ bereizteko.

Fitxa burukoa	Auzoa	-rt-	-st-
Astazabale	Almika	1910 Artazabala	1779 Astiazabal
Artepe	San Andres	1910 Artepe	1912 Astepe
Astalarre	Almika	1829 Artalarraga	1910 Astalarra
Astalarrepe	Almika	---	1910 Astelarrape

33 1875. Argomero en el punto llamado Buruen-icastoy (BUA. 244/7. Montagos; 9b)

34 “Asto (ant. Arsto) ‘asno’; como prefijo asta- ‘silvestre’: Astaburuaga, Astalarrazaga (astalar ‘cardencha’, cardo áspero que crece en los trigales), Astalora...” Mixelena, *Apellidos vascos*, 1997, 60.

35 “*Art(h)e ‘encina’: Artabe, Artadi, Artamendi...*” Mixelena, *Apellidos vascos*, 1997, 57.

B.10. Deklinabide markak

Toponimoetan deklinabideko hiru marka jaso izan dira: genitiboa, ablatiboa eta instrumentala. Lehenengo biak leku-izenaren amaieran ageri dira. Instrumentala, ordea, toponimoaren lehengo osagaiari lotuta jaso da.

Leku-izen zahar batean *-ren* genitibo marka jaso izan da: **Atsoarene**. Beste guztietan, *-(e)n* izan da jaso den marka, edo *-an*, mugatuta jaso izan den kasuetan.

Fitxa burukoa	Auzoa	Genitiboduna
Atsoarene	Artika	1285 Achonaraen (1637 Achoaraen) > 1578 Achoaren
Luisen arezti	San Pelaio	1854 Luisen Aristi
Santunatxe	San Migel	1935 Santunache
Frantzunatxeta	Hirigunea	1973-74 Frantzunatxeta
Bakereseana	Almika	“ <i>Bakeresina</i> ”
Aldatzeta / Birjiñean beresi	Almika	“ <i>Birjiñin beresi</i> ”
Antonion iralekua	Artika	“ <i>Antonion idelekue</i> ”
Kurtzeanondo	Agirre	“ <i>Kurtzinondo</i> ”

Ez da ahaztu behar ere, baserri izen berrietan eta baserri berrietan agertzen den bokal paragogikodun genitibo marka: **Marinone, Pellune, Galartzane, Anamariane, Arrietane, Landane, Kristobalene, Joseandiane, Mungiarrene, Erramontzune...**

Ablatibo marka, *-ti* gauzatu da leku-izenetan. Bukaerako *-k* geroago txertatutakoa da. Horregatik, toponimoetan ez da ageri.

«(...) el suf. de ablativo (n de prosecutivo en vizc. ant.) *-tik*, que presenta una variante en *-ti* en vizc. y sul., que se repite en *-ga(i)ti* junto a *-ga(i)tik* ‘por, a causa de’ (...). Resulta difícil admitir una caída en posición final cuando otros sufijos, y en particular *-(r)ik* que une las funciones de ablativo a las de participio, carecen de variantes sin oclusiva final. (...).

Este *-ti* puede identificarse sin gran temor con el suf. que añadido a nombres de determinaciones espaciales forma derivados con función nominal y adverbial: *beheiti*, quip. vizc. *barruti*, *gaindi* (sul. *gáinti*), *goiti*, urruti ‘lejos’ (cf. *urrun* id.), de *be(h)e* ‘parte inferior’, *barru* ‘interior’, *gain* ‘superficie’, *goi* ‘parte superior’. La oclusiva final no es más que un elemento sufijado a *-ti*, o lo que queda de él, sin que esta adición fuera común» (Mitxelena, *FHV*, 1990, 236)

Fitxa burukoa	Auzoa	Ablatiboduna
Uriatziti	Hirigunea	1236? Uriachiti
Barruti	Artika	1521 Barrutia, 1575 Barruti
Beiti	Demiku	1578 Beytia, 1857 Beiti
Zarragoiti	Hirigunea	1742 Sarragoitti
Bideazgoiti	San Migel	1894 Bideazgoiti
Urezandi	Arane	1910 Uresandi

Instrumental marka, ablatibo markaren aurretik ageri izan da, jaso izan den toponimo bietan.

Toponimo hauen bien lehenengo agerraldiak, XIX. eta XX. mendeetan jaso izan dira, baina aspaldikoak dira, instrumentala ez delako batere emankorra gaur egun; hau da, izen edo esamolde jakin batzuetan baino ez da erabiltzen: ‘*popas gora*’, ‘*giles gora*’, ‘*aures behera*’, ‘*burus bera*’, ‘*brankas etorri*’...

Fitxa burukoa	Auzoa	Osaketa	Instrumentalduna
Bideazgoiti	San Migel	Urezandi: urez + (h)andi	1910 Uresandi
Urezandi	Arane	Bideazgoiti: bideaz + goiti	1894 Bideazgoiti

B.11. Herri etimologiatik eratorritako aldaketak

Leku-izenaren esanahia galdu denean, toponimoa lekuaren ezaugarriekin bat ez da torrelako, edo toponimoaren osagaietako bat garaiko herriko hizkeran galdu delako, hiz-

tunek zentzua duen antzeko izenera egokitu izan dute. Beraz, toponimoen moldaketa edo egokitzapena garaia lotuta dago. Gaur egunean ere gertatzen da.

Inoiz, etimologia aldaketa ez da toponimoa erabiltzen duten hiztunengandik etorri, eskribauengandik edo herritarren baten eskutik baino: **Sartzailleku** (*Zarzalecu*), **Lamaiko** (*Lamiaco*), **Itubizkar** (*Echebiscar*, *Itxas-bizkar*), **Talagutxi** (*Talacoechea*).

Jaso izan diren lehenengo adibideak XVII. mendearen erditik aurrerakoak dira.

Fitxa burukoa	Auzoa	Oinarrizkoa	Herri etimologiatik
Andiriminieta	Mañu	1577-78 Andirimieta (Zubiaur) [Andiriminieta]	1659 Andrayminieta, 1815 Andramarieta 1827 Andra ermita
Ibiñaga	San Migel	1542 Iviaga	1682 Ybinaga
Talagutxi	Herrria	1542 Talaguchia	1820 Talacoetxea, 1973-74 Tala Goitxi
Sartzailleku	Arane	1775-1831 Zarzalleco	1922 Zarzalecu
Joakintzu	Arane	---	1921 Zarzabide
Ermetxio	San Migel	1514 Hermenchio	1800 Ermechus > 1848 Ermuchu
Orubezarreta	San Pelaio	1682 Orue Zarreta > 1775- 1831 Orvizarreta	1818-50 Urizarreta
Azatarro	Arane	1593 Azatarro	1857 Azatorre
Urkamendi	Arranotegi	1824 Urcamendi	1847-74 Urquimendi
Urkisarri	Artika	1578 Urquisaria	1857 Urquizarre
Itubizkar	San Migel	1606 Itubiscar	1897-98 Echebiscar barria, 1982 Itxas-bizkar
Lamiaranpunta	Mundaka	1577-78 Lamiaran	1973-74 Lamerapuntie
Txankille	Kostaldea	1978 Txankilleko baixie	1973-74 Trankilleko atxa
Laumariko	Agirre	1944 Lamaico > "Laumariko"	1984 Lamiaco
Paradako landa	Artika	"Paradako landa"	"Pagoko landa"
Txominmontorre	Artika	"Tzomimontorre"	"Tzorimontorre"

III. AUKERAKETA IRIZPIDEAK

Lan honen helburuetako bat, batu diren leku-izenen normalizazioa da. Hori dela eta, toponimo bakoitzaren fitxaren buruan, proposatzen den toponimoaren izen normalizatuaren erakusten da. Hori egiteko, hona hemen erabili izan diren irizpideak:

Toponimoak tratatzerakoan gertatzen diren fenomenoak:

Izen berak entitate desberdinak adieraz ditzake

Sarritan, izen bera izaten dute inguru batean dauden elementu geografiko desberdinek. Esate baterako, **Galdiz** izenarekin entitate hauek aurkitu dira: parajea, erreka, zubia, iturriak, kantara, mintegia eta gotorlekua; edo **San Migel** izenarekin, auzoa, baserria eta ermita.

Kasu hauetan gertatzen den legez, entitate geografikoak adierazteko erabiltzen den izena, bakarra denean, entitate hauek guztiak sarrera bakar baten azpian ematea erabaki da, nortasun nabaria duten elementuak izan ezik, adibidez, erreka, baserria, ermita, etab.

Leku berak izen desberdinak izan ditzake

Errekekin gertatzen da, adibidez. Hauek, sarritan, ez dute izen espezifikorik edo be-rezirik izaten; are gehiago, izen ugari izan ditzake erreka berberak, uneari dagokion para-jearen izena hartuz tarte bakoitzean. Hori dela eta, aldaera hauek guztiak sarrera baten ba-ruan agertuko dira, hau da, izen normalizatu baten azpian. Esate baterako:

Infernuerrekari beste izen hauek ere egokitzen zaizkio: *Oiangortako erreka, Zarraga erreka, Bekotxabolako erreka, Sangresillako erreka, Jentillatxetako erreka, Oiangortako errotako erreka* edo *Olazarretako erreka*.

Batzuetan, leku-izen bat baino gehiago egokitzen zaien guneetan izen bakar bat normalizatzea ez da lan erraza izan, San Migeleko **Basero** lekuarekin gertatu den bezala. Paraje hau, gaur egun ere, bi izenez ezaguna da, biak bizi-bizirik direla: *Basabe* eta *Basero*. Honelako kasuetan, izen baten alde egin da.

Beste kasu batzuetan ordea, hiztunen ikuspuntua dela eta, izenak erreferentzia geografiko desberdinetatik sortuak direnean, izen bi normalizatzea erabaki da; Almika eta San Andres artean dagoen tontor batekin gertatzen den legez. Kasu hauetan, honela adierazi da:

Astazabaleburu / Pastitxuburu.

Jatorri bera izan eta gaur egun guztiz desitxuratutako izenak

Leku-izenen normalizaziorako oso baliagarria izaten da iturri desberdinetatik hartutako dokumentazio historikoa; beronek ematen baitu, zenbat eta zaharragoa izan, toponimoaren forma osoagoa. Honekin ez da esan nahi beti atzera jo denik aldaera zaharrena aukeratzeko, gertatzen delako, aldaera zaharrenaren eta gaur egungo aldaeraren artean ia antzekotasunik ez aurkitzea.

Hori da, esate baterako, San Pelaioko **Irabiaga** leku-izenarekin gertatzen dena: idatzizkoan, *Per Irabien* (1730) eta *Ibadiaga* (1944) aurkitzen da; ahoz berriz, *Ibiaga*. Beraz, tarteko bide bat proposatu da urteetan iraun duen oinarri zaharra mantentzeko eta berriagoa den leku atzizkia ere, agertzeko.

Batzuetan, leku-izenaren idatzizko erreferentziek, nahiz eta XIX edo XX. mendekoak izan, ez dute argibiderik ematen toponimoa berreraikitzeke. Orduan, aurkitu den moduan ematea erabaki da (arau ortografikoetara egokiturik):

Arbolatzaluze, Arkiene, Latxibai, Txuntxurrukueta.

Jaso den lekukotasuna ahozkoa besterik ez denean, normalizatzea zailagoa izan da. Hori dela eta, ahal den neurrian, ahozkoak erakusten duena baino forma osoagoak berreskuratzea jo da.

Ezinezkoa izan den kasuetan, hau da, ziurtasunik egon ez denean, orduan, dagoen dagoenean utzi da, eta izen bat baino gehiagorekin ezagutzen den kasuetan, biak onartu izan dira:

Masotze, Txapustitxu, Alagarre, Tarrate.

Sestotxu / Atetxu, Sapotxune / Zapitxune.

Baserri auzoetan behin eta berriro errepikatzen diren leku-izenak

Toponimoen artean badago multzo bat nolabaiteko kutsu generikoa edota erreferentziala duena. Leku-izen hauek, ia baserri guztietan jaso izan dira ahozkoan, eta idatzizkoan, XX. mendeko agerietan jaso izan dira gehien gehienak.

Kokapenari erreferentzia egiten diotenen artean, besteak beste, honelakoak aurki daitezke: *Aldapa* edo *Aldapako soloa* (baserriaren atzealdekoa), *Etxeburu*, *Etxondo*, *Etxaurre*, *Kortatze*, *Etxatze*, *Bidazpi*, *Bidondo*, *Bidaurre*, *Goiko solo*, *Erdiko solo*, *Beko solo*, *Floresalde*, *Aurreko solo*, *Andiko solo*, *Anbeko solo*, *Barreneko solo*, *Ormako solo*...

Jabetza adierazten dutenen artean: *Sotaneko basoa*, *Etxebarrierrekako basoa*...

Lekuaren ezaugarriren bat adierazten dutenak: *Sakone*, *Lubarri*, *Zarratu*, *Esparru*, *Erromara*, *Beresia*, *Planta*, *Landa*, *Larre*, *Mintegi*, *Gaztañadia*, *Sagardia*, *Sagastia*, *Mastia*, *Kantarea*, *Karabia*, *Bizkarra*, *Aldatze*, *Soloandia*, *Solotxu*, *Solonagusia*, *Solotxikerra*...

Mota honetako leku-izenak, lan honetan ez dute fitxarik; generikoejak direlako eta batzuetan toponimo esanguratsua duen paraje zabalago baten barruan daudelako. Salbuespenak ere aurkitzen dira: izaera berezia hartu duten toponimoak (**Luisen arezti**, **Franztunatxeta**, **Pedrualde**, **Tranpenaurre**...), aspaldikoak, errotuak eta zabalduak direlako eta parajeen beste toponimorik ez delako jaso.

IV. TOPONIMOAK IDAZTEKO IRIZPIDEAK

Herriko hizkera da oinarritzat hartu dena toponimoak adierazteko orduan. Hori dela eta, Bermeoko azpieuskalkia erabiltzen duten hiztunekin koherentzia izateko, bai espezifikioetan, hau da, izen berezietan eta bai generikoetan, hiztunek herrian erabiltzen dituzten aldaera normalizatuen alde egin da. Beti ere, dagokien grafia batua zainduta (Aros-tegi > *Aroztegi*) eta forma osatuagoen alde eginda (Atalde > *Artalde*, Erreñezubi > *Erreñazubi*, Lamerapunte > *Lamiarapunta*).

A. TOPONIMOAK LOTUTA

Toponimoaren osagaiak beti lotuta adierazi dira, santu izen edo tarteko deklinabide atzizkirik agertu ezean.

Osagaien artean deklinabide atzizkirik ez badago, lotuta adierazi dira, osagaiak garbi bereizten diren leku-izenetan eta egungo ahozko erabileran hala gertatuz gero:

Izen + izen: **Galdizerreka, Infernuerreka, Tonpoibidea, Peruarezti, Pisukalea, Eskolakalea, Sanjuanportale, Bilbobidea, Erreñazubi...**

Izen + adjektibo: **Errekabaltze, Pozuillune, Arloluze, Goientzabale...**

Izen + partizipio: **Añabusti, Iraebagiet, Otaebagia...**

Izen + posposizio: **Zuluetaburu, Tranpanondo, Iturrondo, Iturralde, Artalde, Kurtziogane...**

Leku atzizkiak agertzean:

-aga morfema: **Etxebarriga, Otabaltzaga, Asuaga, Madariaga, Txibitxiaga...**

-eta morfema: **Jentillatxeta, Zugatziminieta, Zurebagieta, Arriboleta, Iuerreketa, Frantzunatxeta**³⁶ ...

Hagionimoek atzizki bat eratorpenean edo hitz bat elkarketan erakutsiz gero: **Sanmigeleta, Sanjuanbidea, Sanjuanalde.**

Salbuespenak

Toponimoen osagaien artean deklinabide atzizkirik badago, bereiztuta adierazi dira:

-ko: **Erleko punta, Paradako landa, Galdizko iturrieta.**

-ren: **Luisen arezti, Antonion iralekua.**

Hala ere, toponimoa gaur egunera hitz bakar baten heldu denean, lotuta adierazi da: **Goi-kogane, Truboietagane.** Baita oikonimo historikoak ere: **Tribizkoerrota**³⁷.

Hagionimoak edo santu izenak ere bereiztuta eman dira³⁸: **San Migel, San Andres, San Juan, San Martin.**

B. TOPONIMOEN IDAZKERAN ERAGINA DUTEN SOINUAK ETA GERTAERAK

36 Lotuta adierazi da, deklinabideko genitibo marka artean daraman arren, amaierako leku atzizkiak guztia lotzen baitu.

37 "Oikonimoetan agertzen den kasu marka ez da kontuan izango, oikonimoa historikoa baldin bada eta, ondorioz, gurea hitz bakar batean heldu bada. Esan nahi dugu etxe izenaren bi osagai nagusiak ez ditugula bereiz emango. (...) Bere baitan -ko + etxea duten oikonimoak beti loturik idatzi behar dira". Gorrotxategi, M. eta Salaberri, P. (2000).

38 Hagionimoetan, herritarrekin koherentzia izan nahi da, Euskaltzaindiaren arauak jarraituta (*Euskara baturako euskalkietan dauden aldaeren artean santu/santa erabiltzea hobesten da. Deun/Deuna ez bitez erabil San, Santu edo Done-ren orde. Beraz, *Mikel Deuna, *Tiburtzio Deuna ez dira egokiak, bai ordea, Done Mikel, San Tiburtzio. [Euskaltzaindiaren arauak. 2003ko martxoaren 28an]). Beraz, XX. mendean arrakasta izan zuten deun osagidun formak ofizialak diren arren, baztertu egin dira, bere orde, *San Andres, Santa Eufemia, San Migel...* erabiltzeko, orain arte ahoz erabili izan diren moduan.*

Hauen artean, badago santu izen bat, gure herrian, bi eratara idatz daitekeena: *San Pelaio* edo *Doneperi Gibelortzagakoa*. Aukeraketa egin behar eta *San Pelaio Gibelortzagakoaren* alde egin da *Doneperi* (edo *Eneperi* aldaera desitxuratua) jai egunerako erabiltzen delako, ez horrenbeste lekua izendatzeko.

B.1. Soinuak:

— Idatzizko agirietan aurki daiteken [h]-a:

Ia ez da agertzen eta ageri denean ez da batere sistematikoa. Honek agerian uzten du ahozko garaiko erabileran ere galduta zegoela. Hori dela eta, ez da izen normalizatueta adierazi³⁹. Leku-izenaren ondoan, parentesi artean, doan generikoak beharko balu, euskara baturako arauak jarraituta adierazi da. Generikoa izen bereziaren osagai denean, berriaz, salbuespentzat hartu dira, 'atxa' (haitza) edo 'atxeta'.

Beraz, [h], ortografia marka hutsa dela dirudi eta bost testuingurutan agertu izan da.

Lehenengoan, diptongo eta hiatoan dauden bokalak bereizteko: *Sancti Iohannis di Castiello* (1053).

Bigarrenean, hitz barruan ageri da baina afrikaria markatzeko dela dirudi: *Ynshaus-tia* (1575), *Garashondo* (1577-78) eta *Arish mieta* (1885).

Hirugarrenean, hitz hasieran agertzen da: *Harmoquigana* (1500), *Hermecho* (1514), *Peña de horo* (1571), *Hormabarrieta* (1572), *Hondarra* (1578), *Hermua* (1646), *Hortube* (1646), *Herçilla* (1689), *Haranondo* (1701), *Hazatarrochu* (1745-46), *Huretas* (1786), *Huriachiti* (1800).

Laugarrenean, hitz elkarketako osagaiak bereizteko erabili da: *Oyahurta* (1577-78), *Errota hederra* (1629), *Aranhondo* (1625), *Bidahechea* (1646), *Corta hederra* (1826), *Arech humieta* (1848).

Bosgarrenean, herskariarekin batera, hitz hasieran azlatzen da: *Thorrea* (1729an eta 1799an), *Basabe Thellaerota* (1629an).

Hauetako kasurik gehienetan [h]dun adibide bakarra jaso izan da, beste batzuetan, ordea, aldaera hauek [h] gabeko aldaerekin txandaka.

— Txistukarien neutralizazioa.

Txistukarien inguruan, Bermeoko euskalkian z / s frikariak eta tz / ts afrikariak ez dira bereizten eta dokumentazioan ere, nahasmen handia dago. Beraz, pentsatu da, datuek laguntzen duten neurrian, etimologiara jotzea eta, normalizatzeko orduan, euskara baturako arauak jarraitzea. Osterantzean, ahozko erreferentzia besterik aurkitu ez denean, eta leku-izenari antzik ematea zaila edo ezinezkoa izan denean, dagoen-dagoenean utzi da.

Txistukariak ozen ondoan agertuz gero, euskara baturako hartutako erabakiei jarraituta, afrikariaren alde egin da: *Elorça* > **Elortza**, *Ocaranza* > **Okarantza**, *Aranzadi* > **Arantzadi**, *Zurzuri* > **Zurtzuri**, *Areilza* > **Areiltza**, *Calzadas* > **Kaltzada**... Hala ere, badira salbuespenen batzuk: **Urzuri**, **Farolzarra**, **Txapelsolo**, **Antonsole**, **Buztinsolo**... Kontuan izan behar da, herrian bietarikoa aurki daitekeela: ozen osteko afrikaria ("*kaltzada*", "*sartzailleku*", "*ertzille*"...) edo frikaria ("*kalsada*", "*sarsailleku*", "*ersilla*"...)

— Herskariak:

Espezifikoetan, herskariei dagokienean, idatzizkoa eta gaur eguneko ahozko erabile-
ra izan da erabakigarria: esate baterako, **Dondorreta**. Generikoetan, berriaz, euskara ba-
tuan adierazi dira: adibidez, 'tontorra'.

B.2. Gertaerak:

Ahoskerari lotutako prozesuek -asimilazioa, disimilazioa, bustidurak ([ñ] eta [ll] salbu), epentesiak, metatesiak eta sinkopak- eragindako aldaketak ez dira aintzat hartu normalizatzeko orduan. Ahal izan den neurrian, atzera jo nahi izan da (Ik. II Gertaera Fonetikoak).

— Asimilazio eta disimilazio prozesuak: bokalen arteko hurbiltze urruntze proze-
suak ez dira errespetatu eta etimologikoki diren bezala normalizatu dira: *Iribiene* > **Ira-
biene**, *Katiazarre* > **Kateazarre**...

39 Salbuespena Hipolito pertsona izenetik eratorritako baserri izena: **Hipolitone**.

— Bustidura: Palatalizazioa edo bustidura, adierazkorra izan beharrean asimilaziozkoa da, hau da, testuinguruak eragindakoa. Hori dela eta, ez da kontuan izan, [i] bokal palatalak [t] edo [d] herskari hortzobikariei eragindako bustidura automatikoa. Beraz, nahiz eta *Itxurondo*, *Beitxi* edo *Txindzortza* esan: **Iturondo**, **Beitegi** eta **Txindurtza** normalizatu dira. Baina sudurkariari ($n > \tilde{n}$) eta albokariari ($l > ll$) dagozkien bustidurak mantendu egin dira. Hauetako batzuk bokal palatalaren eraginez sortutakoak diren arren, aspalditik datozkigu. Beste batzuk, ordea, ez dago esaterik bokal palatalak eragindakoak diren ala kontsonante palatalak diren: **Arballo**, **Sollube**, **Mañu**, **Mallukisolo**, **Sartzailleku**, **Mallela**, **Giñarradi**, **Perretxiñe**, **Gaztañadi**...

— Epentesia: [i] edo [u] bokal itxien eta beste bokal baten artean tartekatutako soinuak ez dira kontuan izan normalizatzean, esate baterako, **Talaiape** (*Talaijepe*), **Iturrieta** (*Iturrijeta*), **Txopodia** (*Txopodije*)... edo **Mañu** (*Mañuba*), **Iruarrieta** (*Irubarrieta*)...

— Metatesia: idatzizkoan besterik jaso ez denean baino ez da errespetatu, hau da, metatesia susmotzat besterik ez denean izan. Esate baterako, **Atxanarrobaso** (*Atxarranobaso*).

— Sinkopa: hauek ere ez dira errespetatu aldaera osatuagoen alde egin delako. Beraz **Katalane** (*Katalne*), **Kristobalene** (*Kristobalne*), **Ganeta** (*Ganta*)...

C. ARTIKULUA ETA BOKAL PARAGOGIKOA

BERMEOKO LEKU-IZENEN CORPUSAREN AZTERKETATIK ABIATUTA⁴⁰

Artikulu honetan determinatzailea aztertu da Bermeoko leku-izenak hartuta, bartzuekin zalantza izaten delako artikuluekin erabili behar diren ala ez.

Artikulua ez zen leku-izen guztietan agertzen, eta agertzen zirenetan ere (baserri-izenetan, esate baterako), ez zen sistematikoa; artikulu gabeko aldaerek interferentzia egiten zuten. Beraz, artikulua ez zen leku-izen guztietara heldu. Gaur egun, artikulu gabeko leku-izenak dira nagusi, eta artikulua generikotasunari lotuta gelditu da.

Kontsonantez bukatutako leku-izenetan artikulu gabeko eta artikuludun aldaerak jaso diren arren, askok badute hirugarren aldaera bat: amaieran -e bokala duena. Haueitariko batzuek ez dute artikuludun aldaerarik. Gaur egun, kontsonantez bukatutako leku-izenetan -e bokala eranstejoera zabalduta dago salbuespenak dituen arren.

C.0. Sarrera

Orain dela sei urte hasi ginen Bermeoko leku-izenen bilketa egiten, hau da, toponimia handia eta toponimia txikia batzen. Ahozkoa jasotzeko Bermeoko baserri guztietara jo genuen, baita jausita edo hutsik zeuden baserrien jabeengana ere. Idatzizkoa, berriz, artxiboetan bilatu zen. Bilketa honetan, hasiera-hasieratik, nabarmen gelditu zen artikulua ahozkoan ez zela ia erabiltzen, eta lan bibliografikoetatik eta artxiboetako agirietatik jasotako leku-izenetan ez zela era sistematikoan agertzen. Zenbait leku-izen artikulu gabeak baziren ere, beste leku-izen batzuek, ia interferentziarik gabe erakusten zuten artikulua. Horrez gain, beste zenbait leku-izenek bukaeran artikulua ez zen “-e” bokala erantsita zeukatzen. Honek guztiak eragin zuen leku-izenen bilketa osoaren azterketa egitea: artikulua noiz eta zer testuingurutan agertzen zen, eta bokal paragogikoak leku-izenetan zuen eragina, nola zegoen zabalduta, noizkoak ziren lehenengo agerraldiak...

Erabilitako adibideak, beraz, Bermeoko leku-izenak dira. Beltzez idatzitakoek, Bermeoko leku-izenen bilketa egin dutenek herrirako egin duten proposamena adierazten dute. Letra etzanez adierazitakoak idatzizko iturrietatik jasotakoak dira eta [] artean adierazitakoak ahozko bilketatik jasotakoak dira. Baserri askok izen bat baino gehiago dutenez, proposatutako izena ez eze, duen beste izen bat ere komentagarria izan daiteke. Hori dela eta, zenbait kasutan beltzez adierazitako leku-izena eta etzanez adierazitakoa desberdinak izango dira.

Gaur eguneko erabileran, artikulua generikotasunari lotuta dago, hau da, izen arrunt direnekin erabiltzen da. Berdin gertatzen da leku-izenetan, generikotasunetik hurbil daudenetan agertzen da; izen berezietan, espezfikoetan, berriz, ez dago artikulurik. Herri ba-

40 UZTARO 56, 2006, 53-84.

rruan, generikotasunetik hurbil dauden leku-izenak ugariago dira; baserri-auzoetan, ordea, nekezago jaso dira.

Leku-izenak generikotasunetik sortutakoak dira, nahiz eta zaharrak diren asko ilunak izan. Generikoak izan diren neurrian, artikulua hartu izan dute eta espezifikoa bilakatzean galdu. Hori dela eta, artikuludun aldaerak artikulua gabekoekin txandaka jaso izan dira. Artikulua gutxika-gutxika sartu zen, eta beraz, leku-izen zahar askok, edo ez zuten artikulurik, edo geroago erantsi zitzaizkien, espezifikotasunaren bidean, esan bezala, galtzeko. Baina artikulua galera ez da garai jakin batean jaso, leku-izenak ere garai desberdinetan sortutakoak direlako.

Bermeoko leku-izenen corpusaren azterketa honetan, interferentziek pisu handia dute. Ikusi izan da eskribauek, euskaldunak eta herrikoak izanda ere, garaiko gaztelaniaren legeei josita idazten zutela: gaztelaniako grafiaz, eta askotan, toponimoak gaztelaniaz emanez. Zenbait kasutan idatzizko aldaerak eta gaur eguneko ahozko aldaerak urrun daude, eta ez da ahozkotasanari lotutako arau morfonologikoengatik, gaztelaniarako balio duen aldaera nagusitu delako baino. Kasu horietan, interferentzia modura agertzen diren aldaerak gaur eguneko erabileratik hurbilago daude.

Horren adibide argiena, artikulurik ez daraman leku-izen hau da: **Almika**. Leku-izen hau baserri-izena eta auzo-izena da. Oinarri moduan beste leku-izen bitan jaso da: baserri-izen batean, **Almikatxu**, eta paraje-izen batean, **Almikaondo**. Paraje nagusi-nagusietan eta baserri-izenetan gertatzen den moduan, artikulua sistematikotasunez erantsi da. Badi-rudi hauek ez direla hain aldaerazak. Leku-izen honen aldaerarik zaharrena 1093ko *Albonica* da. Gero 1493tik aurrera *Alboniga* besterik ez da jaso. Inoiz interferentziaren bat jaso da auzo-izenean: 1656an *Albeinca* eta 1666an *Alboinca*. **Almikatxu** baserri-izenaren bilketan ere, 1787an *Albincachu* jaso da. Interferentzia horiek erakusten dute jaso den lehenengo agerralditik gaur eguneko ahozkorako tarteko pausu batzuk zeintzuk izan diren. Sistematikotasunez jaso izan den aldaera, *Alboniga*, berriz, urrun gelditzen da. Auzoa herriarekin lotzen duen paraje zabalaren izenari esker, **Almikaondo**, azalean gelditzen da *Alboniga* ez zela erabiltzen zen aldaera, ez delako behin ere jaso: 1621ean *Alboincaondo*, 1659an *Albeincaondo*, 1745ean *Albincaondo*, 1748an *Almoicaondo*, 1803an *Almicaondo*, 1843an *Almikondo*. **Almikaondo** leku-izenaren aldaeretatik ateratzen da, herriko hiztunen erabileran **Almika** nola aldatu den.

Artikuluarekin ez dago berdin egiterik. Esan bezala, leku-izenetan *-a* bukaeradun aldaerak *-a* gabekoekin txandaka jasotzen dira. Garai batetik aurrera, *-a* bukaeradun aldaerak nagusi heltzen dira XX. mendera arte, baina hiztunengandik ez da *-a* bukaeradunak jaso. Eskribau eta notarioen eskua dagoela esan daiteke. Hau da, azentu aldetik azken silaban azentua duten leku-izenei, oxitonoei, *-a* bokala gehituz gero gaztelaniaren erregelatarara errazago egokitzen dira, paroxitono bilakatzen direlako, eta beraz, onargarriagoak egiten dira gaztelaniazko testuinguruetan.

Gaur egun ere, *-a* bukaeradun aldaerak gaztelaniarekin lotzen dira; hau da, gaztelaniaz dabilzanerako dira. Hiztunek euskaraz ari direnean “*Burgo* Garbola baño tziki3aue da” esango dute, baina gaztelaniaz “*Burgoa* es más pequeño que Garbola”.

Bokalez amaitzen diren leku-izen asko artikulua gabeak dira, beste batzuek galdu egin dute. Kontsonantez amaitzen direnen artean batzuek ez dute artikulurik jaso; beste batzuek, ordea, bai. Multzo horretakoek, kontsonantez bukatzeko eragozpenen bat erakusten dute, bukaeran deklinabide-markak eranstetik datorren “*-e*” bokal paragogikoa erans-teko joera nabaritu baita. Joera hau zabaldu egin da, eta gaur egun zabal-zabala da, zenbait salbuespen badira ere.

Ikus ditzagun Bermeoko adibideak erabilia bi kasuok nola jaso diren:

C.1. Bokalez amaitutakoak:

-a amaiera dutenak:

- Berezko *-a* bokalez amaitutakoak: **Txorna**, **Kafranka**, **Almika**, **Artika**, **Errenta**, **Erribera**, **Errosa**, **Kikunbera**, **Ponpa**, **Tranpa**...

- Elkarketan:
 - erreka: **Infernuerreka, Artikerreka...**
 - errota: **Olaerrotta, Tribizkoerrotta...**
 - gorta: **Olagorta, Oiangorta, Zezenkorta...**
 - landa: **Etxebarrilanda, Paradako landa...**
 - ola: **Azaola, Nafarrola, Garbola.**
 - punta: **Lamiaranpunta, Erleko punta.**
 - Eratorpenean:
 - aga: **Txibitxiaga, Dolareaga, Gibelortzaga, Mazaleriaga, Madariaga, Etxebarriaga, Asuaga, Mutiaga, Ametzaga, Iturriandiaga, Urdaiaga, Ezkiaga, Sagarraga, Altxurraga, Irabiaga...**
 - eta: **Laubidieta, Jentillatxeta, Aldatzeta, Andiriminieta, Arrizurieta, Atxeta, Bidebarrieta, Bidezaretta, Biorgorta, Elorritxueta, Ganeta, Ikaieta, Iruarrieta, Irukurtzieta, Iturrieta, Olazarreta, Ormabarrieta, Pisueta...**
 - eria: gremio edo ofizio jakin bati erreferentzia egiteko: **Telleria, Adoberia, Errenteriaportale, Zesteriakalea, Denderiakalea, Karnazeriakalea, Peskaderiakalea...**
 - tza: **Zitza, Zikintza, Kukutze, Txindurtza, Elortza, Okarantza, Artza...**
- Badira, horietaz aparte, bukaeran -a ageri duten leku-izenak baina, hauetan, bokala ez da izenak berezkoa duena, artikulua baino. Hauen artean multzo bi bereiz daitezke: generikotasunetik hurbil daudenak, eta gaur egunera bizirik heldu ez diren leku-izen historikoak edo fosildurik heldu direnak. Ondoren zabalago aztertzen da 3. atalean.

-e amaiera dutenak:

- -e berezkoa dutenak bukaeran: **Agirre, Torre, Trake, Erle...**
 - Elkarketan:
 - alde: **Garalde, Artalde, Pedrualde, Olalde, Iturrialde, Mendialde...**
 - aurre: **Mañuaurre, Mastiaurre...**
 - (bit)arte: **Bonbillarte, Uriarte, Errekarte, Bidarte, Errekabitate, Mastibitate...**
 - bide: **Lantzabide, Lorbide...**
 - etxe: **Bidetxe, Erdikoetxe, Goienetxe...**
 - erre: **Etzerre, Ametzoterre...**
 - gane⁴¹: **Armokigane, Goikogane...**
 - kale: **Goienkale, Sagar calle (Denderiakalea), Artecalle, Barrencalle (Erremedio kalea).**
 - luze: **Sololuze, Mendiluz, Landaluze...**
 - oste: **Portaloste, Hospitaloste (Eskolakalea)...**
 - torre: **Usatorre.**
 - Eratorpenean:
 - be / -pe atzizkiz bukatutakoak: **Basabe, Nafarrolape, Miskatupe, Galdizpe, Urdillape, Kantarape, Kateape, Usape, Errosape, Talape...**
- Badira amaieran -e bokala ageri duten beste leku-izen batzuk, baina hauetan -e ez da berezkoa. Kontsonantez bukatzen diren leku-izenek erakusten duten bokal paragogikoa da: **Baztarre, Gibebe, Gaztelugatxe, Axnabarre, Arbaltze, Astazabale...** Ondoren, 4. atalean zabalago aztertzen dira.

-i amaiera dutenak:

- Amaieran -i bokala berezkoa dutenak: **Armoki, Egi, Madari...**

41 'gane' bokal paragogikoz lexikalizatuta dagoen hitza da.

- Elkarketan:
 - (h)andi: **Aspoandi**.
 - (h)arezi: **Lauziriko arezi, Luisen arezi, Peruarezi...**
 - (h)arri: **Potorrarri, Ugarrri, Sillarri**.
 - azpi: **Sagarrazpi, Altxurragazpi, Enparaneazpi, Bonbillarteazpi, Zuluetazpi...**
 - barri: **Etxebarri, Errotabarri, Lubarri, Basobarri, Kasabarri, Olabarri...**
 - busti: **Añabusti**.
 - (h)egi: **Olegi**.
 - gorri: **Iragorri, Iratzagorri...**
 - gutxi / gitxi: ⁴² **Talagutxi, Portuichia (Portuzarra), Urgitxi...**
 - iturri: **Argiñiturri, Jentilliturri, Kakiturri...**
 - mendi: **Kurtzemendi (Truboietagane), Urkamendi...**
 - sarri: **Urkisarri**.
 - txiki: **Aspotxiki, Lameratxiki**.
 - ibi: **Urubi**.
 - zubi: **Erregiñazubi**.
 - zuri: **Zurtzuri, Etxezuri, Urzuri**.
- Eratorpenean:
 - di / -ti: **Altzadi, Arantzadi, Sagasti, Urkidi, Oladi, Zepondi, Txopodi, Emaldi, Eskobadi, Gaztañadi, Giñarradi, Matadi, Sagardi, Singidi, Zumeldi, Intxausti, Gisasti, Amezi, Arezi...**
 - (t)egi: **Akulategi, Lupetegi, Mintegi, Aportategi, Aroztegi, Beitegi...**
 - Deklinabidean:
 - ti / -di ablatiboa: **Beiti, Uriatziti, Zarragoiti, Urezandi...**

-o amaiera dutenak:

- -o berezkoa dutenak amaieran: **Burgo, Arballo, Azatarro, Goroso, Izaro**.
- Elkarketan:
 - baso: **Landabaso, Atxanarbaso, Errementaribaso, Migelantonbaso, Erlebaso, Barberubaso, Abadebaso, Opilbaso, Sanjuanbaso...**
 - ondo: **Morondo, Iturrondo, Aranondo, Almikaondo, Karabiondo, Egikondo...**
 - salto: **Usalto**.
 - solo: **Antonsolo, Txapelsolo, Buztinsolo, Kantarasolo, Amandresolo, Gernikasolo, Ingelesolo, Intxaursolo, Iturrisolo...**
- Eratorpenean:
 - ero atzizkidunak: **Torrontero, Txokolatero**.
 - illo: **Kakadillo (Kakallo), Ganbarrillo**.
 - io bukaera: **Ermetxio, Bermeio (Bermeo), Dibio, Kurtzio...**
 - txo: **Azeretxo**.
- Deklinabidean:
 - Nongo adierazten duen leku-genitiboa: **Belauko, Matxitzako, Ezkiagabeko, Nafarrologoiko, Ermetxioerdiko, Agirrebarrenengo, Auzoko...**
 - ko, balioa adierazten duena: **Laumariko**.

-u amaiera dutenak:

- -u berezkoa dutenak amaieran: **Ermu, Igartu, Miskatu, Pedru, Fradu, Gaztelu, Juramentu, Justu, Esparru, Poiu, Saitu...**
- Elkarketan:

42 'gitxi' eta 'gutxi' aldaerak jaso dira, eta biak aurkitzen dira proposatutako izenen artean horrelaxe jaso baitira.

buru: Poiuburu, Aranburu, Mintegiburu, Akulategiburu, Almikaburu, Bior-gortaburu, Arretaburu, Altamiraburu, Portuburu...

leku: Aizeleku, Frailleleku, Sartzailleku...

ortu: Maiteortu, Bekortu, Goikortu...

zarratu: Santizarratu...

— Eratorpenean:

-txu txikigarria: Aritzatxu, Axpaltxu, Errotatxu, Landatxu, Azatarrotxu, Al-mikatxu, Agirretxu, Mintegitxu, Arizitxu, Zuluetatxu, Arbitxu, Mas-titxu, Pastitxu, Ortutxu...

Gaztelaniaren eraginez, leku-izenen amaierako bokala -o bilakatu denean, leku-izenen proposamenean -u berreskuratu da: **Pozuillune** [Posoilluné], *Katukale* [Katokále] (*Iskiñarruaga*), **Portuzarra** [Portosarrá]...

Hala ere, badira idatzizko agerraldi zaharrenetan -o amaiera izan duten leku-izen zaharrak, gerora -u eman dutenak:

Idatzizkoa	Proposatua
<i>Maño</i>	Mañu
<i>Demenigo</i>	Demiku
** <i>Pago</i> / ** <i>Fago</i>	Fagu

C.2. Kontsonantez amaitutakoak

Kontsonantez bukatutako leku-izenak, bokalez bukatutakoekin alderatuz gero, urri-goak dira. Kontsonantez bukatutakoak, idatzizkoak erakusten duenez, artikuluaekin edo eta artikulurik gabe agertu izan dira; baita -e bokal paragogikoarekin ere.

Gaur egun, leku-izenak nagusiki mugatzaierik gabe erabiltzen dira. Izan ere, leku-izenak bereziak badira, generikotasunetik urrundu eta espezifikoko bihurtu behar dute; beste era batera esanda, artikulurik gabe gelditzen dira.

Echeerrea (erretako etxea) > **Etixerre** (etxe errearen lekua)

Echesarra (zaharra den etxea) > **Etxezarre** (etxe zaharraren lekua, etxerik ez badago ere)

Izen berezi bilakatzeko bide horretan, artikulua hartu izan duen lekua, hutsik geratu da (beti ez da aldaera hau, kontsonante hutsez bukatutakoa islatu), eta kontsonantez amaitutako leku-izenek -e⁴³ bokal paragogikoa hartzeko joera izan dute. Kontuan izan behar da, idatzizkoaren arabera, badirela inoiz artikulurik izan ez duten leku-izenak ere:

-V (+ -a) > -V	-C (+ -a) > -Ce
1500 <i>Maño</i> , 1610 <i>Mañua</i> , 1724 <i>Maynu</i> Mañu	1696 <i>Arana</i> , 1818-50 <i>Aranes</i> , 1846 <i>Arenes</i> Arane
1285 <i>Burgoa</i> , 1882 <i>Burgo</i> Burgo	1656 <i>Gogenzabala</i> , 1775-1831 <i>Goyenzabal</i> , <i>Gontzabal</i> , 1897-98 <i>Gonchabale</i> Goientzabale
1706 <i>Urguichia</i> , 1828 <i>Urguichi</i> Urgitxi	1514 <i>Gibela</i> , 1857 <i>Gibele</i> Gibele
	1645 <i>Gortaederra</i> , 1788 <i>Cortaeder</i> , 1774 <i>Corteder</i> , 1838 <i>Cortederregoicoa</i> , 1845 <i>Cortaerre</i> , 1834 <i>Corterre</i> , [Górtarre] Gortaederre
	1828 <i>Uroza</i> , 1978 <i>Urotz</i> , 1896 <i>Ur-etze</i> Urotze
	1779 <i>Astiazabal</i> , 1910 <i>Artazabala</i> , [Astasabalé] Astazabale

43 Deklinabide markak eransteian sortutakoa da. Hala dio Mitxelenak: «Esto es lo que ha ocurrido con muchos nombres de lugar en dialectos orientales: de Paris-en 'en Paris' dividido Paris-e-n, Paris-e-ko, Paris-e-tik, etc. se ha deducido un nominativo Parise. Así -e es claramente paragógica en casos como Akize Dax, de lat. Aquis» Mitxelena *FHV*, 133.

Joera hau, kontsonantez bukatutako leku-izenetan bokal paragogikoa agertzekoa, XVII.-XVIII. mendetik aurrera jaso bada ere, XIX. mendetik aurrera biziago bete izan da eta gaur egun leku-izen zahar eta berrietara hedatu da. Hala ere, badira salbuespenak.

C.3. Artikulua

C.3.1. Artikuludun leku-izenak

Artikulua gaur egungo hiztunen erabilera urria da. Artikuludun leku-izenak gutxi dira, eta multzo bitan banatzen dira:

3.1.1. Gaur egun ere generikotasunetik hurbil dauden leku-izenak: **Portunagusia** (1704 *Puerto*), **Portuzarra** (1973-74 *Portuzarra*), **Tonpoia** (1676 *Tonpoya*), **Iturribiak** (1590-96 *Yturria*), **Iruiturriak**, **Aretxokerra** (1843 *Arech oquer* eta 1845 *Arech Oquerra*), **Txorroa** (1632 *Choroa*)...

Hauek, neurri handi batean, hiriguneko leku-izenak dira; baserri-auzoetan, ordea, urriagoak dira generikotasunari lotutako leku-izenak. Kontuan izan behar da, leku-izen ugari generikotasunetik sortutakoak direla. Hori dela eta, huts-hutsean ageri direnean,⁴⁴ artikulua erantsita dute eta deklinaturik ageri direnean, ordea, euskararen jokabideari jarraituta, ez dute artikulurik erakusten. Egoera horretan daude, gaur egun, herri barruko leku-izen asko; ez, ordea, baserri eremuetakoak:

Tonpoia: [Tonpoié] / [Tonpoi3é], [Tonpoiéin] / [Tonpoi3én] baina [Tonpóitzik], [Tonpoiré], [Tonpoiko bedarlékue].

Portuzarra: [Portosarrá], [Portosarrán] baina [Portosarrétik], [Portosarrerá], [Portosarreko itzurri bízek].

3.1.2. Gaur egunera bizirik heldu ez diren leku-izen historikoak edo fosildurik heldu direnak: **Otaebagia**, **Mastiebagia** ('ebagi' partizipiodunak), **Arzabala** (1373 *Arzabala*), **Ermendurua**, **Ostraidua** (1577-78 *Ustraidua* eta 1578 *Ostraydua*), **Errotabarria** (1575 *Rotabarria*), **Errotazarra** (1663 *Errota carra*)...

C.3.2. Artikuludunak vs. artikulugabeak

Idatzizko agirietan, bokalez bukatutako izenetan ia ez da artikulurik agertzen eta kontsonantez bukatutakoetan hiru aukera daude: artikulurik gabe, artikulurekin eta bokal paragogikoarekin.

C.3.2.1. Artikulua zalantzazkoa jotzen da

C.3.2.1.1. Artikulugabeak aldaerak artikuludunekin txandaka aspalditik agertzen badira ere, eskribauek -a bukaeradunak jasotzeko joera dute; gehienbat baserri-izenetan, ia XX. mendera arte ez da -a bukaera gabeko aldaerarik jaso: **Gibele** (1514 *Guibela*, 1857 *Guivele*), **Talagutxi** (1542 *Talagutxia*, 1973-74 *Talagoitxi*), **Beiti** (1578 *Beytia*, 1857 *Beiti*), **Saitu** (1591 *Zaitua*, 1910 *Saichu*), **Poiu** (1578 *Puxea*, *Puxua*, 1670 *Poiua*, 1938 *Poyu*), **Egi** (1637 *Eguia*), **Igartu** (1682 *Ygartua*, 1938 *Igertu*), **Pedru** (1663 *Pedurua*, 1704 *Pedrua*, 1938 *Pedru*), **Ermu** (1646 *Hermuas*, 1847-74 *Ermu Goycoa*), **Agirrebarrenengo** (1704 *Aguirre Barrenengoa*), **Etxebarrimotzene** (1704 *Echevarria*, 1775-1831 *Echebarria mocheda*, 1859 *Echebarri mocheda*, 1938 *Echevarri-mochene*), **Beazko** (1745-46 *Veazcoa*, 1938 *Biesko*), **Erramuene** (1733-1845 *Erramuena*, 1928 *Erramuene*, 1944 *Erramone*)... -a amaiera ia era sistematikoan agertzen da hauetan, eta sarritan, -a gabeko aldaerarik bitartean jaso gabe, bestelako leku-izenetan txandakatzea nabarmenagoa denean.

Beraz, badira arrazoiak pentsatzeko, paraje nagusi askotan eta baserri-izen gehienetan ezinbestekotzat jotzen den artikulua nahiko zalantzazkoa dela.

C.3.2.1.2. Zenbait leku-izen alderatuz gero, esate baterako baserri-izenak, artikulugabeak aldaera nahiko zaharra da (zenbait kasutan zaharrena ere bai) eta artikuludun aldaerarekin txandakatzen da.

44 «Kontuan izan behar da hitzak edo izen arruntak aipatu behar direnean, mugaturik, hau da, artikulua erantsita ematen direla: etxea, sagastia, portua, aldatsa...» Euskaltzaindia (1985): *Euskal gramatika. Lehen Urratsak I*. Iruñea.

‘Etxebarri’ baserri-izena hartuz gero, esate baterako, artikuluekin jaso da gehienez; baina, inoiz, leku-izenaren lehenengo agerraldia artikulua gabekoa izan da. Beraz, datuetatik ondoriozta daiteke, XVII. menderako leku-izenaren bigarren osagaia ‘barri’ izanda, artikulua zalantzazkoa zela nahiz eta artikulua geroago ere agertu. Aurrerago esan bezala, artikulua leku-izenak duen generikotasunarekin lotuta dago.

Proposatua	XVI	XVII	XVIII	XIX
Errotabarria	1575 <i>Rotabarria</i>			
Etxebarrierreka	1563 <i>Hechavarria</i>	1632 <i>Echabari ereca</i>		1857 <i>Echevarriaerreca</i>
Etxebarri (Demiku)	1578 <i>Echavarria</i>			1825 <i>Echebarri</i>
Etxebarrilanda		1682 <i>Echavarri</i>	1701 <i>Echavarria</i> 1791 <i>Echevarri</i>	1804 <i>Echevarri</i> 1825 <i>Echevarri Landa</i>
Etxebarria de Aroça			1703 <i>Etxabarria de Aroça</i>	
Marinone				1857 <i>Etxebarri</i>
Josune		1682 <i>Echavarria muculu</i>	1791 <i>Echevarri Beotegui</i>	

‘barri’ osagaia ageri duten beste leku-izenetan (guztiak XIX. mendekoak) ez dago artikulurik: **Bentabarri** (1829 *Taberna barri*, 1843 *Benta barri*), **Etxetxubarri** (1847-74), **Bidebarrieta** (1896 *Videbarri*).

‘etxe’ osagaia duten leku-izenekin gauza bera gertatzen da. Erreferentzialak diren neurrian, artikulua behar dute, baina agerraldirik zaharrenak, XVII. mende hasierakoak, artikulua gabekoak dira, eta zalantzan jartzen dute, hauek ere, artikuluen indarra garai hartan.

Proposatua	XVII	XVIII	XIX
Bidetxe	1601 <i>Vidaeche</i> 1633 <i>Bidechea</i>	1734 <i>Videche</i>	
Paskualetxe	1629 <i>Pasqualeche</i>		
Bengoetxe	1629 <i>Bengoechea</i>	1775-1831 <i>Bengoeche</i>	
Goienetxe	1637 <i>Gojenechea</i> 1676 <i>Goxenechea</i> 1676 <i>Goieneche</i>	1791 <i>Goieneche</i> 1796 <i>Goieneche</i>	
Etxerre		1777 <i>Eche-errea</i> 1791 <i>Echerra</i>	
Piezaetxe			1850 <i>Pieza-eche</i>
Erdikoetxe (San Pelaio)			1835 <i>Erdicoeche</i>
Erdikoetxe (Arane)			1854 <i>Erdicoechea</i> 1857 <i>Erdicoeche</i>
Erdikoetxe (Mañu)			1843 <i>Erdicoechea</i> 1847-74 <i>Erdicoeche</i>

Torre leku-izena hartuta ere, artikulurik gabeko aldaera da zaharrena, XVIII. mendearen hasieran. Mende horren erdi aldera jaso da txandakatzea.

Proposatua	XVIII. lehen zatian	XVIII	XIX
Torre (San Migel)		1745-46 <i>Torrea</i> 1791 <i>Torria</i>	1775-1831 <i>Gastañaga Torre</i> 1811 <i>Torre</i>
Torre (Artika)	1704 <i>Torre</i>	1729 <i>Thorrea</i>	1842 <i>Torre</i>

C.3.2.2. Artikulua ala *-aga* leku-atzizkia?

Zenbait kasutan ez dago argi esaterik ikusten den amaierako *-a*, artikulua den ala *-aga* leku-atzizkia den. Batzuetan leku-izena behin baino ez da jaso eta artikulutzat jo behar da, esate baterako, **Sagastiandia** (1632 *Sagastiandia*), nahiz eta mende bereko

‘(h)andi’ osagaidun leku-izen bakarrak leku-atzizkia eraman **Iturriandiaga** (1663 *Yturiandiaga*). Beste batzuetan, ordea, bukaerako bokala den *-a* leku-atzizkidun aldaerarekin batera aurkitzen da baina ez garai berean. Beraz, artikulutzat zein leku-atzizkitzat jo daiteke: **Goroso** (1575 *Groso*, 1577-78 *Goroso*, 1578 *Goroso*, 1785 *Bulusuaga*, 1795 *Gulusuaga*), **Altxurraga** (1702 *Alchur*, 1733-1845 *Achurra*, 1809 *Achurraga*), **Zelaia**⁴⁵ (1575 *Calaya*, 1576 *Çelaya* eta 1646 *Celaya*, 1747 *Zelayta*, 1761 *Zelaietta*).

C.3.2.3. Leku-izen zahar asko artikulatu gabe

Leku-izen ugarik, aurrerago esan bezala, izenaren espezifikotasuna dela eta, ez dute inoiz artikulurik jaso: **Galdiz** (1300 *Galdiz*), **Agirre** (1493 *Aguirres*), **Irabiene** (1514 *Yrabiene*), **Mendiluz** (1563 *Mendiluz*), **Peña de Oro** (1575 *Peña de horo*), **Azatarro** (1593 *Azatarro*), **Miraflores** (1644 *Miraflores*), **Flores** (1682 *Flores*), **Landabaso** (1775-1831 *Landabaso*), **Zurtzuri** (1827 *Surzuri*), **Basogalant** (1843 *Baso Galan*), **Miskatu** (1876 *Miscatubaso*), **Esparru** (1893-94 *Esparru*), **Iratzagorri** (1910 *Yrechagorri* eta 1882 *Achuene*), **Urubi** (1928 *Urubi*), **Dibio** (1597-99 *Dibio*), **Aranondo** (1572 *Aranondo*)...

Beste kasu batzuetan, aurrerago aipatu bezala, leku-izenaren agerraldi zaharrena artikulatu gabekoa da, eta geroago agertzen da artikuludun aldaera, askotan artikulatu gabeko aldaerarekin txandaka.

Proposatua	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
Mañu	1500 <i>Manno</i>	1610 <i>Mañuas</i>	1724 <i>Maynu</i> 1733-1845 <i>Manos</i> , <i>Mainua</i> 1770 <i>Mañuba</i> 1773 <i>Maño</i>	1847 <i>Mañu</i>	
Olegi		1633 <i>Olegui</i>			1910 <i>Oleya</i>
Beitegi		1656 <i>Beitegui</i>	1798 <i>Beitia</i>	1811 <i>Beitegui</i> 1847-74 <i>Beiti</i>	1938 <i>Beichi</i>
Zarragoiti		1670 <i>Zarragoiti</i> 1671 <i>Çarragoitia</i>	1742 <i>Zarragoiti</i>		
Landatxu			1740 <i>Landachu</i> 1787 <i>Landachua</i>		1910 <i>Landachu</i>
Sartzailleku			1775-1831 <i>Zarzalleco</i>	1821 <i>Zarzallecua</i> 1831 <i>Zarzaillecu</i>	
Agirre / Auzoko			1775-1831 <i>Obiaco</i>	1823 <i>Obiacua</i> 1847-74 <i>Obiacone</i>	1910 <i>Obicuenta</i>
Astazabale			1779 <i>Astiazabal</i>		1910 <i>Artazabala</i> <i>Astazabale</i>

Artikuludun aldaera ez da garai jakin batean agertzen; kasu batzuetan XVI. mendean agertzen da (ikus 3.2.4.ko Artikulua galtzen dutenak edo sistematikoki hartzen ez dutenak), beste batzuetan XVII. edo XVIII. mendean, baina geroago ere azaldu izan da, XIX edo XX. mendean, ordura arte artikulatu gabeko aldaera nagusi izanik. Honek erakusten du artikulua poliki-poliki sartu zela baina izenen espezifikotasunagatik trabak zituela.

C.3.2.4. Artikulua osagaika

C.3.2.4.1. Artikulu gabekoak:

Leku-izenak osatzen dituzten hitz elkarketako bigarren osagai batzuek ez dute artikulurik hartzen, edo hartzen dutenean, ez dago adibide askorik. Hona hemen bokalez bu-

45 Kasu honetan, *-a* bukaeradun aldaera *-eta* leku-atzizkiarekin txandaka dago. Artika auzoko leku-izen hau ez dau gaur egunera heldu, baina bai San Andres auzokoa: [Selaijá]. Honek *-aga* leku-atzizkia murriztuta du, azentuduna, eta bokal itxiak ez dio asimilaziorik eragiten, hau da, ez du gradu batean ixten. Artikuludun generikoa balitz, ordea, asimilatuko luke.

katutako batzuk: 'alde', 'arte' edo 'bitarte', 'baso', 'bide', 'buru', 'ondo', 'solo', eta konsonantez amaitutako beste batzuk: '(h)atx', 'bizkar' eta '(h)aran' dira.

a) Konsonantez amaitutako '(h)atx', 'bizkar' eta '(h)aran' osagaiak ez dute artikulurik hartzen. Adibidez, **Itubizkar** (1606tik *Itubiscar*). '(h)atx' osagaidunei bokal paragogikoa erantsi ohi zaie. **Gaztelugatxe** (1793 *Gaztelugach* eta 1867 *Gastelugache*), **Aketxe** (1634 *Aqueache*), **Salbatxe** (1758 *Salbaiche*), **Jentillatxeta** (1854 *Gentillache*), **Bonitoatxe** (1890-91 *Bonitoach*), **Santunatxe** (1910 *Santunache*). Bigarren osagaitzat '(h)aran' dutenen artean, hiru leku-izen daude. Horietako bik ez dute artikulua hartzen (gaur egun hirurei eranstean zaie bokal paragogikoa): **Lamiarane**⁴⁶ (1285 *Lamiaran*), **Enparane** (1446 *Emparan*, 1783 *Empare*). Hirugarrena, ordea, artikularekin jaso da XIX. mendearen hasierara arte hutsik egin gabe, baserri-izenekin gertatzen den moduan: **Arane** (1696 *Arana*, 1818-50 *Aranes*, 1846 *Aranes*, 1859 *Arane*).

b) Bokalez amaitutakoen artean:

'alde', XVI. mendetik aurrera: **Garalde** (1542 *Garalde*), **Artalde** (1610 *Artalde*), **Pedralde** (1789 *Pedralde*), **Olalde** (1827 *Olalde*), **Ibiñalde** (1882 *Ybiñalde*)...

'arte' edo bitarte, XVI. mendetik aurrera: **Berjelarte** (1535 *Bergelarte*), **Uriarte** (1578 *Uriarte*), **Bonbillarte** (1644 *Bonbillarte*), **Bidartemotzene**, (1792 *Bidarte*), **Bidarte** (1882 *Bide-arte*), **Errekabitarte** (1911 *Erreca-bitarte*), **Mastibitarte** (1944 *Mastibitarte*)...

'baso', XVIII. mendetik aurrera: **Urkisarribaso** (1736-37 *Urkisaribaso*), **Landabaso** (1775-1831 *Landabaso*), **Musillarrobaso** (1855 *Musilarroa-baso* eta 1863 *Musolarrobaso*), **Abadebaso** (1848 *Abadebaso*), **Errafaelbaso** (1855 *Rafael-baso*), **Katalanbaso** (1855 *Catalanbaso*), **Barberubaso** (1863 *Barberubaso*), **Errementaribaso** (1882 *Errementaribaso*), **Erlebaso** (1884-85 *Erlebaso*), **Atxanarrobaso** (1885-86 *Achanarro-baso*), **Migelantonbaso** (1910 *Migelantonbaso*)...

'bide', XVII. mendetik: **Elezbide** (1644 *Lezbide*), **Elizbide** (1729 *Elespide*), **Sanjuanbide** (1769 *San Juan Vide*), **Lorbide** (1799 *Lorbide*), **Zearbide** (1873 *Ciarbide*). Gaur egunekoak, berriz, artikularekin jaso dira [Sanjuanbidie], [Bilbobidie], [Mundekabidie].

'buru', XVI. mendearen erditik aurrera artikulurik gabe. Hala ere, badira salbuespenak urriak badira ere: **Portuburu** (1563 *Portuburu*, 1633 -desitxuraturik- *Perturburba Perturburua* ageri da), **Errotaburu**⁴⁷ (1633 *Rrotaburua*, adibide bakarra), **Aranburu** (1682 *Aranburu* 1775-1831 *Aranburua*) eta Araneko **Mintegiburu** (1733-1845 *Minteguiburu*, 1855 *Minteguiburua*), **Arronategiburu** (adibide bakarra, 1842 *Arronategui Burua*), **Enparaneburu** (1890 *Amparamburua*, 1926 *Empareburu*).

Besteetan artikulurik gabe: **Ibarburu** (1745 *Ibarburu*), **Zarranburu** (1827 *Zarrenburu*), **Adarburu** (1855 *Adarburu*), **Etxezuri** (1847-1874 *Ygartuburu*), **Aranondoburu** (1910 *Aranondoburu*)...

'kale', XVI. mendetik aurrera: **Goienkale** (1566 *Gojencalle*), **Denderiakalea** (1624 *Sagarcalles*), **Kukunkalea** (1809 *Cucuncalle* eta 1851 *Artecalle*). Baina gaur eguneko erabilera artikuluduna da: [Eskolakalie], [Katukalie]...

'leku' osagaidun leku-izenak gutxi dira, baina salbuespenak dituzte. XVIII. mendearen amaierako eta XIX. mendearen hasierako **Sartzailleku** izenaren agerraldia artikulua gabekoa da. Gero artikularekin ageri da, aurrerago

46 Mundakako eremuan egonda Bermeotarrentzat leku esanguratsua den neurrian, lan honetan sartu egin da, hau da, herrikoentzat erreferentzia-puntua delako: **Lamiaranpunta**, **Lamiaraneko erreka**. Ahoz, [Lamižanē] jaso da.

47 **Errotaburu** eta **Arronategiburu** artikulua gabe proposatu dira, behin eta artikuluz jaso badira ere, erabilera nagusia, baita gaur eguneko ere, artikulua gabekoa delako, eta gainera, 1633ko agirian (VEKA S.V. C931) agertzen diren 'buru' osagaidunak direlako artikuluz agertzen diren lehenengoak eta beste leku-izenaren aldaera biak desitxuraturik agertzen direlako.

berriro ere, artikulurik gabe jasotzeko: **Sartzailleku** (1775-1831 *Zarzalleco*, 1821 *Zarzallecua*, 1828 *Zarzallecu*). **Frailleleku**, berriz, artikulurik gabe jaso izan da (1854 *Fralilecu*).

'ondo', XVI. mendearen erditik aurrera jaso da, beti artikulurik gabe: **Aranondo** (1572 *Aranondo*), **Garazondo** (1577-78 *Garashondo*), **Txaralondo** (1578 *Xareacondo*), **Almikaondo** (1621 *Alboincaondo*), **Iturrondo** (1701 *Yturondo*), **Peskaderiakalea** (1761 *Morgaondo*), **Enparanondo** (1770 *Emparacondo*), **Morondo** (1781 *Morondo*), **Mendiondo** (1782 *Mendiondo*), **Jardinondo** (1790 *Jardin ondo*), **Txornaondo** (1886 *Chosnaondo*)...

solo, XVI. mendetik aurrera ageri da artikulurik gabe. XIX.-XX. mendera arte jasotako leku-izenak urriak dira: **Abadesolo** (1537 *Abadesolo*), **Berriz-solo** (1748 *Verrizsolo*), **Mikasolo** (1869 *Mikasolo*), **Iturrisolo** (1880 *Yturrisolo*) **Amandresolo** (1907 *Amandre-solo*), **Mierasolo** (1910 *Mierasolo*), **Amorotosolo** (1910 *Amorotosolo*), **Antonsole** (1910 *Antonsole*).

Eratorpenean ere, zenbait atzizki edo bukaerek ez dute artikulurik hartzen, eta hartuz gero, adibide gutxi aurki daitezke. Horien artean '-di'/'-ti', -tegi, -txu, -iz.

-di / -ti eratorpen atzizkia, XVII. mendean artikularekin ageri da. Hurrengo mendetik aurrera, berriz, artikulurik gabe ageri da. Horrela ikus daitezke **Arantzadi** (1656 *Arançadia*, 1810 *Aranza*, 1836 *Aranzadi*) eta **Urkidi** (1656 *Urquidia*, 1778 *Urquidi*) leku-izenetan.

Beste guztietan, XVIII. mendetik aurrerakoetan artikulurik gabe agertzen da: **Eskobadi** (1703 *Eskobadi*), **Emaldi** (1737 *Emaldi*), **Intxausti** baserria (1764 *Ychausti*), **Larrosadi** (1761 *Larrosadi*), **Gisasti** (1826 *Gisasti*), **Peruarezti** (1847-74 *Peru Aresti*), **Zumeldi** (1847-74 *Sumeldi*), **Lauziriko arezti** (1851 *Laucirico-aresti*), **Altzadi** (1879 *Altzadi* Arranotegin eta 1884-85 *Altzadi* San Pelaio Gibelortzagakoan).

-pe osagaia duten leku-izenak XVII. mendetik aurrera jaso dira eta artikulurik gabe ageri dira: **Mendiluz** (1633 *Mendiluspe*), **Txaralpe** (1821 *Saralpe*), **Errosape** (1844 *Rosape*), **Munape** (1845 *Munipe*), **Fradupe** (1847 *Pradupe*), **Kantarape** (1847-74 *Canterape*), **Altxurpe** (1850 *Achurpe*), **Mintegipe** (1850 *Minteipe*), **Kateape** (1854 *Catiape*), **Talaipe** (1847-74 *Banderape*, 1854 *Talayape*), **Ataunpe** (1848 *Ataumppe*), **Arkotxape** (1855 *Arcachope*), **Arantzadiazpi** (1861 *Aranzaizepe*), **Arrizurieta** (1861 *Arrisurietape*), **Ermupe** (1873-74 *Ermupe*), **Miskatupe** (1876 *Miscatupe*), **Basoillun** (1878 *Baso-illumpe*), **Urdaillape** (1896 *Urdaillape*), **Zumarrietape** (1896 *Zumarrietape*), **Agirrepe** (1910 *Aguerrepe*), **Artepe** (1910 *Artepe*), **Astalarrepe** (1910 *Astelarrape*), **Barandape** (1910 *Barrandape*), **Biribilpe** (1910 *Biribilape*), **Kaltzadape** (1910 *Calzadape*), **Gorostiape** (1910 *Gorostiape*), **Garimontorpe** (1910 *Montorpe*), **Nafarrolope** (1910 *Nafarrolope*), **Usape** (1910 *Usape*), **Zumeldipe** (1910 *Zumeldipe*), **Zarragoiti** (1919 *Zarragoiti*), **Torrepe** (1923 *Torrepe*), **Trinkone** (1939 *Trincones-besacope*), **Gibelpe** (1972 *Gibelpe*), **Madalenape** (1978 *Madalenape*), **Gaztelupe** (1982 *Gaztelupe*).

Baina erabilera hau ez da beti bete. Idatzizkoan badira salbuespenak, nahiko urriak badira ere, gehienak XX. mendekoak. Artikuludun aldaerak XIX. mendearen erditik aurrerantz zabaltzen dira, leku-izenaren erreferentzialtasunarekin lotuta: **Bentazarpea** (1856 *Ventazarpia*), **Landatxupe** (1896-97 *Landachupia*), **Talape** (1973-74 *Talapie*), **Gibelpe** (1982 *Gibelpie*), **Akaxpe** (1982 *Akatzpie*).

-tegi eratorpen atzizkia ere, XVI. mendetik artikulurik gabe jaso da. Bada salbuespen bat edo beste. **Beitegi**, 1656tik *Beitegui* jaso da baina 1798an *Beitia* ageri da, behin baino ez bada ere (Demiku auzoko *Beitia* baserriarekin nahastuta, beharbada). Antzera gertatzen da Mañuko **Mintegi** leku-izenarekin (1823 *Mintegi*, 1850 *Minteguia*). Artikako **Mintegi** leku-izen biak

XX. mendekoak dira: batak ez du *-a* bukaerarik ageri; besteak, ordea, bai. Garai honetan zenbait eskribaurengan badago *-a* bukaeradunak markatzeko joera.

Beste guztietan, artikulua gabe ageri da: **Arranotegi** (1578 *Arranotegui*), **Akulategi** (1577-78 *Aquilotegui*), **Aportategi** (1577-78 *Aportategi*), **Lupetegi** (1514 *Lupetegui*), **Aroztegi** (1597 *Aroztegi*). Leku-izen hauek izen bereziak dira, *Mintegi*, ordea, generikotasunari lotuago dagoen izena da.

-txu txikigarriak gutxi-gutxitan erakusten du artikulua. **Landatxu**, **Etxetxu** eta **Torretxu** etxea dira salbuespenak. Generikotasunetik hurbil egotea izan daiteke arrazoia. XVII. menderako aldaera biak txandaka azaltzen dira.

Proposatua	XVI	XVII	XVIII	XIX-XX
Landatxu		1633 <i>Landecho</i> <i>Landachua</i> 1681 <i>Landaechu</i>	1771 <i>Landachu</i>	
Intxausti	1570 <i>Landachua</i>	1633 <i>Landecho</i> , <i>Landachua</i>	1775-1831 <i>Landachu</i>	
Landatxu (Artika)		1681 <i>Landachu</i>		
Landatxu (Almika)			1740 <i>Landachu</i> 1787 <i>Landachua</i>	1910 <i>Landachu</i>
Torretxu			1723 <i>Torrechu</i> 1740 <i>Torrechua</i>	1807 <i>Torrechu</i>
Etxetxu (San Andres)			1799 <i>Echechuba</i>	1896 <i>Echechu</i>

Beste guztietan, salbuespenik gabe, txikigarria artikulurik gabe ageri da: **Azatarrotxu** (1745-45 *Hazatarrochu*), **Errotatxu** (1764 *Errotachu*), **Pastitxu** (1910 *Pasteitxu*), **Agirretxu** (1661 *Aguirrechu*), Almikako **Areztitxu** (1835 *Aristichu*), Demikuko **Ariztitxu** (1827 *Arestichu*), Arranotegiko **Ariztitxu** (1873 *Aristichu*), Arranotegiko **Ariztitxu** (1733-1845 *Arestitchu*), Mañuko **Etxetxu** (1897-98 *Etxetxu*).

-iz bukaeradunek ere ez dute artikulurik hartzen: **Galdiz** (1300 *Galdiz*), **Nardiz** (1514 *Nardiz*), **Tribiz** (1578 *Tribis*).

Deklinabideko markak eranstea ez dago esaterik zein den jokabide orokorra.

-ti ablatiboa erantsita duten leku-izenek ez dute artikulurik hartzen. Badira, hala ere, salbuespenak: **Beiti**, **Barruti** eta **Zarragoiti**. Lehenengo biak, baserria eta errota izena izanik, artikulua gabe ageri dira: **Beiti** 1857an artikulurik gabe agertzen da lehenengoz (1578an *Beytia* eta 1857an *Beiti*); **Barruti** 1521 ageri da lehenengoz artikulua gabe baina 1575erako artikulua gabe lehenengo aldaera ageri da. Hirugarrena, **Zarragoiti**, XVII. mendearen erdi aldera ageri da, eta artikuludun aldaerak urriak dira: 1670 *Zarragoiti*, 1671 *Çarragoitia*, 1742 *Zarragoiti*.

Ablatibo marka duten beste leku-izenak artikulurik gabe ageri dira: **Uriatziti** (1236 *Vriachiti*), **Bideazgoiti** (1894 *Bideazgoiti*), **Urezandi** (1910 *Urezandi*).

-ren(-e / -a) genitibodun leku-izenak, artikulua gabeak ziren: **Atsoarene** (1285 *Achoanaraen*, 1578 *Achoaren*), gaur egun Bakio aldean dagoen, **Barturen** (1578 *Barturen*).

XVIII. mendearen azkenetatik aurrera, baserri berrien izenak edo baserrien izen berriak⁴⁸ artikulua gabe ala bokal paragogikoarekin jaso izan dira lehenengo agerpenetatik; artikuluduna indartsuago jaso da idatziz. Ahoz, bokal paragogikoduna baino ez da jaso.

48 Genitiboaren marka, gaur egun, murriztuta ageri da, bokal arteko dardarkari bakunaren galeraren ondorioz: hau da, *Maisuaen* > *Maisuan*, *Marinoren* > *Marinon*... Horrela jaso dira, *Maisuan* etxea, *Antonion* iralekua, *Marinone* (bokal paragogikoarekin)...

XVIII. mendearen azkenetarako bokal paragogikodun aldaerak agertu badira ere (San Pelaioko⁴⁹ Amuetxebarri -1796 *Amorene*-, Jolapitxene -1818-50 *Yolapichene*-, Gortene -1818-50 *Gortene*-, Ostiene -1818-50 *Ostiene*-, Perdixene -1818-50 *Perdichene*), XIX. mendearen erdira arte ez dira ugariago jaso. XX. mendean bokal paragogikoz jaso dira asko, hala ere, *-a* bukaeradunak ere jaso dira (idatzizkoari dagokionez, ahozkoan bokal paragogikoa besterik ez da jaso eta). Oinarrian genitibo marka honek jabearen edo bertan bizi zirenen izenari edo ezizenari lotuta osatzen zuen baserri-izena. Zenbait parajeren izenetan ere ageri da: **Iratzagarri** (1882 *Achue-ne*), **Masuane** (1846 *Masuane*), **Arruane** (1870 *Arruane*)...

Morfema honen inguruan, Rosek (1997) esaten du:

Etxe izenetan ageri zaigun *-ne* elementua, *-ena* genitibo marka baino ez da, inguramendu fonetikoak horrela eraginda. *Mirriñe*, *Urkitzene*, *Urteune*, baina *Miriena*, *Atutxena*, *Argiñena*, *Garatena*, etab. Uribe osoan zabaldu-rik daude tankera honetako leku-izenak.

Genitibo marka honek, idatziz, askotan, *-a* bukaera badarama ere, *-ena*,⁵⁰ ahoz bokal paragogikoa darama *-ene*. Deklinatzean *-a* galdu eta lotura bokala behar du, leku-izena morfema honekin kontsonantez bukatzen direnetakoa delako. Beraz, artikulua ez da bokal paragogikoa izatera pasatzen, ezta inguramendu fonetikoak eraginda ere, artikulua itxiera eragingo duen bokal itxirik, sarritan, ez baitago. Kontsonantez bukatzen denez, deklinabidetik eratorritako bokal paragogikoa eransten zaio.

Proposatua	XVIII. mende amaiera	XIX hasiera	XIX amaiera	XX.
Txomekane		1823 <i>Chomequene</i>	1847-74 <i>Comeca</i> 1854 <i>Chomequena</i>	1910-23 <i>Chamacone</i> 1929 <i>Chomaquene</i> 1929 <i>Comaquene</i>
Agirre / Auzoko		1823 <i>Obiacua</i>	1847-74 <i>Obiacone</i> 1752 <i>Obiaco</i>	1910 <i>Obicuenta</i>
Patxotene		1839 <i>Patchote</i>	1847-74 <i>Pachotene</i> 1859 <i>Pachote</i>	1902 <i>Pachotena</i> 1922 <i>Pachotene</i>
Grandene			1854 <i>Grandene</i>	
Arrietane			1847-74 <i>Arrietena</i> 1859 <i>Arrietane</i>	
Basabe / Txukene			1847-74 <i>Consena</i> 1859 <i>Consene</i>	
Erramontxune		1836 <i>Ramon Duo</i>	1876 <i>Ramonchuene</i>	
Frantzune		1845 <i>Franchoena</i>	1847-74 <i>Franchua</i> 1897-98 <i>Franchuene-erota</i>	
Kolisone		1827 <i>Pepe Mozo</i>		1910 <i>Mosuena</i> 1934 <i>Mosuene</i>
Landanebeko		1845 <i>Landavecoa</i> 1845 <i>Landena</i>	1850 <i>Landa</i>	1910 <i>Landene becoa</i> 1948 <i>Landaene</i>
Kalene	1744 <i>Calechu</i> 1745-46 <i>Callena</i> 1764 <i>Calena</i> 1795 <i>Cale</i>		1857 <i>Calen</i> 1859 <i>Calena</i>	1914 <i>Calene</i>

49 Gaur egun Bakioko eremukoak dira.

50 Proposamenean leku-izen gutxi batzuk baino ez dira *-ena* morfemadunak: leku-izenon idatzizko erreferentziak besterik ez direlako jaso. Salbuespenak hauek dira: **Arrebena** etxea (herrian, desagertuta), **Filomena** baserria (Aranen, desagertuta), **Probostuena** etxea (Artikan, desagertuta), **Karlotana** beresia (Aranen) eta **Bakerešana** sola (Almikan).

Idatzizko beste baserri-izen guztietan -a bukaeradun ageri da -ena, idazteko ohituraren bati edo jarraituta. Morfema hau gabe ere ageri dira. **Joakintxu** (1857 *Juaquinchuena*, 1867 *Juaquinchu*), **Kasakane** (1897-98 *Casaquena*), **Muskerritxune** (1860 *Musquerrito*), **Saitu / Foteroane** (1899 *Foteruena*), **Baltzane** (1847-74 *Balcha*, 1897-8 *Baltzena*), **Galartzane** (1925 *Galarcena*, 1938 *Galarza*), **Beledrone** (1822 *Beledro*, 1860 *Beledroena*), **Txominantone / Poiuerrota** (1847-74 *Chomin Anton*, 1897-98 *Puju-errota*), **Longane** (1840 *Longa*, 1847-74 *Longuena*), **Balentiñene** (1827 *Valentin*, 1860 *Balentiñena*), **Erdikoetxe** (1859 *Potocha*, 1897-98 *Portochuena*, 1910 *Potochuena*), **Katalane** (1823 *Catalan*, 1845 *Catalanena*), **Kristobalene** (1845 *Cristobalchuena*, 1847-74 *Cristobalena*), **Manutxui-barrene** (1823 *Manuel Ybarra*, 1850 *Manuchuena*, 1897-98 *Manuchubarrena*, 1859 *Manuchu Ybar*).

-ko leku-genitibodun izen zaharrenak, artikulurik gabe jaso izan dira (**Matxitxako**; **Belauko**; **Sagarbarriko -Sanmigelportale**). Badira multzo honetakoak, gaur egun, artikulurik gabe jaso izan direnak: **Masugoiko**, **Laumariko**... Gero, baserrien kokapenari erreferentzia egitean (bestelako leku-izen erreferentzialetan ere bai), artikuluz jaso izan dira ia salbuespenik gabe. XIX. mendearen erdian artikulurik gabeko aldaera urriak ageri dira eta artikulua- ren indarra testuinguru honetan ere, zalantzazkoa dela dirudi: **Ermetxi-erdiko** (1762 *Ermecheo erdicoa*, 1847-74 *Hermechio erdi*, 1859 *Hermechio erdico*), **Agirre / Auzoko** (1857 *Aguirrierdicoa*, 1859 *Aguirre erdico*) **Beazko** (1745-46 *Veazcoa*, 1938 *Biesko*).

Gaur egun leku-izen erreferentzialen erabilera honelakoxea da. **Nafarrola** baserri multzoan badago bat goikoa dena, beste bat erdikoa eta hirugarren bat behekoa dena. Hitzunek, kokapenaren berri ematean artikulua-ekin esaten dute toponimoa eta osagai erreferentziala bereiztuta: [Nafarrola goikué]. Baserriaren izena ematean, berriz, artikulurik gabe: [Nafarrola-goikó]. **Agirrebarrenengo** (1701 *Aguirrebarrena*, 1704 *Aguirre Barrenengo*), **Ermetxiobeko** (1775-1831 *Ermecheo becoa*), **Ermetxiogoiko** (1740 *Ermechio Goicoa*), **Txaoletabeko / Zezilione** (1847-74 *Chaoleta becoa*), **Txaoletagoiko / Paulogorri** (1847-74 *Chaoleta Goicua*), **Ezkiagabeko** (1835 *Esquiaga becoa*), **Ezkiagagoiko** (1835 *Esquiaga goicoa*), **Nafarrolabeko** (1775-1831 *Nafarrola becoa*), **Nafarrolaerdiko** (1796 *Nafarrola erdicoa*), **Nafarrologoiko** (1774 *Nafarrologoicoa*), **Uriartebeiko** (1763-1846 *Uriarte becoa*, 1846 *Uriarte beascua*), **Uriartegoiko** (1763-1846 *Uriarte goicua*), **Gortaederrebeko** (1823 *Corta hederra becoa*), **Gortaederrediko** (1938 *Cortederrerdicoa*), **Gortaederreigoiko** (1823 *Corta hederra goicua*), **Landanebeko** (1845 *Landavecoa*, 1910 *Landene becoa*), **Landanagoiko** (1827 *Landa*, 1847 *Landa Goicua*), **Mungiarrebeko** (1827 *Munguiarrena*, 1860 *Munguiarra becoa*), **Mungiarrengoiko** (1860 *Munguiarra Goycoa*).

C.3.2.4.2. Artikulua galtzen dutenak edo sistematikoki hartzen ez dutenak:

— Artikulua hartzen duten leku-izenak ere badira (hasieran aipatutako generikotasunari lotutakoez aparte), baina handik denbora batera artikulurik gabe jaso izan dira. Sartzen ari zen artikulua-ren indar urria erakusten dute. Paraje nagusietan eta baserri-izenetan galera hau zailago ikusten da, aurrerago esan bezala. Txandakatzek XVI. mendetik aurrera jaso daitezke eta hurrengo mendeetan adibide gehiago jaso dira. **Barrutia** (1521 *Barrutia*, 1575 *Barruti*), **Urkisarri** (1578 *Urquisaria*, 1629 *Urquisarri*), **Portu** (1629 *Portu*, 1629 *Portua*), **Intxausti** kalea (1575 *Ynshaustia*, 1663 *Insausti*), **Erregiñazubi** (1644 *Reguina zubia*, 1764 *Erreguinazubi*), **Gortaederre** (1645 *Cortaederra*, 1774 *Cortaeder*, 1834 *Corterre*), **Gaztelu** (1788 *Gastelua*, 1897-99 *Gaztelu*)...

— Artikulua galtzen dutenen artean, kontsonantez amaitutakoek multzo handia erazten dute. Bokalez amaitzen direnek, antza, gutxitan hartzen dute artikulua (sarritan artikulua gabeak dira edo nahiko erraz galtzen dutenetakoak —aurreko multzokoak—). Kontsonantez bukatutakoen artean:

‘baltz’ dutenak bigarren osagaitzat, gutxi dira eta ez dago argi nola jokatzten duten. San Pelaio Gibelortzagako **Aranbaltz** artikuluaekin jaso da 1618an (*Aranbalças*); mende erdirantz, berriz, artikulua gabe (1659, *Arranbalz*); 1758an eta 1792an, artikuluaekin jasotzeko osterata ere (*Aranbalza*). Orditik aurrera artikulua gabe jaso izan da. Hau ikusita, badiardi artikulua zalantzazkoa dela. Araneko **Arbaltze** leku-izena ere artikulua gabe jaso da (*Atzbals*), XX. mendean desitxuratuta bokal paragogikoarekin jasotzeko (*Allache-parte*). San Migeleko **Axpaltxu** leku-izena, berriz, *Axpalza* jaso izan da 1643an, 1682an eta 1740an. XX. mendean erabat aldatuta jaso da *Aspelechu*.

Beraz, XVII. mendean artikuludun aldaerak jasotzen dira artikulua gabekoekin batera. Orditik aurrera, artikulua gabeko aldaerak nagusi dira. Hala ere, XVIII. mendean badago artikulua berreskuratzeko nahia edo, **Axpaltxu** salbuespenean ikus daitekeen moduan eta **Aranbaltz** leku-izenaren aldaeretan.

‘eder’ osagaia dutenen artean, XVIII. mendearen erditik aurrerantz artikulua zalantzazkoa da: **Errotaederra** (1629 *Errota hederra*), **Gortaederre** (1645 *Cortaederra*, 1774 *Cortaeder*, 1834 *Corterre*), **Arriederra** (1895-1903 *Arriederra*, 1982 *Arrieder*).

‘gibel’ osagaia duen leku-izenean, zuzenean artikulua erantsita izatetik bokal paragogikoa izatera pasatzen da: **Gibele** (1514 *Guibela*, 1857 *Guivele*, 1859 *Guibele*).

‘ilun’, XVII. mendearen azkenean artikulua barik jaso da. Generikotasunetik sortzen den neurrian lehenengo agerraldia artikuluduna izan da. **Basoillun** (1675 *Basayluna*, 1680 *Basoilun*), **Estratzaillune** (1778 *Hestrada Ylluna*, 1827 *Estraza ilun*).⁵¹

‘(h)ondar’ amaieran duen leku-izen bakarra dago eta hiriguneko errota izanik nahiko berandura arte -a bukaerarekin adierazi dute: **Ondarre**⁵² (1578 *Hondarra*, 1846 *Ondarre*).

‘txiker’ osagaiak nolakoa den adierazten du ‘nagusi’-ren parean. XVIII. mendean erditik aurrera aurkitzen da eta beti artikuluaekin, nahiz eta, beranduago, XX. mendean, ahoz, bokal paragogikoarekin jaso den. Horren erakusgarri: **Almikatzu** (1762 *Alboniga chicarra*), **Itubizkartzikerre** (1791 *Itubiscar chiquerra*), **Nardiztxikerre** (1859 *Nardiz chicarra*, 1897-98 *Nardiz chiquerra*), **Maiteortu** (1874 *Mayte ortu chicarra*).

‘zabal’ osagaidunek, artikulua erakusten dute baina XVIII. mende bukaerantz artikulua gabe agertzen da. XIX. mende amaierara arte bokal paragogikodun aldaera ez da islatu. **Arzabala** (1373 *Arzabala*), **Goientzabale** (1656 *Gogenzabala*, 1775-1831 *Goyenzabal*, 1897-98 *Gonchabale*) eta **Astazabale** (1779 *Astiazabal*, 1910 *Artazabala*; [Astasabalé]).

51 Leku-izenok paraje eta baserri-izenak dira. Hori dela eta, bukaeran bokal paragogikoa proposatu da, gaur egungo erabilerrari jarraiturik, eta idatziz ageri den artikulua faltagatik. Beraz, bokal itxiak asimilazioz eragiten duen itxierarik ez da ikusi behar. Izenek adierazten zuten generikotasunetik urrun daude, hau da, esanahia aldatu da, -e bokal paragogikoak erantsi dien lokatibotasuna dela eta.

52 Herrian badago errota honi erreferentzia egiten dion leku-izena: **Ondarburu**. Idatziz aldaera bi jaso dira: 1824 *Ondarburu* eta 1889 *Ondarraburu*. Bigarren osaketa honetan artikulua ez da galtzen, euskararen arauai jarraituta gertatu beharko litzatekeen arren. Beraz, litekeena da bokal paragogikoa izatea, holako testuinguruan ez baita galtzen, eta notarioak itxi den artikulutzat jotzea, eta ondorioz, zuzentzea; hau da, -e > -a bilakatzea, itxiera eragingo duen bokal itxirik egon ez arren.

- 'za(h)ar' osagaia dutenek ere, 'ilun' osagaia dutenen moduan, lehenengo agerraldia artikuluz egiten dute neurri handi batean. Gero, artikulua galtzen dute eta -e bokal paragogikoa edo -eta leku-atzizkia hartzen dute.
- XVIII. mende amaierarako artikulua gabe ageri da; garai horretatik hurbil, badira lehenengo agerraldia artikulua gabe egiten duten leku-izenak ere. Hauetako leku-izen batzuk galduta daude. Esate baterako, Artikako **Errotazarra** (1578 *Errotazarra*, 1800 *Errotazar*), San Migeleko **Errotazarra** (1663 *Errota carra*, 1848 *Rotazar*), eta auzo bereko bestea ere, **Errotazarra** (1744 *Errotazarra*, 1789 *Errotazar*), **Solozarre** (1632 *Solocarra*, 1632 *Solosarreta*), **Basozarra** (1763 *Basozarra*).
- Beste batzuk ez daude galduta, nahiz eta idatzizko beste agerraldirik ez izan: **Gaztañeta** (1690 *Gastaña carra*), **Olazarreta**: (1646 *Olazarra*, 1820 *Olazarreta*), **Bentazarre** (1827 *Ventazar*, 1893 *Ventazarre*), **Olazarre** (1845 *Olazar*, 1913 *Ola-zarre*).
- Gaur egun, ia auzo guztietan, badira **Etxezarre** edo **Etxezarreta** izeneko lekuak, nahiz eta etxerik ageri ez. Hauek guztiak bokal paragogikoarekin jaso dira: Aranen (**Juliane**), Agirren (**Bastegieta / Igartuko etxezarre**), San Migelen edo San Andresen (**Etxebarrierrekagoiko**), Artikan, Mañun (**Areztixu**) eta San Pelaio Gibelortzagakoan (**Etxezarreta**).

C.3.2.5. Ondorioak

Artikulua toponimian gutxi-gutxika sartu da. Bokalez amaitzen ziren leku-izen asko (eratorpenez, elkartez, edo berezko bokalez) artikulua gabeak ziren: **Aranondo**, **Akulategi**, **Garalde**, **Abadesolo**, **Almikaondo**, **Uriatziti**... Baita kontsonantez amaitzen diren batzuk ere: **Galdiz**, **Pintxes**, **Mendiluz**...

Lehenengo agerraldia artikuluduna izan zuten leku-izen batzuk, aurrerago, artikulua gabe jaso ziren. Artikulu gabeko lehenengo aldaerak XVI. mendearen azkenetan eta XVII. mendearen hasieran jaso dira: **Barruti** (1521 *Barrutia*, 1575 *Barruti*), **Urkisarri** (1578 *Urquisaria*, 1629 *Urquisarri*), **Intxausti** (1575 *Ynshaustia*, 1606 *Ynsaustuy*, 1663 *Ynsausti*)... Inoiz, lehenengo agerraldian aldaera biak jaso dira: **Portu** (1629), **Landatxu** (1633)... Beste batzuek geroago galdu zuten artikulua, generikotasunetik urrunduta: **Arantzadi** (1656 *Arançadia*, 1810 *Aranza*, 1836 *Aranzadi*), **Goienetxe** (1637 *Gojenechea*, 1676 *Goieneche*), **Urkidi** (1656 *Urquidia*, 1778 *Urquidi*), **Erregiñazubi** (1644 *Regina zubia*, 1764 *Erreguinazubi*)...

XVII eta XVIII. mendeetan, paraje nagusietan eta baserri-izenetan, artikulua aldedeko jokabidea agertzen da. Ordura arte artikulua gabe adierazten ziren zenbait leku-izen artikulua jaso zuten hasi ziren, artikulua zabaltzen zebilen erakusgarri: **Mañu**, **Goroso**, **Beitegi**...⁵³ Hala ere, nagusitu diren -a bukaeradun aldaera hauek, -a gabekoekin edo bokal paragogikodunekin txandaka jaso dira batzuetan eta beste batzuetan interferentzia egiten. Badirudi, eskribauek gaztelaniazko eredurako -a amaieradun aldaerak gusturago erabiltzen zituztela. -a bukaerarekin idazteko joera XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran berriro agertzen da.

C.4. Bokal paragogikoa

Toponimian, kontsonantearekin amaitzen diren izenek atzetik ageri duten -e bokalari esaten zaio paragogikoa. Bokal hau deklinabide-markak eranstea sortutakoa da aipatu bezala.

Bokal paragogikoaren lehen agerraldiak XVII. eta XVIII. mendeetakoak dira. Leku-izenen bigarren osagaia den '(h)atx' hitzari erantsita agertzen da bokal paragogikoa: 1634

53 1798an VEKAko SV L1657/6 agirian baino ez da nahasmenez jaso *Beittia* eta *Veittia*. Aurrerago, agiri berean *Beittegui Thelleria* jaso da.

eta 1793 *Aqueache* eta 1754 *Salbaiche*. Baita beste osagai batzuei ere, 1783 *Empare*, 1796 *Amorene*.

XIX. mendean ugariago islatu izan da, bai mendearen erditik aurrera, baita mende hasieran ere. Batzuetan, leku-izenaren lehen agerraldia bokal paragogikoduna izan da: **Txarale** (1816 *Sarale*, 1847-74 *Charale*), **Txomekane** (1823 *Chomequene*), **Mazuane** (1846 *Masuane*, 1870 *Mazuene*), **Perretxiñe** (1846 *Perredime*, 1910 *Perrechine*), **Tontorre** (1847-74 Tontorre), **Jentillatxeta** (1854 *Gentillache*), **Arrilabane** (1855 *Arrilabane*), **Grandene** (1857 *Grandene*), **Axgane** (1860 *Achgane*), **Arruane** (1870 *Arruane*, 1893 *Arruene*, 1910 *Arrune*), **Trinkone** (1882 *Trincone-bessacope*), **Axnabarre** (1895-1903 *Arnabarre*).

Horietako leku-izen batzuek ez dute *-a* bukaeradun aldaerarik. Beste batzuek, ordea, bai baina geroago agertzen dira: 1859 *Chomequena*, 1873 *Masuenta*, 1859 *Grandena*, 1895 *Tontorra*, 1943 *Arruana*. Badirudi, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran hitzunen erabilera islatzeko nahia baino gehiago *-a* bukaeradunen aldeko joera erakusten dutela eskribauek. Tartean ere badira bokal paragogikoa jasotzen dutenak ere.

Kontsonantez amaitzen ziren leku-izen zahar batzuek ere, bokal paragogikoa erantsita ageri dute. **Enparane** (1446 *Emparan*, 1783 *Empare*), **Gatzelugatxe** (1793 *Gatzelugach*, 1867 *Gastelugache*), **Erramontxune** (1836 *Ramon*, 1876 *Ramonchuene*), **Atsoarene** (1285 *Achoanaraen*, 1882 *Achuene*), **Bentazarre** (1827 *Ventazar*, 1893 *Ventazarre*).

Beste leku-izen batzuetan, bokal paragogikoak artikuluak hartzen zuen lekua hartu du. Baina joera hau ere XIX. mendearen hasieratik aurrera ikusi behar da. Kontuan izan behar da, artikuluaren egoera garai hartan.⁵⁴ Hala ere, eskribauek, oro har, baserri-izenetan, *-a* bukaera mantentzen dute, eta horren ondorioz, baserri-izen gutxi batzuetan ikus daiteke txandakatzea. Hurrengo leku-izen hauetan ikus daiteke bokal paragogikoa, baina kasu batzuetan artikulu gabeko aldaera ez da jaso: **Arane** (1645 *Arana*, 1818-50 *Aranes*, 1846 *Aranes*, 1859 *Arane*), **Gortaederre** (1645 *Cortaederra*, 1774 *Cortaeder*, 1834 *Corterre*), **Ondarre** (1578 *Ondarra* 1846 *Ondarre*), **Gibele** (1514 *Gibela*, 1857 *Guivele*), **Uroztze** (1827 *Uroza*, 1896 *Ur-etze*), **Basabe / Txukene** (1860 *Consena*, 1897-98 *Contzene*), **Frantzune** (1845 *Franchoena*, 1878 *Franchua*, 1897-98 *Franchuene-errota*, 1928 *Franchuene*).

Leku-izenen osagai diren hitz batzuk, gaur egun *-e* bokalarekin lexikalizatuta daude baina txandakatzeetan ez dira kontsonantez bukaturiko aldaerak jaso; bai ordea, *-a* eta *-e* bukaeradunak:

- Mune: **Munape** [Munépe].
- Larre:⁵⁵ **Astalarrepe**, **Larrezarre**, **Pepetolarre**, **Goiko larre**...
- Gane: **Kurtziogane**, **Zubigane**, **Ganeko landa**, **Axgane**, **Truboietagane**, **Goi-kogane**...

Badira, arrazoiak, beraz, pentsatzeko ez dela gaur egungo joera, lehenagokoa baizik. Bokal paragogikoa erakusten ez duten leku-izenak ere badaude. Salbuespenen artean, kontsonantez bukaturikoak baina aspaldi galduta daudenak aurki daitezke: **Arzabala**, **Errotazarra**, **Gaztañabakarra**, **Arriederra**... Baita, gaur egun, generikotasunetik hurbil dauden leku-izenak ere: **Farola**, **Farolzarra**, **Aretxokerra**, **Atxa**, **Sakona**... Talde bi horietakoek artikulu hartzen dute eta ez dira kontsonante hutsez ageri.

Bokal paragogikorik gabe eta artikulu gabe ageri diren leku-izenen artean hagonimoak daude: **San Migel**, **San Martin**, **San Andres**... Hala ere, ahoz, ermitaren inguruko parajeari eta baserriari [Samigelé] esaten zaio.⁵⁶

Leku-izen zaharretan, gehienetan, baita berri batzuetan ere, bokal paragogikoak indar gutxiago du: **Nardiz**, **Galdiz**, **Tribiz**, **Pintxes**, **Mendiluz**, **Basogalant**, **Zarran**, **Itubizkar**, **Basoillun**, **Arantzazabal**, **Flores** (*Miraflores*), **Arribiribil**, **Ganbiribil**, **Solobiribil**, **As-**

54 Leku-izen asko artikulu gabe agertzen dira eta beste askok galdu egin dute. Beraz, artikuluak ez du behar bes-teko indarrrik. Ikus 3.2. atala.

55 Euskaltzaindiari jarraituta 'larre'-ren alde egin da ez baitago argi kontsonantez bukatutakoa den. Generikoa eskatu izan denean, artikuluarekin eta bokal paragogikoarekin jaso izan da: *larra* eta *larre*.

56 Bokal paragogikoak lokatibotasuna eransten dio hagonimoari.

taldamen, Ataun, Ronpiolas. Horietako batzuk bokal paragogikoa hartzen hasi dira: **Zarran** 1895 Sarrene, **Tribiz** [Tribisé], **Pintxes** [Pintzese], **Itubizkar** [Itxibixkerre]. Beste batzuek analogiaz har dezakete, badirelako **Estratzaillune** edo **Astazabale, Goientzabale...** baita **Areztibiribile, Biribile...** moduko leku-izenak ere.

Horrelako txandakatzeak idatzizko agirietan ere aurki daitezke. Eskribau batzuek idazteko joeraren bati-edo jarraiturik (edo besterik gabe aurretik idatzita zegoenari jarraituta), *-a* bukaeradunak idatzi izan dituzte. Beste batzuek, ordea, bokal paragogikodun aldaerak jaso dituzte hiztunen erabilera islatuz.

Hau da, agiri askotan leku-izen bakarra jasotzen da, eta berau bokal paragogikodun aldaera da. Esate baterako, 1634ko *Aqueache*, 1754ko *Salbaiche*, 1783ko *Empare...* Leku-izen bat baino gehiago ematen duten agirien artean, 1818-1850koa da argiena. Bertan ageri diren baserri-izenak, gehienak San Pelaio Gibelortzagakoak, bokal paragogikoz jaso dira: *Gortene, Olazarre, Ondarre, Ostiene, Perdichene, Yolapitzene, Sarele, Aranes, Olazarre, Achurre*. Bada beste bat 1846koa. Horretan, *Ondarra* da salbuespena. Agirian bertan, leku-izen hau artikuluaekin eta bokal paragogikoarekin ageri da. Beraz, badirudi eskribauak ez dakiela nola adierazi behar duen leku-izena.

Bokal paragogikodun adibideak gehiago izan dira hurrengo urteetako agirietan, baina horietan ere ez dago argi zenbait izen nola adierazi behar diren.

— Agiri berean, leku-izenaren txandakatzea jaso daiteke:

1845 BUA. 1289/2. Montazgos: *Corta-erre* eta *Cortaederra*.

1846 BFA Busturia 682/014: *Ondarre* eta *Ondarra*.

1857 BUA. padrón: *Aranes, Emparen* baina baita *Arana* eta *Amparan* ere.

1897-98 BUA. 5 bis: *Gonchabale* eta *Goyenzabal*.

1910 BUA. 1032. Fincas rústicas: *Masuena* eta *Masuenar. Solozarre* eta *Solozarzar. Solobiribile* eta *Solobirivil*.

1944 BUA. 406/3,4 eta 353/3,4,5: *Bidegane* eta *Bidegana*.

— Beste batzuetan badirudi ez dutela garbi leku-izenaren bigarren osagaia nola adierazi:

1910 BUA. 1032. Fincas rústicas: *Bidegane* baina *Yturigan*.

— Zenbaitetan aurretik bokal paragogikoarekin jasotakoak *-a* bukaerarekin edo kontsonantearekin bukatuta ageri dira:

1796 BFA. Fogarak: *Amparan*, baina 1783 BUA. 842. Libros de cuentas y recibos: *Empare*.

1839 BUA. 1313/15. Casas: *Perdichena, Jolapichena, Olazarra, Ondarra*; baina 1818-1850 BUA. 37/6. Ganaderia: *Perdichene, Yolapitzene, Olazarre, Ondarre*.

1860 BUA. 1289/12. Leñas: *Gentil-ach*, baina 1854 BUA. 39/3. Enajenaciones y concesiones: *Getillache*.

1860 BUA. 5. Rotulación de calles: *Gibela*, baina 1857 BFA. Busturia 643/3: *Guivele*.

1910 BUA. 1032. Fincas rústicas: *Masuenar*, baina 1870 BFA. Busturia. 421/46: *Mazuene*.

— Batzuetan, bokal paragogikoa lexikalizatuta ez dagoelakoan, eskribau batzuek kendu egin dute; leku-izenak berea ez duelakoan desagerrarazi egin dute.

1910 BUA. 1032. Fincas rústicas: *Olatz* (Olatze).

Kontua da, agirietan, gero eta maiztasun handiagoz ageri dela bokal paragogikoa kontsonantez bukatutako leku-izenetan, edo zenbait eskribauk bokal paragogikodun aldaerak adierazteko joera dutela, beste batzuek hain argi ez badute ere.

C.4.1. Bokal paragogikoaren ezaugarriak:

Bokal paragogikoak dituen ezaugarriek leku-izenetan eragiten dute.

C.4.1.1. Leku-izenaren esanahia aldatu egiten da artikuluaekin ala bokal paragogikoarekin adieraziz gero. Gamindek (2002) dioenez:

«Gauza desberdinak dira hiztunek berek adierazi diguten moduan... Artikuluduna mugatua da, bokal paragogikoduna, berriz, mugagabea da izen berezien moduan.»

Bermeon ere, bereizketa berdina egiten da. Artikuluduna generikoa da; ezaugarritzatzeke artikuludun adjektiboa, edo kokapenari erreferentzia egingo dion izenlaguna eraman dezake. Artikulu gabea, ordea, berezia da, leku-izena da: bokal paragogikoak lokati-botasuna eranstean dio.

MUGATUA	MUGAGABEA
Etxe zaharra (zaharra den etxea)	Etxezarre (etxe zaharra zegoen gunea; gaur egun soloa)
San Juan oinatza (pausua bera)	Sanjuanoñatze (oinatza dagoen parajea)
Pozu illuna (putzua bera)	Pozuillune (putzua dagoen gunea)
Estratza iluna (bide iluna)	Estratzaillune (parajearen eta baserriaren izena)
Josuna (Josuren etxea, soloa...)	Josune (baserria baina ez da Josu jabea)

Deklinatzean ere, izen hauek desberdin jokatzen dute:

MUGATUA	MUGAGABEA
Pozu iluna: Pozu ilunean	Pozuillune: Pozuillunen
Benta zaharra: Benta zaharrean	Bentazarre: Bentazarren
Etxe zaharra: Etxe zaharrean	Etxezarre: Etxezarren
Gorta ederra: Gorta ederrean	Gortaederre: Gortaederren
Erreka baltza: Erreka baltzean	Errekabaltze: Errekabaltzen
Estratza iluna: Estratza ilunean	Estratzaillune: Estratzaillunen
Josuna: Josunean	Josune: Josunen

C.4.1.2. Bokal paragogikoak azentuan eta silabetan eragina du. Kontsonantez bukatutako leku-izenek bokal paragogikoa hartuz gero, silaba bat gehiago dute. Hauetako askok (ez markatuek), azken silaban izaten dute azentua. Beraz, bokal paragogikorik gabe, azentua berriro egokitu beharrik leku-izenak desitxuratu egingo lituzke.

Oinarria markatua izanda ere gal dezake azentua: Jósu edo [3osuné].

MARKATUAK	EZ MARKATUAK	
	BOKAL PARAGOGIKOAREKIN	BOKAL PARAGOGIKORIK GABE
Pintxes [Píntse]	Arane [Arené]	Áran, Arán
Itubizkar [Itxibíxkerre]	Gibele [Gibelé]	Gíbel, Gibél
Zarren [Sárrene]	Zabale [Sabalé]	Sábal, Sabál
Gortaederre [Górtarre]	Axnabarre [Asnabarré]	Asnábár, Asnabár
Atsoarene [Atzúne]	Etxezarre [Etzesarre]	Etzésár, Etsésár

Bokal paragogikoaren ordez artikulua jarri nahi izanez gero, eta hiztunek azentua behar den silaban egokituz gero, nahastea sortuko litzateke *-aga* leku-atzizki murriztuarekin: *-ága* > *-á*. Leku-atzizki hau ere azentuduna delako eta ez delako asimilatzen bokal itxiak eraginda ere. Horrela, esate baterako, **Etxebarriaga** [Etzebarrizá], **Mazaleriaga** [Masalízá], **Altzurraga** [Altzurrá] egiten den moduan, hiztunek [Astasabalá] esango balute, oinarrian Astazabalaga dagoela uste izango lukete edo berdin [Arbaltzá] Arbaltzaga, beste bi hauek izan beharrean: **Astazabale** eta **Arbaltze**.

Kasurik normalena, ordea, gaztelaniazko azentua egokitzea da, baserri-izenekin gertatzen den moduan. Artikuludun genitibo marka duten oikonimoen izenak ematean [Motzené], gaztelaniazko azentua egokitzen diete [Motzéna], irakurrita dutelako eta ez normaltasunez erabilia; hau da, gaztelaniazko eredutzat jotzen dute. Horrela jaso da ahozko bilketan.

C.4.1.3. Elkarketan eta eratorpenean, bokal paragogikoari eusten zaio. Hau da, bokal paragogikoa mantendu egiten da, artikulua galdu egiten den bitartean.⁵⁷

57 Euskararen legeen kontra doan arren, idatzizkoan aurki daitezke *Biribillape* edo *Ondarraburu...* tankerakoak. Datu hauek XX. mendekoak dira, eta izan daiteke, eskribauak, aurrerago aipatu bezala, *-a* bukaera zaleak izatea eta, ondorioz, bokal paragogikoa legokeen lekuan *-a* bukaera jartzea, leku-izena garbiago edo zuzenago jasotzen dutelakoan.

Portua, baina **Portuzarra**

Portua, baina **Portuburu**

Bokal paragogikoa erakusten dutenen artean, ordea, zenbaitzuetan baino ez da galtzen:

— Elkarketan, sarritan, bokal paragogikoa mantendu egiten da:

‘azpi’: **Enparaneazpi**.

‘buru’: **Aranburu** da salbuespena,⁵⁸ aspaldikoa delako. Besteetan bokal paragogikoa mantendu egiten da: **Astazabaleburu, Kontzeneburu, Tranpaneburu, Atsoareneburu, Frantzuneburu, Goientzabaleburu, Enparaneburu, Erramueneburu, Ondarreburu...**

‘gane’: **Iturizarregane**⁵⁹. Hala ere, sortzen dira bokal paragogikoa mantentzen duten leku-izen erreferentzialak: Kurtzezarregane, Axnabarregane Arbalzegane, Tontorregane...

‘ondo’: **Tontorreondo**.

— Eratorpenean, *-pe* atzikia baino ez dago adibide moduan erakusgarri: **Enparanepe** [Enparépe], **Biribilpe, Gibelpe, Bentazarpe, Txaralpe, Akaxpe, Axganpe, Montorpe...** Gehienetan, adibideetan ikus daitekeenez, bokal paragogikoa galdu egiten da, ez da mantentzen. Baina bokala mantentzen duten leku-izenak jaso ez arren (erreferentzial hutsak direlako), sortu, sor daitezke: Arbaltzepe, Tontorrepe, Baztarrepe...

C.4.1.4. Aspaldikotasuna eta hedadura. Bokal paragogikoa eranstejoera hau ez da berria; XVII.-XVIII. mendeetako erreferentziak jaso izan dira Bermeen.

Ez da, bestalde, txokokeria baten alde egitea. Joera honen adibideak, Euskal Herrian ez ezik, euskararen eremu historikoetan ere ageri dira, eta fenomeno honek, nolabait, bere aspaldikotasuna erakusten du. Joera hau, zenbait exonimotan ere agertzen da.

— Bizkaiko herri batzuetako adibideak ematen ditu Gamindek (2002), agerian utziz gaur eguneko erabilera:

Larrabetzu: Gane, Kortasarre, Etxetxikerre, Ursabale.

Gatika: Errotasarre, Pososabale.

Meñaka: Beñakabarrene, Solobarrene.

Dima: Kortasarre, Sabale, Dimegane.

Aulestia: Uriguene.

Zeberio: Etxegane, Subisarre.

Berdin gertatzen da Leioan eta Berangon Gorrotxategik eta Salaberrik (2000,I) erakusten dutenez:

Leioa: Basañese, Mendibile.

Berango: Landazabale.

Rosen (1997) Basauriko toponimia lanean, beste adibide batzuk daude:

Aketxe: 1903 *Aqueche*.

Burdinbidegane.

Ibarra: 1514 *Ibarra*, 1799 *Iberre*, 1814 *Ibarra*, 1912 *Ibarre*.

Iturizarra: 1873 *Iturrisarre*.

Landazar: 1775 *Landazarra*, 1864 *Landazar*, 1948 *Landasarre*.

Luzarra: 1546 *Luzar*, 1762 *Luzarra*, 1796 *Luzarre*.

Munagana: [Munegane].

Lezaman Bidartek eta Etxebarriak (2003) ere, adibide batzuk jaso dituzte:

Errekagatxe: 1868 *Errecagache*.

58 **Zarran** eta **Tribiz** leku-izenek, hiztunen arabera baino ez dute bokal paragogikoa hartzen, eransketa ez baita erabatekoa. Beraz, **Zarranburu** eta **Tribizburu** ez dira salbuespentzat hartzen.

59 **Pintxesgane** eta **Bizkargane** ez dira salbuespentzat hartzen. Batetik, **Pintxes** leku-izenak ez duelako sistematikoki bokal paragogikoa hartzen, hiztun batzuek baino ez dute [Pintxese] erabiltzen. Bestetik, **Bizkargane** leku-izenak ez diolako bere azpian legokeen Bizkarre izeneko paraje bati erreferentziarik egiten.

Ibarra: 1934 *Iberre*.

Mazarra: 1859 *Yberre Tellerie*.

Olazarra: 1887 *Olazarre*.

Oxangurenzar: 1949 *Oinxane*, 1950 *Ontxarre*.

Basobaltza: [Basobaltze].

Bakiosakon: [Bakiosakone].

— Gipuzkoan ere:

Hernanin, Tellabidek (1995) *Epele* jaso du, gaur egungo izen ofiziala *Epela* bada ere.

Eibar eta Elgetako Toponomastikan San Martinek (2001) ere, adibide urri batzuk ematen ditu:

Askasibar bolu (A): 1857, casa *Ascasibare* (Nomenclátor)

Ojanguren (E): 1857, casa *Ojangurene* (Nomenclátor)

Zabale (E): 1857, casa *Zavale* (Nomenclátor)

— Hauekin batera ez da ahaztu behar Euskaltzaindiak Nafarroa Garaian, Lapurdi, Nafarroa Beherean eta Zuberoan arautu izan dituen herri izen ugari:

Lapurdi: Arrangoitze, Azkaine, Hazparne, Uztaritze...

Nafarroa behera: Isturitze, Donazaharre, Larzabale, Ibarre, Ortzaize, Urepele...

Zuberoa: Barkoxe, Berrogaine, Ozaze, Garindaine, Mendibile, Onizegaine, Domintxaine, Aloze...

Nafarroa garaia: Taxoare, Galoze, Sartze, Itzalle, Apardoze, Orontze, Ezkarotze, Bidankoze⁶⁰...

— Arabako toponimia txikian Gonzálezek (1985-1989) ere bokal paragogikodun leku-izen batzuk jaso ditu:

Mendialdean:

Maetzun: Zabale.

Agurainen:

Donemiliagako Aspurun: Ibarre.

Langarikan: Langaricarane.

Barrundiako Larrean: Ibarre, Zabale.

Vitoria-Gasteizen:

Martiodan: Onderre.

Añanan:

Ollabarri eta Langraiz Okan: Salbazarre.

Zuian:

Urkabustaizen: Chorrote.

Aramaion: Ibarre, Arane, Lekuestugane.

Aialan:

Laudion: Regata de Arane, Zabale, Arane, Tontorre, Etxezarre, Arroyo Zabale, Sakone, Elorritxugane, Zenagortagane, Goikogane.

Lopez de Guereñuk (1989) egindako lanean ere, Arabako toponimian, bokal paragogikodun zenbait leku-izen aurki daitezke, besteak beste:

Ache, baserria Laudion.

Antezarre, Nubillan.

Arane, XIX. m. Langarikako parajea, Aramaioko Etxaguengo baserria, Laudioiko baserria.

Arene, XVI. m. Gereñuko parajea.

Bidicarre, Gazeo-Langarikako mugarriketako parajea.

Jugache, 1724 Andra Mariaren ermita Jugon.

Karatxe, Barajuengo baserria.

Macache, Elgea mendilerroko parajea.

60 Euskaltzaindiaren onomastika batzordea (1997): "Nafarroako toponimia nagusiaren normalizazio irizpideak" *Euskera* XLII.

Ollazarre, Olabarrin.
 Onderre, Martiodan.
 Pitisarre, Toberan.
 Recabastarre, Baranbion.
 Sarache, Amurrion.
 Zabale, Laudioko baserria.
 Zacone, Untzillako baserria.

Baserri-izenetan, idatziz *-ena* edo *-enea* morfemen alde egin den arren, *-ene* ere aurkitu da. Azken hau XIX. mendetik aurrera indartsu agertu da, eta ahoz ez da besterik jaso. Bermeon behin baino ez da aurkitu, Agirre auzoan, *-enea* forma. Bertan *-ena* morfemarekin batera:

Etxebarrimotzene: 1752 *Mochena*, 1753-54 *Echevarria mocena*, 1789 *Echevarria Mosenea*.

Donostian lan bi daude: batean,⁶¹ *-enea* da leman ageri dena, bai idatziz eta bai ahoz *-ene* nagusi den arren. Ia etxe guzti-guztietan aurki daiteke *-ene* morfemadun aldaera. Besteetan, ordea, Tellabidek (1995), ahozkoa oinarritzat izanda, *-ene* morfemadunak jarri ditu fitxaren buruan:

Aldakoenea (1595 *Aldaco*, 1841 *Aldacoene/Aldacoenea*, 1860 *Aldacoene*). Aldacoene-berri (1862 *Aldacoene-berri*)

Aldakoene: *Aldacoene*

Altxuenea (1841 *Alchuene*, 1860 *Alchubene*, 1862 *Alzuene*, 1862 *Alchuene* berri, 1864 *Alchuene*, 1989 *Altxuene*)

Altxuene: *Altxubene*, *Alchuene*

Andoizenea (1814-1851 *Andicene-chiqui*, 1841 *Andoicene mayor*, 1862 *Andoicene*, 1989 *Andoizene*)

Andoizene: *Andoicene*, *Andresane*

Aranzurienea (1841 *Aranzuria*, 1860 *Aranzuri*, 1862 *Aranzuriene*, 1864 *Aranzuri*, 1939 *Aranzuriyena*, 1989 *Aranzuriene*)

Aranzuriene: *Aanzuyene*, *Anzuiene*; *Aranzuri*; *Aranzuriene*

Arraskuenea (1805 *Arrasquene*, 1841 *Arrascuene*, 1860 *Arraque*, 1862 *Arrasquene*, 1989 *Arraskene*). *Arrasquene-chiqui* (1805)

Arraskene: *Arrasquene*

Balardienea (1841 *Balardiene*, 1860 *Balardia*, 1862 *Balardi*, 1989 *Balardiene*).

Balardiene: *Balardi*, *Balardi*, *Balardia*

Bikarionea (1860 *Bicariyone*, 1989 *Bikariyoene*)

Bikariyoene: *Vicario-eche*, *Vicariyo-eche*, *Vicariyoene*

Bizentxoenea (1841 *Bisenchone/Binsinsea*, 1862 *Bicenchoene*, 1885 *Visunchene*, 1989 *Bizentxone*)

Bizentxone: *Vicenchoene*, *Vicenchone*

Boleagillenea (1841 *Boleaguiñene*, 1844 *Boleagillene*, 1860 *Boleaguinene*, 1989 *Boleaguillene*)

Bolagillene: *Bolañene*, *Bolaguiñene*

Boltsagillenea (1860 *Bolsaguillene*, 1864 *Bolsaguille*, 1989 *Boltsaguillene*, *Poltsallene*, *Pultseillene*)

Boltsagillene: *Poltsallene*, *Pultseillene*, *Bolsaguille*, *Bolsaguillene*

61 *Donostiako toponimia*. Etnogintza. 1995. Donostia.

- Gasteluene (1841,1844)
Gazteluene: *Gaztelune, Gaztelu*
- Joxebenitoenea (1989 *Joxebenitoene*)
Joxebenitone
- Joxerramonenea (1989 *Joxeramonene*)
Joserramonene
- Juanbeltranenea (1841 *Juan Beltran / Juan Betrenea*, 1862 *Juan de Beltrán*, 1864 *Juan Beltranen-echía*, 1989 *Juanbeltrenene*)
Juanbeltrane: *Juan Beltranen echía, Juan de Beltran*
- Juanatxoenea (1805 *Juanachonea*, 1841 *Juanachoene*, 1844 *Juanachoene*, 1860 *Juanachoene*, 1862 *Juanachoene*, 1864 *Juanachoene*; 1989 *Juanatxene, Juananea, Juanatxone, Juanantxone*)
Juanatxene: *Juananea, Juanatxone, Juanantxone, Joanasorene, Juanachoene*
- Katalintxoenea (1841 *Catalinchoene*, 1844 *Catalinchoene*; 1989 *Katalintxoene*)
Katalintxoene: *Katalintxo, Katalintxone, Catalincho, Catalinchoene*
- Kataliñenea (1844 *Catalinene*, 1864 *Cataliñene*; 1989 *Kataliñene*)
Kataliñene: *Catalinarene, Cataliñene*
- Manterolaenea (1591 *Manterola*, 1814-1851 *Manterolanea*, 1841 *Mantolaene*, 1860 *Mantolene*, 1860 *Mantulene*, 1862 *Manioléne*, 1864 *Mantolaene*; 1989 *Juanmarienea, Mantulene*)
Juanmarienea: *Mantulene, Mantolaene, Mantolene*
- Markosenea (1841 *Marcosene*, 1841 *Marcosenea*, 1860 *Marcosene*, 1862 *Marcoséne*, 1862 *Marcoséne*, 1864 *Marcosene*; 1989 *Markosene*)
Markosene: *Markoxene, Marcosene*
- Martutene (1803 *Martutene*, 1841 *Martutene*, 1864 *Matutene*; 1989 *Martutene etxea*)
Martutene
- Mitxelena (1841 *Michelene*, 1841 *Michelene*, 1862 *Michéléne*, 1864 *Michelene*; 1989 *Mitxelene*)
Mitxelene: *Michelene*
- Molino Peruene (1844)
Peruene: *Peruene*
- Morianaenea (1814-1851 *Moriana*, 1841 *Moriana*, 1841 *Moriana*, *Mariene*, 1860 *Moriene*, 1864 *Moriana*; 1989 *Moriene*)
Moriene: *Moriana*
- Purrustenea (1841 *Feliperena*, 1860 *Purrustene*, 1862 *Purrusténe*, 1864 *Purrustene*, 1864 *Feliperene*; 1989 *Feliperena, Filipenea, Purrustene*)
Purrustene: *Purrustene*

Donostia inguruko beste udalerrri batzuetan, Tellabidek (1995) Donostiako Toponimi Erregistroan ere honelakoak jaso ditu:

- Astigarraga: Alorrene
Hernanin: Antonene
Pasaian: Azkuene: Axkuene, barrio
Renteria: Atxuania: Atxuanea, Uxuene
Usurbil: Santuene

Hondarribian Furundarenak (2002) egindako lanean ere *-(e)ne*-dun aldaerak aurki daitezke, gutxi badira ere.

Arotzenea: 1733 *Arozenea*, 1785 *Arotzenea*, 1867 *Arotcene*.

Josepatxonea: 1912 *Josefacho*, 1993 *Josefatxone*, *Josefatxona*, *Josepatxonea*, *Joxepatxonea*.

Laulanea: 1857 *Lanlauenea*, 1868 *Laulaenea*, 1895 *Laulaene*, *Laulanene*, *Sosue-nea* o *Sosuene*.

Maintziaenea 1734 *Mantziene*, 1992 *Mantzin Enea*.

Malkarrone: 1869 *Malcarrone*.

Matutenea: 1787 *Matutenea*, 1857 *Matunea*, 1866 *Matutiena*, 1908 *Martutenea*, 1943 *Martutene*.

Nojuronea: 1787 *Nojuronea*, 1819 *Nojuroenea*, 1867 *Lu(z/r)urienea*, *Lujurie-nea*, *Lujuenea*, 1868 *Nujurienea*, 1931 *Lujuene*, [Lujunia], [Lujune].

Patxikotzenea: 1982 *Patxikotz-enetik*, 1990 *Patxikotzene*.

Pauloarotzene: 1927 *Pauloarotzene*.

Perukonea: 1610 *Perucorena*, 1639 *Peruquenea*, 1698 *Peruconea*, 1811 *Peruco-ene*, 1817 *Peruconea*.

Triazene: 1610 *Triacene*.

Tximistenea: 1866 *Chimistenea*, 1921 *Chimistene*.

Urretxu eta Zumarragako toponimia lanean Ugartek (1998), *-enea* ageri du idatzikoan, sarritan gidoiez bereiztuta eta inoiz *-ene*-dun interferentziaren batekin.

Artetxenea, Artetxeneaetxeberria baina Artetxeneberria (1877 *Artechene-berria*) eta Artetxenezarra (1877 *Artechene-zarra*).

Epeldenea mayor (1739 *Epelde maior*, 1741 *Epeldene mior*, 1749 *Epelden Maior*, 1810 *Epeldenea mayor*, 1828 *Epeldenia mayor*, 1859 *Epelde mayor*).

Epeldenea menor (1739 *Epelde menor*, 1741 *Epeldene menor*, 1749 *Epelden menor*, 1828 *Epeldenia menor*, 1848 *Epeldenea menor*).

Ahozko bilketa gutxi dago. Ahozkoan bai *-ena* eta bai *-ene* aurki daitezke; bigarre-na desagertutako etxeak adierazteko ere.

Eurtzane, parajea; Fermiñene; Karlosena; Martzeliñorena; Praixkorena [Praixkonal]; Prontxone; Prontxoneballarea; Santiñe; Zeferinonea, [Sebeñone]. *-enekoa*, *-ene* ekiditeko erabiltzen da: Martxielenekoa, Damasonekoa.

Ermuko toponimiaren inguruko lanean Aranberrik (2001), *-ene* genitiboa *-enekoa* formaren azpian ageri du: Mugertzanekoa, Patrinekkoa, Segundanekoa, Torteroanekoa, Okarizenekoa, Arotzanekoa...

Basauriko toponimian Rosek (1997), adibide gutxi ditu, eta gehienak, ahozkoak dira:

Hurtadona: [Urtaune], [Urtune], [Urtene], [Urteune]

Mirienea [Miriñe].

Atutxena (1807 *Atucha*, 1854 *Atuchena*, 1928 *Atuchene*).

Lezamako toponimia lanean Bidartek eta Etxebarriak (2003) ere, adibideak dituzte. Gehienak XIX. mendearen azkenetakoak eta XX. mendeakoak.

Alejandritone

Alejandrone

Bekoguardeane

Bixentekoane

Diegone

Guardeane

Zugastiena: 1868 *Zugastiene*.
 Markoena: 1889 *Marcoene*.
 Dontxiena: 1923 *Dontxine*.
 Zapatariena: 1935 *Zapataríñe*.
 Txikitonea: 1940 *Chiquitone*.
 Olazene: 1983 *Olasene*.

Euskal Herritik kanpo baina euskararen eremu historikoetan ere, bokal paragogikodun zenbait adibide aurki daitezke:

Errioxa eta Burgoseko euskal jatorriko leku-izenetan Merino-k (1978), bokal paragogikodun leku-izenak urriak badira ere, baten batzuk erakusten ditu:

— Errioxan

Ganbizarre/Lambizarre (*Lambizarna*, 1752)

Zalduarre/Zaldubarre.

Subizarre (monte en la cuenca del río Najerilla).

Grañon, esaten du Merinok, «se llamó *Granone* (1073)».

— Burgosen:

Ezkerre.

Aragoiko leku-izen batzuek ere, Irigoienek (1986) erakusten duenez, bokal paragogikoa dute: Benabarre, Chivarne.

Exonimoetan ere ageri da. Hau da, kanpoko herri izen batzuei ere, beraiekin izan den hartu emana dela eta, euskaldunek tradizioz horrelaxe deitu izan diete: Lizundiak (2002) adierazten duenez, Sanandere, Karize... baita Madrile, Parise, Akize, Paue... ere.

C.5. Laburbilduta

Artikulu leku-izenetan pixkanaka sartu da. Leku-izen ugarik ez dute inoiz artikulurik izan, eta artikulu hartu izan duten leku-izenek, generikotasunetik sortuta espezifikotasunerako bidean galdu egin dute. Gaur egun artikulu gabeko leku-izenak erabiltzen dira. Generikotasunetik hurbil daudenak baino ez dute artikulu mantentzen, baina deklinatzean, baita inesiboan ere, artikulu galdu egiten dute. Idatzizkoan, baserri-izenetan eta zenbait paraje esanguratsuetan artikulu, edo beharbada hobeto legoke *-a* bukaera esatea, sistematikoago jaso da. Hau da, eskribauek eta notarioek *-a* bukaeradun aldaerak errazago erabiltzen dituzte, *-a* bukaera gabekoak eta, kontsonantez bukatutako izenetan, bokal paragogikodun aldaerak baino. Kasu batzuetan, *-a* amaieradun aldaera hauek gaztelaniaren arauetatik hurbilago daude, azentuazio aldetik. Azentua azken silaban duten leku-izenek, oxitonoek, *-a* bokala gehituz gero, paroxitono bilakatzen dira eta gaztelaniaren erregelatara errazago egokitzen dira. Beraz, onargarriagoak dira ([Egí, urrengo etzie dá], baina gaztelaniaz [Egía, es la próxima casa]). Beste kasu batzuetan, eskribauek bokal paragogikoa itxi den *-a* bokaltzat hartzen dute eta *e > a* bilakatzen dute. Ondorioz, sortzen dituzten leku-izenak euskararen araei jarraitzen ez dieten hitz elkartu eta eratorriak dira (*Ondarre*, errotaren izena da, baina goiko parajearen izena *Ondarraburu* jaso izan da, *Ondarburu* lehenago jasota egonda ere; *Txarale* parajearen beheko aldea *Saralape* moduan ere jaso da, *-a* bukaeradun aldaerarik jaso ez den arren eta lehenago *Saralpe* jasota egon arren). Eskribauen zuzentzeko, edo azentuazioa gaztelaniaren arauetara egokitzeko joera hau XIX. eta XX. mendeetan ageri da.

Bokal paragogikoa ere pixkanaka sartu eta zabaldu da. Lehenengo agerraldiak XVII. eta XVIII. mendeetakoak dira eta XIX. mendean indartsuago agertzen da. Baserri-izenetan nagusi diren *-a* bukaeradun aldaerak *-e* bokal paragogikodunekin txandakatzen dira hasiera-hasieratik, XVIII. mendearen azkenetatik (*Arana* / *Arane*, *Ondarra* / *Ondarre*, *Gibela* / *Gibele*). Kasu hauetan kontsonante hutsez bukatutako aldaerak gutxitan azaldu izan dira. Paraje-izenetan, berriz, errazagoa da hiru aldaerak jasotzea (*Gortaederra* / *Cortaeder* / *Cortaerre*, [Górtarre]; *Gogensabala* / *Goyenzabal* / *Gonchabale*). Hala ere, badira paraje-izenak artikulurik jaso ez dutenak. Orduan, kontsonante hutsez bukatutako aldaerak

paragogikodun aldaerekin txandaka agertzen dira (*Emparan / Empare, Gaztelugach / Gaztelugache*). Gaur egun, bokal paragogikoa zabaldu-zabaldurik dago, eta salbuespen-tzat jotzen diren leku-izen batzuetara ere, betiere hiztunen arabera, bokal paragogikoa zabaltzen hasi da.